

GRADU AMAIERAKO LANA
DIRURIK GABE BIZI: UTOPIA ALA
POSIBILITATEA?

EGILEA : NEREA GARCIA TORRES

TUTOREA : JOSE MARIA SARASOLA LEDESMA

IKASTURTEA : 2021 - 2022

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. DIRUA	5
2.1. Zer da dirua? Ezaugarriak eta funtzioak	5
3. DIRUAREN HISTORIA	7
3.1. Antzinako historia	7
3.2. Gaur egunera hurbiltzen	9
3.3. Gaur eta etorkizuna	9
4. DIRU MOTAK	10
5. PHILOSOPHIE DES GELDES	11
5.1. Georg Simmel	11
5.2. <i>Philosophie des Geldes</i>	12
5.2.1. Dirua eta balioa	12
5.2.2. Dirua eta askatasuna	15
5.2.3. Balio pertsonalak	17
5.2.4. Bizimodua	19
6. DAVID ROLFE GRAEBER : ANTROPOLOGIA ANARKISTA	21
6.1. David Rolfe Graeber	21
6.2. <i>Debt: The First 5000 Years</i>	21
6.2.1. Trukearen ideia	22
6.2.2. Harremanak truke moduan	23
6.2.3. Zorra, kontzeptu morala edo ekonomikoa?	23
6.2.4. Egungo arazoak perspektiba historikotik abiatuz	24
6.3. <i>Fragments of an Anarchist Anthropology</i>	25
6.3.1. Ideia nagusiak	25
7. DIRUAREN AURKAKO JARRERAK	28
7.1. Jarrera erlijiosoa	29
7.1.1. Egungo gizartea eta erlijioa	31
7.2. Jarrera politikoa	32
7.2.1. Komunismoa eta anarkismoa	32
7.2.2. Kriptomonetak	35
7.2.2.1. Kriptomoneta eta “FIAT” motako diru tradizionala	36
7.2.2.2. Kriptomoneta motak	37
7.2.2.3. Etorkizuna	38
8. DIRURIK GABE BIZI, POSIBLE AL DA?	39
8.1. Dirurik gabe bizi, ikuspuntu teoriko baten bitartez	40
8.2. Dirurik gabe bizi, ikuspuntu praktiko baten bitartez	41
8.2.1. Istorio errealak	42

8.2.1.1. Heidemarie Schwermer	43
8.2.1.2. Mark Boyle	44
8.2.1.3. Benjamin Lesage	46
9. METODOLOGIA: ELKARRIZKETA SAKONA, ELKARRIZKETA EGITURATUA, INKESTAK	48
9.1. Definizioak	49
9.1.1. Elkarrizketa sakona, EMIC-ETIC ikuspuntuak	49
9.1.2. Elkarrizketa egituratua	50
9.2. Metodologia	50
9.3. EMAITZAK	51
9.3.1. Elkarrizketa sakona	51
9.3.2. Elkarrizketa egituratua	54
9.3.3. Inkesta	55
10. KONKLUSIOA	58
11. ERANSKINAK	60
(1) Elkarrizketa sakonaren transkripzioa	60
(2) Elkarrizketa egituratua	66
(3) Inkestako galderak	69
BIBLIOGRAFIA	70

1. SARRERA

Gradu Amaierako lan honen gaia, tituluak dioen bezala, ondorengo da: **Dirurik gabe bizi: utopia ala posibilitatea?**

Baina, zer da utopia?

Zibilizazio ideal, fantastiko, imajinario eta gauzaezin, paralelo edo alternatibo baten ideia edo errepresentazioa. Utopia terminoak egoki, baina bideraezin edo praktikan jartzeko zailtzat jotzen den proiektu edo doktrina ere izenda dezake: «Utopia komunista», «Utopia anarkista». Zentzu horretan, utopia gisa, mundua eta gauzak nolakoa izatea gustatuko litzaigukeen ulertzeko modu baikortzat ere har daiteke: «Badakit utopia bat dela herrialdeak funtzionaraztea ahalbidetzen duen proposatzen dudana modua» (Imaginario, 2019).

Egun, dirua oinarri duen sistema kapitalistan bizi gara. Badakigu dirua ez dagoela mundu osoan modu parekatuan banatuta, eta batzuk modu erosoan bizi diren bitartean, beste batzuk ahaleginak egin behar dituztela egunero beren familiak eta haiek berak aurrera ateratzeko.

Titulua irakurri nuen momentutik argi izan nuen gaia hau interesgarria izango zela. Azken batean, eta zorionez, diru falta hau sumatu ez dudana familia batean hazi nintzen, eta “txanponaren beste alde” ere ezagutzea garrantzitsua zela iruditu zitzaidan.

Diruaren gaia konplexua eta sakona da. Azkenean, egun, diru bezala ezagutzen duguna txanpon eta paper zati sinple batzuk dira. Konfidantzan oinarritzen den ekonomia batean bizi gara, gobernuak babesten duena. Baina nola litzateke dirurik gabe bizitzea? Posible izango litzateke?

Lan honen helburua hau aztertzea litzateke. Diruaren definizio eta gaur egun ezagutzen dugun honen jatorritik hasiz, kontzeptu konplexuetara ailegatuz. Kriptomoneten papera ere klabe izango da lan honetan, azken batean egungo gaia da eta ez dakigu noraino iritsi oteko den.

Simmel, Graeber eta beste autore batzuen obrak ere lekua dute lan honetan. Azken batean, aportazio interesgarriak egin dituzte diruaren kontzeptuari eta honek beste gauzekiko duen harremani buruz, aurrerago ikusiko dugun moduan. Ikuspuntu pisutsuak dituzte.

Diruari buruzko aurkako jarrerak ere izango dute leku: politikoa eta erlijiosoa.

Lanarekin bukatzeko, atal praktikoa izango genuke. Hemen, elkarrizketa sakona, elkarrizketa egituratua eta inkestak aurkituko ditugu, gure lanaren helburura, “**Dirurik gabe bizi: utopia ala posibilitatea?**” jakitea dena, ailegatzer lagunduko digutenak.

2. DIRUA

2.1. Zer da dirua? Ezaugarriak eta funtzioak

Dirua transakzioak burutzeko kobratzeko eta ordaintzeko eskuarki onartzen den aktibo edo ondasun oro da.

Esan beharra dago, dirua ez dela bakarrik guk egun ezagutzen ditugun paperezko-diru eta txanponak, baizik eta gizarteak ordaintzeko modu bezala onartzera prest dagoen klase guztietako aktibo multzoa; salerosketak errazteko diru fisikoa sortu zen (Sevilla Arias, 2016).

Diruaren ezaugarriei dagokionez, aipagarrienak honako hauek dira:

- ❖ **Estandarizatua** izan behar du. Unitateak kalitate berekoak izan behar dira, hauen artean ezin dira inolako desberdintasun fisikoak eman.
- ❖ Zabalki **onartua** eta **ezaguterraz** izatea beharrezkoa da.
- ❖ Balio gutxiko transakzioak onartzeko **zatigarria** izan behar du.
- ❖ **Erraz garraiatzeko** modukoa izan behar du.
- ❖ **Ez da erraz** edo **azkar hondatu** behar. Hondatuz gero, bere balioa galduko luke.

Bestalde, diruaren beste ezaugarri hauek aipa ditzakegu (Uriarte, 2019):

- ❖ **Balio unibertsala**. Bilete edo moneta bakoitzak ezarritako eta esleitutako balio bat du, unibertsalki onartua dena.
- ❖ Bere balorea **eskaintza** eta **eskariaren araberkoa** da. Diruaren eskaintza eskaria baino handiagoa bada, bere balioa txikiagoa izango da. Aldiz, zirkulazioan dagoen dirua eskaria baino txikiagoa baldin bada, hau eskuratzeko zailtasunak honen balioa handituko du.
- ❖ Bere balorea **produktuen prezioaren aurkakoa** da. Aurreko puntuarekin lotuta, moneta bateko eskaintza txikia bada, eskuratzeko zailtasuna handiagoa da, bere balioa handiagoa izanik, eta ondorioz produktuen prezioa baxuagoa bilakatuz. Aitzitik, zirkulazioan dagoen diru kantitatea handia bada, hau eskuratzeko errazagoa izango da; beraz, produktuen prezioa handiagoa izango da (edozeinek eskura dezakeelako dirua).
- ❖ **Eskariaren gorabeherak ekonomiaren araberakoak** dira. Aurreko ezaugarriaren ildotik, ekonomiaren hazkundera badago, eskaintako ondasun eta zerbitzuen eskaintza handitzearen ikuspuntutik, diru gehiago beharko litzateke horiek eskuratu ahal izateko, eta horrek diru-eskaria handitzea dakar.
- ❖ **Eskaintza nazio bakoitzeko gobernuaren araberkoa** da. Jadanik, zirkulazioan dagoen diru kantitatearen garrantziari eta honek duen erabakigarritasun ahalmenari erreparatu diogu, eta herrialde edo nazio bakoitzean alderdi hori zehazteko arduradun bakarra gobernu eta honek arautu eta jarraitzen dituen politikak dira.

- ❖ Eskaintzak eta eskariak **inflazioa** baldintzatzen dute. Eskaintza eskaria baino askoz ere handiagoa denean, inflazioa ematen da. Zirkulazioan dagoen dirua gehiegizkoa da, ondorioz diruaren balioa beheragotu egiten da eta prezioetan hazkundera ematen da.

➤ **Inflazioa:** Ondasunen eta zerbitzuen prezioaren hazkunde orokorra. Ondorioz, gure eskurapen ahalmena gutxitzen da, lehen eskuratu genezakeen ondasun eta zerbitzuekin alderatuz, orain eskuratu dezakegun kopurua txikiagoa baita (González, 2016).

Gure bizitza erosoagoa izango den ildotik, askotan pentsatu ohi izan dugu diruak ematen digun eskurapen ahalmen eta egonkortasun ekonomikoak direla honen oinarritzko funtzioak.

Aldiz, ekonomiarentzat diruaren esanahia pertsonen eskurapen ahalmenetik haratago doa. Honela, adar makroekonomiko adituek - hauen artean “El Bosque” unibertsitateko irakaslea den Wilson Solanori *Portafolio.co* aldizkariak eginiko elkarrizketa batean (2017) - 3 oinarritzko funtzio azpimarratzen dituzte:

1. **Ordainbide** gisa. Diruaren erabilpena, edozein transakzio burutzeko ematen da, edozein ondasun, produktu eta zerbitzuen trukea erraztuz. Solano-rentzat funtzio hau “inculcar que se recibe una cosa a cambio de otra” esaldian oinarritzen da. Adibidez: edozein pertsonak denda batean zerbait erosi nahi duenean eta hau ordaintzen duen momentuan, trukea ematen da eroslearen eta saltzailearen artean. Erosleak dirua ematen dio saltzaileari, ondasun bat eskuratzearen alde.
2. **Kontu-unitatea.** Produktu, zerbitzu eta ondasunen prezioa edo balorea zehazten du. “Tiene mucha relación con los precios relativos, por qué, de dónde y cómo sale el dinero. Por ejemplo, probablemente una manzana que cueste 100 pesos hoy en Colombia puede costar mañana 80 o 120 pesos. Esto dependerá de la oferta y demanda que tenga el producto”, azaltzen du Solano-k.

Hark jarritako adibidea: negozio bat irekitzean, guk saltzen ditugun ondasunei prezio bat eman behar diegu, hauek merkaturatu ahal izateko. Ondasun hauek guretzat kostu bat suposatu dute, hornitzaileen bidez eskuratu baititugu. Kostu horretan oinarrituz, ondasunen erosketa prezioa eta galerak ez izateko gutxieneko etekinak kalkulatzeko ditugu. Azkeneko prezio hori izango da ondasunaren unitate kontua”.

3. **Balio gordailua.** Etorkizunean zerbait erosi ahal izateko boterea ematen digu. Diruak denboran zehar egonkor mantentzeko ahalmena duenez, pertsona batek egun kapital bat baldin badu, etorkizunean hau inbertitzeko aukera izango du. Balio gordailuan “une jakin batean egiten dena da begiratu ea diru hori iraunkorra den denboran zehar” dio Solano-k.

Hau hobeto ulertzeko gaur egun ohikoa den egoera batean oinarritzen da: enpresek eta familiek beren ondarea diru edo lur moduan gordetzen dute bere kapitala mantentzeko. Etorkizunean pertsona horiek dirua lortu nahi baldin badute, aberastasun hori lur moduan izanez gero, salmenta da haien bide bakarra. Aldiz, diru moduan mantentzea erabaki badute, diru hori edozein momentutan eskuratzeko aukera izango dute.

Laburbilduz, dirua ondasun eta zerbitzuen salerosketa-transakzioak egiteko eta zorrak ordaintzeko edo kitatzeko ekonomian onartzen den bitartekoa da. Trukerako bitarteko bat eta ordaintzeko bide bat da, baina aktibo finantzario bat ere bada, aberastasunaren balioa mantentzea eta babestea ahalbidetzen baitu.

3. DIRUAREN HISTORIA

3.1. Antzinako historia

Betidanik pentsatu ohi izan da diruaren historia trukean duela sorrera. Atal honetan unibertsalki aitortuta dagoen historian oinarrituko naiz, baina aurrerago ikusiko dugunez, - zehazki David Graeberek 2011an argitaratutako “*En deuda: una historia alternativa de la economía*” liburuan - beste teoria batzuk daude diruaren sorkuntzari dagokionez.

Diruaren historia labor azaltzeko gehienbat Harold Vásquez-ek 2015ean argitaratutako artikuluan oinarrituko naiz. Aldi berean, Vásquez beste liburu batean oinarritu zen artikulua idazteko: John Kenneth Galbraith-ek 2014an idatzitako “*El Dinero: adónde vino y adónde fue*”.

Dirua ez da betidanik gure artean egon. Jatorrizko komunitateak ez zuten honen berri ez beharrik, beren ondasunak modu tribalean eta elkarkomunean kudeatzen baitzituzten.

Iraultza neolitikoak ekarritako sedentarismo eta nekazaritzak aurreko egoera guztia aldatu zuen, jabetza pribatuari eta trukeari sorrera emanez. Azken batean, gizakiak ekoizten zuenari probetxua ateratzeko eta elikagaiak lortzeko bi irtenbide zituen: hark berak kontsumitzea edo trukitzea.

Trukearen arazo nagusia bateragarritasuna zen. Behar gutxiko komunitate txikietan sistema ondo funtzionatzen zuen bitartean, eragozpen asko zituen eskala handiagoan: trukeak ez zuen unibertsala zen balio-eskala, baizik eta beharren arabera funtzionatzen zuen. Nahitaezkoa zen bi pertsonen arteko adostasuna: norberak dituen ondasunak pertsona baten gustokoak izatea eta aldi berean beste pertsonak dituenak nire gustokoak izatea. Gainera, bidezko trukea izan zedin, ondasunek zuten baloreari buruzko akordioa beharrezkoa zen. Guzti honek trabak jartzen zizkion aurrezteari.

Trukeak ekartzen zituen zailtasunei aurre egiteko, pertsonak merkantzia ezberdinak erabiltzen hasi ziren diru moduan. Erabilitako salgaien barietatea zabala eta askotarikoa izan zen, hala nola abelburuak, maskorrak eta harriak. Natura baliabide edo ezaugarri geografikoen arabera, herrixka bakoitzak diru merkantzia bat zuen ezarrita, eta horrek beste herrixkekin merkataritza oztopatzen zuen (Vásquez, 2015).

Aurrerago, bitarteko horiek moldatzeko errazagoak ziren beste materialetan bilakatu ziren: urrea, zilarra edota gatzezko poltsak. Metal hauek lingote moduan mugitzen ziren, eta hau arazoa zen pisutsuegiak ziren heinean.

Material berriek herrixken arteko merkataritza haratago erraztu zuten, eta sistemaren berritasuna zela medio, lau mila urteetan zehar mantendu zen (Galbraith, 2014, p. 15). Hala ere, hauen konplexutasuna agerian zegoen. Azken batean, pertsonak pisatu, zatitu eta haren kalitatea egiaztatu behar zuten edozein eragiketa komertzial burutu aurretik. Horregatik, eta metalek pisu finko bat izan zezaten, txanponen sorrera ez zen berandutu.

Merkataritza-jardueren garapenak, batez ere erromatar inperioaren bidez, txanpon metalikoen sistema zabaltzea erraztu zuen. Txanponen sorkuntzaren monopolioa Estatuaren esku zegoen, eta hauek jainko baten irudia, enperadore baten bustoa edo gizarte horren ikur bereizgarriaren baten zigilua grabatzen zieten, horrela txanponaren benetakotasuna eta materialaren pisua bermatzeko.

Nahiago zituzten materialak urrea eta zilarra ziren. Azken batean, beren ezaugarriak beste materialen ondoan hobetoak ziren: ustelezinak eta baliotsuak ziren, baliabide eskasak ziren (hauek lortzeko zailtasunak zeuden, eta beraz eskaria handiagoa zen) eta ezin ziren faltsutu (moneten estandarizazioan ahaleginak jarri arren, beti baitzegoen faltsifikazioaren arriskua). Ezaugarri hauek, txanponak denboran zehar biltegitratzea ahalbidetzen zuten (*Historia y evolución del dinero*, 2019).

Mendeak aurrera zihoazen, eta Amerikaren aurkikuntzak txanpon metalizatuen hedapena Europa osotik azkartzea ekarri zuen, hauetako moneta asko faltsuak edo beheratuak izanik. Horren ondorioa “Casas de las Monedas” izenekoak izan ziren. Instituzio horien funtzioa, txanponak - faltsuak ziren edo ez kontuan izan gabe - pisatzea, balioa eman eta trukitzea ziren. Egun, etxe hauek “casas cambistas” bezala ezagutzen ditugu, baina azpimarratzekoa da 1600. urtean Amsterdam-en izandako garrantzia, orain ezagutzen ditugun banku¹etan bilakatu baitziren (Vásquez, 2015).

XV. eta XVI. mendeetan txanponen erabilpena nabaria zen artean, baina jendeak hauek salbu gordetzeko lekurik ez zuen. Urreginek dirua eta balore handiko objektuak gordetzeko kutxa gotorrak zituzten, eta zerbitzu hori eskaintzen hasi ziren. Funtzionamendua hurrengoak zen: pertsonak urrea eramaten zuten eta urreginek ziurtagiriak igortzen zizkieten beren jabetza bermatzeko. Horrela, ziurtagiriaren jabeak nahi zuenean eskuratu zezakeen dirua nahi zituen transakzioak burutzeko (*Historia y evolución del dinero*, 2019b)

Denbora pasa ahala, ziurtagiri hauek ordainketak egiteko erabiltzen hasi ziren, irudikatzen zuten metala beharrezkoa ez izanik. Horrek paperezko-diruaren sorrera ekarri zuen, gaur egun billete bezala ezagutzen ditugunak.

Billetearen erabilpena hedatuz joan zen. Europan, Suedian zehazki, 1661. urtean agertuko ziren lehenengoak Johan Palmstruch²-en eskutik, Estokolmoko bankuan urrea edo zilarra utziz gero, ordainagiri edo frogagiri bezala ematen zituena.

Espanian, 1780. urtean agertu ziren, Carlos III.aren erregealdian. Hauek garraiatzeko erraztasunari esker, arrakasta handia izan zuten hasieratik (*Breve historia del dinero: desde el trueque al ahorro*, d.g.).

Txekea, berriz, Ingalaterrak XVIII. mendean egindako banku-praktikatik sortu zen, baina XIX. mendean hasi berria zen bere lege-araudia. Bertan, 1852an eman zen lehen txeke legea. Geroago, 1865an zehazki, Frantzia gertatu zen, eta geroztik, beste herrialdeek jarraitu zuten eredu.

¹ Bitxikeri bezala aipatu “La Banca Monte dei Paschi di Siena” dela munduko lehen bankua, 1472an sortua, Italian duena jatorria («*Por qué el banco más antiguo del mundo está en el centro de una nueva tormenta económica*», 2016).

² **Johan Palmstruch** (1611ko ekainak 13 - 1671ko martxoak 8) letoniar-holandar ekintzaile finantzario eta berritzailea zen. Askok dira Europan diru-papera barneratu zuela bermatzen dutenak («*Johan Palmstruch*», 2021).

3.2. Gaur egunera hurbiltzen

Jadanik diruaren historian barneratu gara. Interesgarria izango litzateke gaur egungo egoerara nola ailegatu garen ikustea; azken batean, teknologia eta berrikuntzak aurrera doaz denboran, eta horrek ere eragina du jorratzen hari garen gaian.

Gaur, kreditu-txartelak munduko diru-sistematik erabiliena bihurtu dira, baina nola?

Kreditu-txartelak 1914 urtean dute jatorria, Western Union enpresak bere bezeroei abantailak ematen zizkiten txartela sortu zuenean. Baina hau ez zuen izango egungo kreditu-txartelaren funtzioa, baizik eta fidelizazio txartelak ziren eta enpresa gortzailearen establezimenduetan ordaintzeko aukera ematen zuten soilik.

Eredua jarraituz, 1958. urtean Bank of America zirkulazioan jarriko zuen lehen kreditu-txartela, *Bankamericard* izenez ezagutua, egun VISA dena. Urte berean, American Express-ek igorriko zuen bere lehen kreditu-txartela.

Geroago, 1990ko hamarkadan, aurrerakuntza nabaria emango zen. Orduan confinity.com eta x.com bezala ezagunak ziren bi enpresa zeuden. Banka online munduan zeuden murgilduta, bakoitzak bere ideia berritzaileak jarraitzen zituelarik. Fusioa emango zen aurrerago, eta ezaguna den “Paypal” sortuko zuten.

Paypal-en gakoa hurrengoaren zen: dirua ordenagailu batetik bestera segundutan transferitzeko ahalmena zuela. Kontuan izan behar dugu diruari dagokionez garai horretan aurrerakuntza esanguratsua izan zela.

Aurrerago, 2009 urtean, lehen kriptotxanpona sortuko zen, Bitcoin. Geroztik, milaka kriptotxanpona daude indarrean.

3.3. Gaur eta etorkizuna

Gaur, esan dezakegu Bitcoin-ek arrasto garrantzitsua utzi duela diruaren historiari dagokionez, hurrengo aldaketak ahalbidetu baititu (Treviso, 2022):

- ❖ Diru tradizionala gobernuek babesten duten bitartean, **Bitcoin deszentralizatua** dago. Boterea sare osoan dago, eta ez erabakiak hartzen dituen pertsona edo erakunde baten esku.
- ❖ Bitcoinek sarean transakzioak burutzen dituzten pertsonentzat **anonimotasuna** ahalbidetu du.
- ❖ **Blockhain teknologia**³ aldatu ezin diren eta beti sarbide publikokoak diren erregistroak etengabe biltegitratzeko modu bihurtu zen.

³ Transakzio digitalak modu seguru, azkar eta deszentralizatuan egiteko aukera ematen digu (Matesanz, 2022).

Diruak bide luzea egin du, oparien ekonomietatik hasi eta Interneten funtzionatzen duten blockhain teknologiek bultzatutako txanponetaraino, azpimarratzekoa da gizakiak lortu duena.

Gizateriak beti hobekuntzen bila dabil, eta honen adibide dugu nola dirua hainbeste “formetatik” pasa zen antzinatek gaur egunerainoko tartean: lehengai modutik, miniaturazko errepliketara, ondoren egungo txanpon eta billeteetara ailegatzeko. Honen helburu bakarra transakzioak erraztea zen.

Beti entzun ohi dugu ingurumena dinamikoa eta aldakorra dela, eta gizartea horretara egokitu behar dela. Horrek baita ere diruaren alorrean du eragina. Teknologia berritzen doa beti, eta berrikuntza hori gertatzen den momentuan, beste bat funtzionatzeari uzteko arriskua dago.

Azken batean, dirua gizakiaren beharren arabera izan du bilakaera. Orain, Bitcoin moduko txanponak edota online ordainketa modu berriak ditugu, baina ez dakigu zein norabide jarraituko duten teknologia berriek, dirua eboluzionatzen jarraituko duela oso litekeena da.

4. DIRU MOTAK

Behin diruaren historia ikusita, ohartu egin gara dirua ez duela beti egun ezagutzen ditugun txanpon eta billeteen itxura izan, baizik eta denboran zehar eraldatuz joan dela.

Jadanik badakigu dirua unibertsalki onartua den edozein gauza izan daitekeela, eta denboran zehar objektu ezberdinak erabili direla honen moduan.

Gaur egun ezagutzen diren diru motak hurrengoak dira (Chamizo, 2021):

- ❖ **Fiduziariora.** Konfidantzan oinarritzen da. Bere balorea ez dago txanpon eta billeteen materialaren balioarekin parekatuta, baizik eta instituzio monetario batek ezartzen du, esaterako, Europako Banku Zentrala (EBZ) edota Amerikako Estatu Batuetako erreserba federala. Ez du berezko (intrintseko) balorea, txanpon eta billete bezala ezagutzen ditugun paper edo objektuak dira, eta gobernuaren babesa dutenez, pertsonak ondasunak eta zerbitzuak erosteko onartua izango delaren konfidantza dute.
- ❖ **“FIAT” edo legala.** Dekretu bidezko diru bezala ere ezagutzen da, balio intrintsekoa duena. Estatu bakoitzak erabiltzen duen moneta bakoitzari egiten dio erreferentzia. Ekonomia batetik zirkulatzen duten Instituzio agintariak igorritako moneta eta billeteen multzoa da. Espainiako adibidea hartuz, Europar Batasuna osatzen duten estatua den aldetik, hau osatzen duten herrialdeek euroa moneta gisa hartu dute. Horrela, Europako Banku Zentrala da zenbat diru igorri eta zirkulatzen duen erabakitzeaz arduratzen den organismoa. Askotan, fiduziarioarekin nahasten da, baina ez dira sinonimo.
- ❖ **Banku-dirua.** Bankuek pertsoneri ematen dizkieten maileguak osatzen dute. Hiru multzotan sailkatu daiteke (Fortún, 2020):
 - Aurrezki gordailua. Pertsonak bankuan uzten duten dirua da, aurrezki-libreta derikotzenean erregistratuta gelditzen dena. Pertsonak diru hau erreserburakoa bezala ikusten dute, baina edozein momentutan eskuratu dezakete.
 - Ageriko gordailua. Kontu korronteko gordailua bezala ezagutzen da, edozein gastu, erosketa eta abarretarako momentuan eskura daitekeelako.

- Eperako gordailua. Denbora jakin batean ateratzeko konpromisoarekin pertsonak bankuetan egiten dituzten gordailuak dira. Aurrekoak ez bezala, diru hau ezin da nahi den momentuan atera; gordailugileak epea bukatu baino lehenago dirua eskuratu nahi baldin badu, penalizazio bat jasoko du.
- ❖ **Merkantziatzkoa.** Berezko balioa duten ondasun edo objektuak dira. Moneta gisa erabiltzean kanbio-balioaz gain, berezko balioa dute. Ez da balio baten irudikapen arbitrarioa, baizik eta korrelazio zehatza dago balio errealaren eta testuinguru jakin batean adierazten duenaren artean. Honen adibide urrea, zilarra edota diamanteak bezalako harribitxiak ditugu.
- ❖ **Ordaindukoa.** Jaulkitzailearen eta onuradunaren arteko erlazioa baieztatzen duen kreditu-titulua da. Honen jaulkitzailea epe jakin batean diru kantitate bat ordainduko duenaren konpromisua hartzen du, onuradunak epe hori ailegatzean diru hori eskatzeko eskubidea izango duelarik.
- ❖ **Elektronikoa.** E-money, eskudiru elektronikoa, moneta elektronikoa, diru digitala edo moneta digitala izenez ere ezagutzen da. Elektronikoki igortzen da, ordenagailu-sare baten, Interneten eta digitalki biltegiatutako balore-sistemen bidez, edo moneta jakin baten ordainketa-bide digital baliokidea da.

Azkenik, izan duten arrakastagatik **kriptomonetak**⁴ aipatu behar dira, bitcoin-a izanik arrakasta handiena duena.

5. PHILOSOPHIE DES GELDES

5.1. Georg Simmel

Zein da diruaren filosofia? Gaia honen inguruan Georg Simmel-en *Philosophie des Geldes* (1900) (hemendik aurrera *Diruaren filosofia*) liburuak utzi zuen aztarna.

Georg Simmel (1858, Berlin - 1918, Frantzia) alemaniar filosofo eta soziologoa zen. Neokantismo erlatibistaren ordezkari izan zen, eta filosofia irakaslea baita ere. Kant-en “a priori” formalismoak zituen kontraesanak zuzendu nahi izan zituen, eta tipo moralak ondorioztatzen (*Einleitung in die Moralwissenschaft*, 1892) eta berreraikuntza historikoa determinatzen duten sentimenduak eta ideiak sailkatzen (*Die Probleme der Geschichtsphilosophie*, 1892) saiatu zen. Bestalde, Alemanian soziologia zientzia bilakatzearen bidean gogor lagundu zuen (*Soziologie*, 1908) eta metodologia soziologiko baten ildo nagusiak taxutu zituen. *Diruaren filosofia* liburuan autoritatearen eta obedientziaren arazoak jorratu zituen, eta ekonomia monetarista baten testuinguruan gizarte-harremanen espezializazio eta despertsonalizazioak diagnostikatu zituen (Fernández & Tamaro, 2004).

Diruaren filosofia 1900. urtean argitaratu zuen Simmel-ek, bere obrarik famatuena bilakatu zelarik.

Obra honetan hurrengoak azaltzen da:

Dirua kontu-unitate eta trukerako bide bezala baino gehiago ikusten du autoreak. Funtzio ekonomikoez gain, arrazionaltasunaren, kalkulagarritasunaren, inbertsonalitatearen espiritu modernoa sinbolizatzen eta gorpuzten du. Bere egidaren

⁴ Gure gizartean geroz eta pisu handiagoa duten bidetik, aurrerago landuko den gaia da, diruaren aurkako jarrera gisa.

pean, sentimenduei eta irudimenari lehentasuna ematen zien antzinako munduaren ikuspegiaren gainera nagusitu da. Gainera, diruak harreman sozialetan eta kulturaren duen eragina kontuan hartuta, hau aztertzen du, momentu berean ekonomia monetarioaren aspektu sozial, psikologiko eta filosofikoen analisia eginez. Diruak trukearekin, gizabanakoen nortasunarekin, emakumearen posizioarekin eta banakako askatasunarekin duen erlazioa aztertzen du baita ere.

Bestetik, ekonomia monetarioak lanaren banaketan, eta zehazki alienazio eta “gauza bihurtze” eta hiritar bizitzan dituen ondorien bere ikuspuntua mahaigaineratzen du (Simmel, d.g.).

5.2. *Philosophie des Geldes*

Atal honetan *Diruaren filosofia* (1900) liburuak jorratzen dituen lau aspektu jorratuko ditugu.

Esan bezala, Simmel-ek ez zuen diruaren teoria berri bat erakutsi nahi, baizik eta diruaren historiari abiatuz, ondorio psikologiko, soziologiko eta kulturalak aztertu nahi zituen. Helburu nagusia ekonomia monetarioak, bereziki XIX. mendekoa, gizaki eta gizartearengan, beren harreman eta instituzioengan, izan dituen eraginak aurkitzea zen. Dirua erdigunea bezala agertzen da, gako bezala, anbizio ekonomiko moderno gisa (Schmoller, 1901).

5.2.1. Dirua eta balioa

Simmel-ek ekonomiaren egitekorako beharrezkoa den balioaren jatorritik abiatzen da, non diruaren parte-hartzea beharrezkoa den. Ildo horretatik, dirua balioaren metaketa abstraktua bezala definitzen du, balio eta diruaren harremana ulertzea ahalbidetzen duena (Pérez Morales, 2016).

Historian zehar, balioari dagokionez teoria ezberdinak egon dira.

Definituz, balioaren teoria postulatu akademikoa da, eta ondasun edo zerbitzu baten balioa nola zehazten den azaltzen saiatzen da, hainbat aldagairen arabera, hala nola eskasia eta ekoizpen-kostua.. (Westreicher, 2020).

Beste hitzetan, merkantzien prezioa edo truke-balioa arrazoitzeko balio du; horrela, eta orain ikusiko dugun moduan, pentsamolde ekonomikoko eskolen ikuspuntuaren arabera, prezio edo balio hau aldatu egiten da.

Azpimarratzekoa da ekonomilari batzuk balioa estimatzeko orduan aldagai objektiboak garrantzitsuagoak ikusten dituztela, eta aldiz, beste batzuk aldagai subjektiboaren alde egiten dutela, hala nola, produktuak zein neurritaraino betetzen dituen kontsumitzailearen nahiak.

Guillermo Westreicher-en (2020) hitzetan, balio-teorikoen zenbait adibide hurrengoak lirateke:

- ❖ **Balio-lanaren teoria** (Teoría del valor-trabajo): salgai baten balioa hau ekoizten eta sortzen egin den ahaleginaren arabera finkatzen da. Horrela, geroz eta

ordu-pertsona gehiago behar diren hau ekoizteko, geroz eta altuagoa izango da honen prezioa. Honen barruan, honako aldaera hauek nabarmentzen dira:

- **Balioaren teoria ekonomia klasikoan:** Teoria honetan Adam Smith⁵ aipatu behar dugu, ekonomia modernoaren aitzindari bezala ezagutzen dena. Adam Smith-ek balioa epe luzera produkzio faktoreen arabera zela esaten zuen. Aldiz, epe motzean, eskariak finkatuko zuen hau. Horrela, David Ricardo-rentzat (ildo honetako beste ekonomilari bat eta Adam Smith-ekin batera pisua izan zuena ekonomia klasikoaren aldetik), balioa hau produzitzeko lan ahaleginaren eta urritasunaren arabera emango zen, zenbat eta urriago, hainbat eta balio handiagokoa izango zen salgaia.
- **Karl Marx-en balioaren teoria:** Marxismoaren ikuspuntutik, merkantzia baten balioa beharrezkoa den lan sozialaren arabera da. Hau da, sektorearen enpresek hau ekoizteko erabilitako batz besteko denboraren arabera kalkulatu da.
- ❖ **Balio subjektiboaren teoria:** Merkantzia baten balioa ez da bere ezaugarrien edo hau produzitzeko egin den ahaleginaren edo kostuaren arabera, baizik eta gizakiari bermatzen dion erabilgarritasunaren arabera da.

Balioaren teoria garrantzitsua da, azken batean, merkantzia baten prezioa edo hau nola baloratzen den ulertzea ahalbidetzen digu. Pentsatu ohi dugu soilik produkzioaren kostu edo faktoreak izaten direla kontuan, baina utilitate marjinala bezalako aldagaia ere kontuan izan behar da: kontsumitzaileari ondasunaren unitate bat gehiago kontsumitzeak dakarkion onura.

Gure gaira bueltatuz, Simmel-ek balio bezala ulertzen duen kontzeptua Menger⁶-en *Principles of economics* (1871) ondoren eta von Mises⁷-en *Theorie des Geldes und der Umlaufsmittel* (1912) aurretik kokatzen da, Menger-en ideiek Simmel-engan eragina izan zutelakoan eta aldi berean Simmel-enak von Mises-gan izanik.

2015an Leonidas Zelmanovitz (ekonomialaria, Liberty Fundeko hezkuntza programen senior fellow eta diruaren filosofian aditua) oso artikulua interesgarria idatzi zuen Simmel-en dirua eta baloreari buruzko pentsamenduak islatzen zituenak.

Artikulu horretan Simmel-entzat naturan objektuak ez zuten berezko **baliorik**, gizakiak ginen objektu hauek sailkatzen genituenak haien atributu propioengan independeteak ziren balioak emanaz. Baieztapen honekin argi utzi nahi zuen balioa subjektiboa zela, eta objektuak ezin zutela berezko baliorik izan.

Gizakiok irizpide psikologikoak erabiltzen ditugu hauek antolatzeke, eta horregatik filosofoak subjektibo bezala definitzen zituen: beren kalitatearen arabera (errealak edo irudizkoak) balio bat atxikitzen zaie. Gakoa da pertsonak pentsamendu eta nahi ezberdinak dituztela, eta ondasun batengan ebaluazioa egiterako garaian batentzat balio bat duen bitartean, beste batentzat baliorik ez izatea suertatu daiteke:

⁵ **Adam Smith** (1723-1790) eskoziar ekonomilari eta filosofoa izan zen, ekonomia klasikoaren eta ekonomia-irakaslearen adierazlerik handienetakotzat jotzen dena egun. Bere teorian historia, filosofia, garapen ekonomikoa, psikologia eta etika konbinatzen ditu (Sevilla Arias, 2015).

⁶ **Carl Menger** (1840-1921) Austriar jaio zen, eta Ekonomian ezagutzen den Austriar Eskolaren fundatzailea kontsideratzen da. Ekonomia neoklasikoan pisu handia izan zuen, eta "utilitate marginal" kontzeptuaren sortzailea izateagatik nabarmentzen da (López Cabia, 2021).

⁷ **Ludwig von Mises** (1881-1973) XX mendeko ekonomilari eta filosofoa zen, eta ekonomia buruzko zientzia deduktibo bat garatu eta integratu zuen, funtsezko axiomak oinarrituta: gizakiek nahita jarduten dute nahi dituzten helburuak lortzeko (Mises Institute, d.g.).

*“El rasgo característico del valor, según aparece en contraste con la realidad, es usualmente denominado su subjetividad, ya que un mismo objeto puede tener el mayor grado de valor para una persona y el menor para otra”*⁸ (Simmel, 2001, p. 62).

Gainera, Simmel-ek balioa gutizia ez zela azpimarratzen zuen (nahiz eta subjektiboa izan): ondasun baten balio ekonomikoa antzematea agente ekonomikoen balio subjektiboak objektiboak bihurtzea besterik ez da (Simmel, 2001, p. 65).

Filosofoak, bere aldetik, balio objektiboa horrela definitzen zuen: ondasunen trukean ematen den lehentasun pertsonalen egitea.

Baina, Erdi Aroko teorikoak ez zuen horrela definituko: Erdi Aroan, objektu eta prezio monetarioaren artean harreman zuzena zegoela suposatzen zen, hau da, ondasun bakoitzak berezko balioa izango zuen, eta horrek adierazpen justua aurki zezakeen eta aurkitu beharko luke (Simmel, 2001, p. 126.).

Simmel-entzat, balioa trukean sortzen zen, eta ez ondasun hauen balio intrintsekoan.

Horrela, objektu ekonomiko bat existitzearen bi ezaugarri izan behar zituen: **utilitatea** eta **eskasia**.

Horregatik, Simmel-ek ez zuen esan nahi balioaren subjektibitatea objektuarekiko independentea zela. Harentzat, ebaluazioa sentimendu bat zen, baina balioa ezin zen ebaluatzailearen deribatua izan, eta aldi berean ezin zen ebaluatutako objektuaren deribatua izan, bien arteko lotura izan behar zuen (Simmel, 2001, p. 68).

Hau ulertzeko berak jarritako adibidea hurrengoa zen:

Aintzinean, metal preziatuak erabiltzen ziren diru moduan, eta hauek aurretik aipatutako ezaugarriak zituzten truke moduan erabiltzeko. Trukean erabiltzeko bere balioaren osagai bat eskasia zen, baina ezin zen oso eskasa izan. Azken batean, minimo batetik gorako eskasia zen metal preziatuak diru moduan erabiltzeak ahalbidetzen zuena: hauen “atributu” monetarioa truke-bide gisa onartuak izatea zen, eta guztiok erabiltzeko modukoa izan zedin, gutxieneko kantitate bat egon behar zuen (Simmel, 2001, p.72).

Balio ekonomikoarekin jarraituz, Simmel-entzat trukeak objektiboki baliokideak diren prezioetan ematen dira, baina horrek ez du esan nahi salerosleen ebaluazio subjektiboak berdinak direnik.

Agente ekonomikoak ados daude prezio horrekin, baina beraien lehentasun marginalak subjektiboki zehazten dira eta hau ezin da desberdina izan:

“Ese énfasis se debe al hecho de que se deben pagar los objetos con la paciencia de la espera, por el esfuerzo de la búsqueda, por el empleo de la mano de obra, por la renuncia a otros bienes demandados ... En términos conceptuales, el precio coincide con el valor económicamente objetivo” (Simmel, 2001, p. 93).

Laburbilduz, balio ekonomikoa agenteen ebaluazio subjektiboa gehitzen duen irudikapen monetarioa izango litzateke. Balio ekonomikoa ez da objektuaren atributu bat, ebaluatzaileen sentimenduetatik kanpo dago, eta hauen jatorritik: **abstrakzio** bat litzateke (Simmel, 2001, p. 101).

⁸ Gaztelerazko zita guztiak gaztelerazko ediziotik zuzenean hartutakoak dira, Ramón García Cotarelo-k itzulitakoa.

Bestetik, filosofoak argibide bat garatu nahi du **diruaren balioaren egonkortasunari** dagokionez, eta intersubjektibitatean⁹ jartzen du begirada. Ez da bakarrik diruak balio objektiboa duela (diruarekin egiten ditugun transakzioetan ikusi dezakegun moduan), baizik eta balio hau egonkorra izan dela, XIX. aurretiko mendeari begira behintzat.

Baina, nola eman daiteke diruaren balioa egonkorra izatea? Simmel-ek ondasun bakoitzaren diruzko prezioak honek beste ondasunekiko duen trukagarritasun maila islatzen duela azaltzen du. Diruak ondasun bakoitzaren balio erlatiboa adierazten duen heinean, baliagarria bihurtzen da bi aspektutan, aurretik azaldu den moduan:

- ❖ Neurketa-sistema abstraktua (**kontu-unitatea**).
- ❖ **Trukerako bidea**.

Bi aspektu hauek bete daitezten, dirua beste edozein merkantziaren eremutik kanpo egon behar du:

“Con el objetivo de prestar estos servicios, que dependen de su posición fuera de todos los otros bienes, el dinero debe ser en sí mismo un valor concreto o específico; y al realizar estos servicios, se convierte en tal valor” (Simmel, 2001, p. 122).

Horrela, egonkortasuna trukean sortzen den utilitatea (erabilgarritasuna) dela medio lortzen da, honetan parte hartzen duten agente ekonomikoek truke-bide gisa diru-salgai jakin bat erabiltzea nahiago izan dutelako.

Atal hau laburbilduz, Simmel-entzat balioa emozio bat zen, maila subjektiboan bakarrik sentitu daitekeena. Baina agente ekonomikoek ondasun ezberdinei balio ekonomikoa atxikitzen dioten momentuan, maila subjektibo hau kontuan izaten dute. Unitate-kontu eta trukerako bide bezala erabiltzen den heinean, dirua neurgailua eta kanpoko ondasunekiko desira asetzeko bitartekoa da. Funtzio hauek betetzean, dirua, tresna bezala, posizio abstraktu batean jartzen du bere burua.

5.2.2. Dirua eta askatasuna

Simmel-ek bere liburuan jorratutako beste aspektu bat **diruaren eta askatasunaren** arteko lotura izan zen.

Filosofoak harreman sozialak diruak finkatzen zituela zioen, eta ez gizakiak.

Horrela, **askatasun indibidualak** gizakia bere baitan ixtea zekarren, eta diruaren bidez, bere nahiaren gauzatzea kalkulatzeko eta aurreikusteko gaitasuna (Bilbao, 2000).

Bestalde, **askatasuna** bere baitan horrela definitzen zuen: **betebeharren aldaketa**, hau da, aurreko presio baten desagertzea beste berri batengatik ordezkatzuz. Lehenengo betebehar horretatik askatzen garenean, asketat jotzen dugu geure burua.

Bi ikuspuntutik landu zituen aspektu hauek: historikoa eta filosofikoa (Pérez Morales, (2016a)).

Historikoari dagokionez, aurreko ideia garatu zen trantsizio historikotik abiatu zen:

⁹ **Intersubjektibotasunak** intersubjektiboaren izaera aipatzen du, bi pertsonaren edo gehiagoren arteko komunikazio afektibo edo intelektualean gertatzen denarekin lotzen den adjektiboa. Esan daiteke intersubjektibitatea espazio komun bat dela, non hainbat subjektuk elkarrekintza bat mantentzen duten. Leku sinboliko horrek elkar ulertzea ahalbidetzen du: hau da, gizabanakoek elkar ulertzea (Pérez Porto & Merino, 2018).

Simmel-ek hiru maila izango zituen piramide bat planteatzen zuen, non maila baxuenean esklaboak egongo ziren, ondoren basailuak jarraituko ziotelarik eta dirua egongo zelarik maila altuenean, egungo modernitatea.

Lehenengo maila honetan, **esklaboak** jaunen menpe egongo ziren. Beren bizitza jaunen nahien araberakoa izango zen, haientzat bizi ziren, eta ez zuten izango inolako askatasunik.

Bigarren maila batean **basailuak** egongo ziren, eta bere lana jaun feudalak determinatuko zuen. Trukea emango zen: feudalak lursail bat emango zion basailuari, eta honek bertan ekoizten zuenaren kantitate bat emango zion ordainketa moduan, bestea bere familia elikatzeko eta onura propiorako erabiltzen zuen bitartean. Esklabuen aldean, basailuak askatasun gehiago izango zuten; azken batean, beharrezko ordainketa egiten zuten bitartean, askatasuna zuten bere lana nahi zuten moduan burutzeko.

Bukatzeko, maila altuenean egungo egoera egongo zen: **dirua** truke moduan. Diru-paperak gauzetan ordaintzekoa eta betebeharrak pertsonala ordezkatzeko zituen, horrela ondasunetatik bereiztuz. Gizakiaren askatasuna diruarekin lotuta dago: jaunak esklaboarekiko eskubidea galtzen duenetik, diru papera erabiltzen hasten deneraino: **askatasun pertsonal gehiago** emango zen.

Hau dena jabetza aldaketa baten egoeran ematen da: nekazari berria eta merkataria (burgesa) aske da bere laborantza nahi duen moduan burutzeko, diru-paperean jasotzen duelako etekina.

Testuinguru honetan, demokrazia eta eskubidea agertzen dira. Dirua bezala, aipatutako piramidearean lehenengo eta bigarren mailen desagerpenean laguntzen dute, gizakien arteko harremanak aldatzen dituztelako.

Erdi Aroko eta modernitatearen arteko trantsizioa garrantzitsua da. Azken batean, prozesu politiko, ideologiko, ekonomiko eta sozialak eman direla medio, egun bizi garen sozietatea sortzea ahalbidetu duten ideia berriak sortu direlako (hauen artean askatasuna).

Ikuspuntu filosofikoaren aldetik, Simmel-ek truke, nortasunaren eta jabetzaren ideiak barneratzen ditu.

Hark animaliangandik bereizten gaituena objektibismoa dela dio. Balioa, objektibismo honen barruan dago, eta aldi berean, hemen trukeak hartzen du indarra, ebaluazio objektiboa inplikatzeko delako.

Gizakiak trukatzeko, tresnak sortzen eta helburuak finkatzen dituenaren ildotik, eta ondorioz handinahikeria duenez, animalia politikoa da.

Baina hau sentimendu eta borondate subjektibotik haratago doa, gizakiak bere prozesu kulturean eduki hauek era transindibidualean¹⁰ objektibizatzen dituelako. Ondorioz, balioak itxura objektiboa hartzen dute elkarrekiko onarpenaren bidez.

Horrela, ondasunen trukea hirugarren mailan ematen da, non eskubide eta eginbeharren banaketa berri bat ematen den justizia eta banakako askatasunaren ideia modernoak barneratuz. Hemen dirua agertuko litzateke, bere zatigarritasun eta aprobetxagarritasunarekin. Azken batean, bere ezaugarriei esker, beste ondasun edo zerbitzuekin trukatzeko aukera ematen du, eta honek pertsona bakoitzari behar duena

¹⁰ **Transindibidualtzat** ulertzen da: ez gizabanako bakoitzean dagoena (forma edo substantzia moduan), edo hau kanpoaldetik sailkatzeko erabiltzen dena, baizik eta beren elkarrekintzen ondorioz, gizabanakoen artean existitzen dena (Balibar, 2006).

eskuratzeko ahalmena ematen dio. Horregatik, trukea aldebakarreko onura bezala definitzen du autoreak, eta bere forma soziala diruan gorputzen da.

Simmel-ek ekonomia monetarioaren kontzeptua barneratzen du baita ere. Bere hitzetan, ekonomia monetarioak askatasun indibiduala ahalbidetzen du, baina, aldi berean, askatasun hau mugatzen duten menpekotasun harremanak sortzen dira, eta horrek gizakiaren nortasuna desagertzea eragiten du; azken batean, hornitzaileak¹¹ lan bat burutzen du, eta bere gainontzeko ezaugarriak bigarren maila batean gelditzen dira isolatuta.

Azken finean, lanaren banaketak menpekotasuna handitzen du, eta nortasunak desagertzen diren bitartean, gizakiak egiten dituen funtzioek hartzen dute indarra. Ondorioz, merkatu ekonomia batean bizi den gizakiak hornitzaile askoren menpeko bihurtzen da.

Laburbilduz, ekonomia garatzen doan heinean, gizakien arteko menpekotasuna handitzen doa, askatasuna barneratzen duen gizaki honen ezaugarri pertsonalak ezabatzean indartuz joaten dena. Testuinguru honetan, dirua agertzen da bitarteko bezala, harremanak sortzen dituelako gizakien artean, baina aldi berean gizakiak harreman hauetatik kanpo uzten dituelarik (prestazio objektiboen sinonimoa).

Atal hau ixteko, askatasunaren historia eta honek diruaren arteko erlazioa hobeto ulertzeko adibide bat jartzen du Simmel-ek:

Aurreko garaietan, gizakiak trukea burutzeko harremana izan behar zuen beste pertsona batekin, hau da; baratze bat duen pertsona batengana barazkien bila hurbiltzen naizenean, nik pertsona horrekin harremana ez baldin badut, seguruenik ez dizkit hauek beste ondasun batzuentzat trukatu. Ez naiz aske, mendekoa baizik.

Egun, hau ez da horrela gertatzen. Nik denda batera hurbiltzen naizenean eta dirua erabiliz ondasun bat eskuratzen dudanean, ez dut saltzailea ezagutzeko obligazioa, baizik eta axolagabetasuna sartzen da jokoan, eta trukea burutzeko askatasuna daukagu.

Konparazio honetan, independentzia ez du esan nahi menpekotasunik ez dagoela. Antzinari begira, independenteagoak gara, baina trukeak, eta askatasun indibidualaren ideaiara eraman gaituen guztiak menpekotasuna ekarri dute. Eskuinaren irudikapenean ezkerren ideia desagertu ezin den bezala, menpekotasuna ez da desagertzen independentziaren irudikapenean. Horrela, zentzu sozial batean, askatasuna (ez askatasuna bezala) gizakien arteko harremana da.

5.2.3. Balio pertsonalak

Simmel-ek jorratutako beste bi gaia **dirua eta balio pertsonalak** izan ziren (Pérez Morales, 2016c).

Filosofoaren hitzetan, gizakiak historian zehar bere gorputzarekiko trukean erabilgarria zen unitate ekonomikoa sortu zuen. Harreman hau gorputzarekiko edo gizakiaren beste edozein ezaugarriarekiko balio monetarioa ezarriko zuen, baina kontuan izan behar dugu objektu eta balioaren arteko harremanak aldaketak jasan dituela denboran zehar.

Esan beharra dago aurretiko kulturetan gizakiak modu sozialean bere gorputzari balio ekonomikoa ezarri ziola, eta hau kultura bakoitzaren irudikapen judizialean duela

¹¹ Testuinguru honetan **hornitzaile** hitza trukean parte hartzen duten alde bati egiten dio erreferentzia; zehazki ondasun edo zerbitzu bat eskaintzen diona beste aldeari.

oinarri, adibidez, diru kantitate handi bat ordaintzen zitzaiolako hilketa bat burutzen zuen pertsona bat edo gehiagori. Beraz, gorputzak esanahi sinboliko, kultural eta funtzionala duen neurrian, balio bat izendatzen zaio unitate monetarioarako neurri gisa.

Horrela, gizakiaren bizi-balio desberdinak determinazio ekonomiko objektibo batekin izendatzen direla identifikatzen da, adibidez, subjektuaren balioa planteatzen da eta balio hori harentzat definitzen da, baina harengandik independentea da; hau da, subjektuak ez du bere balioa zehazten, baizik eta ekintza edo ordezkari-tza juridiko batean testuinguru soziokultural berak izendatzen du balio ekonomikoa. Bizi-balioetan oinarritutako zehaztapen ekonomikoaren beste adibide bat pertsonen Estatuari ordaindu beharreko zergen balioa da. Diru-esleipen hori soldataren ordainketaren arabera da.

Aurretik aipatu bezala, gizakiaren bizi balioei esleitutako prezioak kulturen arabera dira, kultura bakoitzean gizakiaren gorputzak adierazten duenaren baitan. Adibide bezala esklabotza, ordainaraztea, isunak, ezkontza eta prostituzioa agertzen dira. Adibide hauetako bakoitzak gizarte eta kultura bakoitzak bizitza sozialean ordezkatzeko duen zentzu soziokulturalaren arabera definitzen dituen balio-unitateen berri ematen du.

Gainera, balio pertsonalen balio ekonomikoa ez da estatikoa, baizik eta mendebaldar munduan emandako eraldaketa kulturalak eragina izan dute unitate ekonomikoak ezartzerako garaian. Erligio katolikoa izan zen horietako bat, arima gizakiaren azken helburua dela proposatzen duena, gizakiaren gorputzaren balioari garrantzia kenduz.

Simmel-entzat kulturak ekonomiaren definizioarako mekanismo berriak gehituz joaten da, eta horrek bizi-baldintzak lortzeko aukera areagotzen du; esaterako, esklabotzaren inguruko gorputzaren balioa alde batera uzten duten “Giza Eskubideak”, berdintasunaren ideia planteatzeko. Hazkunde hori bizitzeko behar diren objektuak eskuratzeko kulturetan sortzen diren metodoen aniztasunagatik gertatzen da; izan ere, metodo horietan ordainketa ez da gorputzagatik, baizik eta pertsonen ezaugarriengatik eta erabilgarritasunagatik, baina pertsonaren balioan irudikatutako ordainketa izaten jarraitzen du. Simmel-en hitzetan:

“Lo que distingue a toda cultura elevada a otra inferior es tanto la multiplicidad como la longitud de los órdenes teleológicos. Las necesidades del hombre salvaje son escasas y, cuando resultan satisfechas, ello se da a través de una cadena de medios relativamente corta. El incremento de la cultura no solamente hace aumentar los deseos y aspiraciones de los seres humanos, sino que aumenta, también, la cantidad de los medios para cada uno de esos fines y a menudo exige, para cada medio aislado, un mecanismo escalonado de precondiciones entremezcladas”¹².

Laburbilduz, balio pertsonalak kantitate-monetario baliokideen terminoetan kuantifikatu daitezke. Honen adibide bat “*wergeld*”¹³ litzateke, familia bati ordaindu behar zaion balio monetarioa honen kide bat hiltzen bada. *Wergeld* balio pertsonalen adierazgarri garrantzitsua izan zen, kasu honetan galdutako bizitzarena, hildakoak familiari emango zion diru-sarreraren fluxuaren konpentsazioaren ordez («La filosofía del dinero», 2022).

Halaber, balio pertsonalak ere erosketa bidezko ezkontzaren eta prostituzioaren arabera ere kuantifikatzen dira:

¹² Gaztelarazko zita guztiak gaztelarazko ediziotik zuzenean hartutakoak dira, Ramón García Cotarelo-k itzultakoa.

¹³ “*Wergeld*” konpentsazio-modu bat izan zen, normalean giza hilketaren edo legez kanpoko beste heriotza mota baten errudun den pertsona bati eskatutako ordainketa bezala. Hitza “*were*” “gizon” eta “*geld*” “ordainketa” esan nahi duten hitzez dago osaturik, “gizon baten prezioa” esan nahi duena («Wergeld», 2020).

- ❖ **Erosketa bidezko ezkontza.** Emakumeak edukitza-objektu onuragarriak direnez eta hauek lortzeko sakrifizioak egiten direnez, balio handiko gauzatzat hartzen dira.
- ❖ **Prostituzioa.** Emakumearen jabetza pertsonala eta erreserbatuena murrizten du, eta balio neutralena, hots, pertsonatik urrunen dagoena, emakumearen baliokide egokitzat hartzen da.
- ❖ ...

Atal hau laburtzearen, fenomeno guzti hauek balio pertsonalen salmenta adierazten dute, “izatea” “edukitzeagatik” trukatzea (Boehmler, d.g.).

Hala ere, dirua berez suntsikorra den bitartean, joera historikoa bereizketa indibidualen kontzientzia handiago baterantz joan da. Ondorioz, dirua pixkanaka balio pertsonalen baliokide desegokitzat jo da, eta praktika horietako gehienak erabilerarik gabe geratu dira.

5.2.4. Bizimodua

Balioak termino monetarioetan kuantifikatu daitezkeen ildotik, gizakiok objektuekin dauzkagun harremanak sentikorak izatetik intelektualagoak izatera pasa dira.

Georg Simmel-ek kulturak hiriko bizimoduan zuen eragina landu zuen. Bi kultura bereizten zituen: objektiboa eta subjektiboa (González & Barraza, 2020):

Kultura objektiboari dagokionez, gizakiak produzitzen dituen objektuak bezala definitzen zuen, hau da, gizakien kultura produkzioak; hala nola, artea, zinema, musika, filosofia, erlijioa...

Kultura subjektiboari dagokionez, pertsonen barrualdeaz deritzo, geure burua lantzeaz. Bilatzen dena nortasunaren garapena, gizakiaren perfekzionismoa (ahal den heinean) da.

Simmel-ek kultura aktibitate **teleologikoa**¹⁴ bezala ikusten zuen (helburu baten arabera). Kasu honetan helburu hori gizakiaren perfekzionismoa zen. Horretarako, kultura subjektibo eta objektiboak elkarri lotuta egon behar zuten: bien arteko harmonia ematen bada, dena ondo dago.

Noiz dator arazoa? Bereizketa ematen denean. Simmel-en hitzetan, hau garai modernotik aurrera gertatu zen: **modernismoan**.

Kultura objektiboa hazten doan heinean, kultura subjektiboa txikiagotu egiten da: objektuak geroz eta garatuagoak dira, baina subjektuak ez, eta horren ondorioz gizakiok ezin ditugu gaur egungo objektuak bereganatu, asimilatu (teknologia berriak..).

Objektuek garapen eta autonomia gehiago izango zuten, eta horrek gizakiak objektuekiko duen mendekotasuna ekarriko luke; inbasio objektiboa. Subjektuak menderatuak sentituko dira, arraro.

Autoreak egoera hau **Marx**¹⁵-en “alienazio” kontzeptuarekin lotzen du (Barraza, 2020).

¹⁴ Errealitatearen, bizitzaren edo izakien azken zentzuan ikertzearen nolakotasuna adierazten duen adjektibo bat da. Teleologia hitza Grezierazko *teles* “amaiera” eta *logos* “ikasketa, azterketa” hitzetan du eratorria (Significado de Teleológico, 2019).

¹⁵ (Treveris, Prusia mendebalde, 1818 - Londres, 1883) Pentsadore sozialista eta ekintzaile iraultzaile alemaniarra. Filosofo baten lanak oso gutxitan izan ditu **Karl Marx**-ena bezalako ondorio historiko zabal eta ukigarriak: 1917ko Errusiako Iraultzatik hasi eta 1989an Berlingo harresia erori zen arte, gizateriaren

Marx-ek langile-klasea sistema kapitalistan alienatua sentitzen zela ziurtatzen zuen “**langilea bere baitan lanetik kanpo sentitzen da, eta lanean bere onetik aterata**”. Horrek langileriarentzat frustrazioa zekarren, azken batean, hark produzitzen zuena kapitalisten eskuetan bukatzen zuen; ez zuen berak lehenago ekoiztu zuen produktua ezagutzen, eta horrek ekoizkina etsai moduan ikustea zekarren.

Horrela, Simmel-ek **lanaren banaketaren** ondoria alienazioa zela esaten zuen. Banaketak gizakiaren degradazioa zekarren, produkzio katearen zati bat gehiago bezala ikusten zuelako bere burua. Adibide bat jartzearren: lehen, artisau batek produktu baten ekoizpen osoa berak bakarrik egin zezakeen. Egun, produktuak geroz eta konplexuagoak eta garatuagoak diren heinean, hau ez da posible, eta makineriaz aparte, langile askoren beharra daukate. Hau Charles Chaplin-en *Modern Times* (1936) filmean oso argi islatzen da.

Lanean aparte, alienazio edo gauza bihurtze hau **ekonomia monetarioan** baita ere ematen zela zioen Simmel-ek. Diruan oinarritzen den gizarte batean, gizakiak merkantzia bat gehiago besterik ez dira. Pertsonak eta gauzak ez dira bere ezaugarri edo gaitasunen arabera kontuan hartzen, beraz, kuantitatean oinarritzen den sozietate batean ginateteke.

Balore kualitatiboak alde batera uzten diren bitartean, kuantitatiboak nagusitzen dira: gizakia gauza kuantifikable batean bihurtzen da, kalkulorako elementu batean gehiago¹⁶. Hau **Marx**-en “merkantziaren fetitxismo” kontzeptuarekin ere erlazionatu daiteke. Gauzak bizitza propioa eskuratzen dute, autonomia, ezaugarri subjektiboak, gizakiak balira bezala. Langileria, aldiz, esplotatuak eta alienizatuak diren bitartean, ezaugarri objektiboak bereganatzen dituzte: gauza eta merkantzia bilakatzen dira.

Aurretik aipatutako hiriko bizitzarekin jarraituz, Simmel-ek zioen modernitatean hasten zela kulturaren eztabaida. Aro modernoan, hirien hazkundera ematen da baita ere: hiri handiak, gainpopulatuak, objektuz eta merkantziak beteak. Horrela, hiria kultura objektiboaren eta subjektiboaren “borroka-eremu” bihurtzen da, eta horretan agerian geratzen da objektuak subjektuen gaintik nagusitzen direla.

Bizitzeko era hirietan gogorra da, urduritasunaren areagotzea ematen da: trafikoa, argi ugariak, soinu bortizak, askotariko kontsumo produktuen ugaritasuna.. direla medio, ez da lasaitasuna bermatzen. Horren ondorioa bertako biztanleria bizitza estresagarria eramatea da. Hirietan bizitzen den jendearen ezaugarri nagusia “gizabanako isolatu” izango litzateke.

Oso nabaria den adibide bat egunero bizitzen dugun egoera bat da: eraikin berean bizi arren, gutako askok ez ditugu gure bizilagunak ezagutzen.

Beraz, hiritarra horrela definitzen zuen Simmel-ek: axolagabe, gogogabe, bihozgabe, berekoia, indibidualista.

Oso afektiboa ez den bizimodu honen arrazoia, bizi estilo arrazionala daramatzatela da. Horrekin ez da esan nahi gizaki hau ez dela argia, baizik eta landan, herrixka eta auzoetan gizarte-loturak afektiboagoak direla. Azken batean, hiritarrak arrazoia

erdia bere pentsamenduaren oinordekotzat jo ziren erregimen politikoaren pean bizi izan zen (Fernandéz & Tamaro, (2004c)).

¹⁶ Bitxikeri bezala, **Georg Lukács** (1885-1971), Simmel-en jarraitzaile zena, merkantziaren eta gauza bihurtze-aren azterketan murgildu zen. Filosofo eta politikari hungariarra zen. Pentsalari marxista bikainenetako bat izan zen, eta bizitza politiko aktiboa izan zuen (Fernandéz & Tamaro, (2004a)).

erabiltzen dute babes moduan “escudo contra la violación de la gran ciudad” (Simmel, 2016, p. 61).

Hau, lehen aipaturiko **ekonomia monetarioarekin** lotzen da: gudan pentsamolde arrazionala, hotza, objektiboa, kalkulatuzailea eta kuantifikagarria izatea eskatzen du. Hirietan ematen da hau, non kultura objektiboa kultura subjektiboarengan nagusitasuna duen. Horrek kultura subjektiboa urritzen du, gizakia degradatuz, eta geroz eta erresistentzia txikiagoa egitera bideratzen du.

6. DAVID ROLFE GRAEBER : ANTROPOLOGIA ANARKISTA

6.1. David Rolfe Graeber

David Rolfe Graeber (1961, New York - 2020, Venezia) estatubatuar aktibista eta antropologoa izan zen.

London School of Economics-en antropologia irakaslea izan zen eta *Debt: The First 5000 Years* liburua idatzi zuen, 2011an argitaratu zena. Hark idatzitako beste obra esanguratsuen artean *The Utopia of Rules* 2015an eta *Bullshit Jobs: A Theory* 2018an argitaratutakoak aurkitzen dira.

Hasiera batean Yale-eko unibertsitatean izan zen irakaslea, eta bere kaleratzea eztabaidarako gai bihurtu zen bere posizio politikoa arrazoi pisutsua bilakatuz. Horrela, aktibismo politiko eta sozialeko historia bat izan zuen, New York-eko *World Economic Forum*¹⁷ean protestetan gogor jo zuelarik. Sindikal erakundea zen *Industrial Workers of the World*¹⁸eko kide izan zen, eta baita ere *Occupy Wall Street*¹⁹eko buru.

6.2. *Debt: The First 5000 Years*

Zorraren aurrean dagoen jarrera aldebikoa aztertuz, betebehar edo bekatu gisa alde batetik, hazkunde ekonomikoaren motor gisa eta zapalkuntza-tresna gisa bestetik, liburu honetan Graeber-ek diruaren sortzearen eta merkatuen historia azaltzen du. Liburuak

¹⁷ **Munduko Ekonomia Foroa** (FEM), Davoseko Foroa ere deitua, Colognyn egoitza duen nazioarteko gobernu kanpoko erakunde bat da, urtero Davosen (Suitza) biltzen dena, eta, batez ere, herri horretan urtero egiten duen biltzarrengatik ezagutzen dena. Bertan biltzen dira enpresa-buru nagusiak, nazioarteko buruzagi politikoak, kazetari eta intelektual hautatuak, munduak dituen arazo premia-koenak aztertzeko, horien artean, 1971 urtetik aurrera osasuna eta ingurumena («Foro Económico Mundial», 2022).

¹⁸ Sindikatua sindikalismo iraultzailearen (lan-demokrazia eta langileen autogestioa) jarraitzailea da, eta Estatu Batuetan du jatorria, nahiz eta beste herrialde batzuetan ere badagoen. Bere afiliatuak historikoki wobblie bezala izendatu dira. Bere jatorrizko ezaugarria, sortu zeneko garaierako, industria sindikatuetan oinarritutako egitura organikoa izan zen, eta hortik datorkio izena («Industrial Workers of the World», 2022).

¹⁹ **Occupy Wall Street** 2011ko irailaren 17tik Lower Manhattaneko Zuccotti Parkean (New York Hiria, AEB) okupatuta eduki duen 15-O Mugimenduaren protesta-ekintzaren adar bat izan zen. Manifestazioen eta kontzentrazioen helburua Wall Street - New Yorkeko finantza-barrutia - etengabe okupatzea da, zikoizkeria korporatiboaren eta desberdintasun sozialaren pertzepzioaren aurkako protesta agerian eta argi uzteko («Occupy Wall Street», 2022).

nola historian zehar zorra Estatuak beren menpekoak kontrolatzeko eta baliabideak ateratzeko (normalean gerrak finantzatzeko) erabilgarria izan den mahaigaineratzen du.

David Graeber-en hitzetan, liburua idaztera bultzatu ziona abokatu batekin izandako elkarrizketa bat izan zen, non neskak, Graeber-ek zorren barkatzeari buruz hitz egiten zuen bitartean, hauek ordaindu behar zirela baieztatzen zuen. Hortik aurrera, Graeber-ek norbaitek dirua eskatzen duenean guztia itzuli behar duenaren sinesmen orokorrari buruz hausnartzen du, kontuan izan gabe diruak prestatzen duena baita ere arrisku bat jasan behar duela, horrela izango ez balitz, edonori prestatuko diolako dirua.

Bestalde, hiru aspektu mahaigaineratzen zituen (David Graeber, *DEBT The First 5,000 Years*, 2013):

1. Nazio modernoak defizit finantzarioarekin funtzionatzen dute.
2. Kontsumo ekonomiak zorraren gain funtzionatzen dute.
3. Nazioarteko harremanak zorpetzean oinarritzen dira.

Asko dira Graeber-ek liburuan landutako aspektuak, baina atal honetan, eta gure gaiari dagokionez, idea esanguratsuenak aipatuko dira bakarrik.

Hurrengo puntuen informazioa Dublinen (Irlanda) bizi den Philip Pilkington izeneko kazetari eta idazlea 2011an David Graeber-i egindako elkarrizketa batean eta *Debt: The First 5000 Years* liburuan oinarritzen da.

6.2.1. Trukearen ideia

David Graeber-ek argi utzi nahi du betidanik entzundako diruaren historia mito bat besterik ez dela.

Teoria honen arabera, eta lehen aipatu bezala, transakzio guztiak trukearen bidez ematen ziren. Baina honen arazo nagusia adosgarritasuna zen: baliteke aldamenekoak zuk duzuna gustokoa ez izatea eta alderantziz. Beraz, dirua sortzeko beharra zegoen.

Istoria Adam Smith-en du jatorri, eta ekonomiaren sorrerako mitoa da. Baina honen aurka Graeber agertzen da. Bere hitzetan, leku batzuetan eguneroko transakzioek itxura hau hartuko balute: "hogeitazko emango nizkizuke behi horrengatik", bat edo bi aurkituko genituzkeen oraindik (Smith, 2011).

Hau horrela izango balitz, hurrengo planteatzen da: funtsean, nekazari neolitiko talde batek herri batean nonbait, edo amerikar natiboek edo dena delakoek, eskudiruzko merkataritzaren bidez bakarrik egingo dituzte transakzioak. Beraz, ondokoak bilatzen dena ez badu, ez da ezer gertatzen.

Orduan, benetako galdera ez da trukeak nola sortzen duen truke-bide bat, gero diru bihurtzen dena, baizik eta nola bihurtzen den "bat zor dizut" zentzu zabal hori neurketa-sistema zehatz bat, hau da, dirua kontu-unitate gisa?

Graeber-ek Antzinako Mesopotamian jartzen du begirada, k.a. 3200. urtean. Bertan, kontu-diru sistema landua eta kreditu-sistema konplexuak daude, eta dirua truke moduan edo urre, zilar edo brontzean estandarizatutako unitate zirkulatzaile moduan aurrerago iritsiko litzateke.

Beraz, betidanik entzun dugun historia (trukea, dirua, kreditua) agerian uzten du Graeber-ek, eta alderantziz dela baieztatzen du. Kreditua eta zorra doaz lehenengo, eta txanpongintza mila urte geroago agertuko litzateke. Ondoren, "behi horrengatik hogeitazko"

oilasko” motako truke sistemak aurkitzen dira (eskudiru-merkatuak daudenean izaten da ohikoa hauen agerpena), baina zenbait arrazoiengatik - Errusian 1998an adibidez - moneta eraitsi edo desagertu egiten da.

6.2.2. Harremanak truke moduan

Harremanak truke moduan pentsatzen ditugunean hurrengoa islatzen da: bi kide daude non elkarrekikotasunean oinarrituz, batak besteari baliokide den zerbait ematen dioten, momentuan, edo denboran aurrera. Transakzioa burutzen bada, harremana bukatzen da. Aldiz, transakzioa ez baldin bada burutzen, zorra dago.

Horrela, harremana trukea burutzen denera arte irauten du. Errua batena da zorra ez duelako ordaindu. Zorra soziabilitatearen euskarria da. Beraz, bi pertsonen arteko harremana norbaitek zerbait gaizki egiten duenean ematen da: bizitzari buruzko filosofia komertziala litzateke.

Adibide bezala, Graeber-ek Laura Bohannan²⁰-ek Nigerian kokatzen den Tiv-eko herrixkarekin izandako esperientzia kontatzen du. Laura ethez aldatzen da, eta herrixkakoek opariak eramaten dizkiote. Batek zera esaten dio: hauek opariak dira, baina zuk balio ezberdineko zerbait oparitu behar diezu bueltan, balio hori handiagoa edo txikiagoa izanik. Balio berekoa izango balitz, beste pertsonarekin harremanik ez duzula nahi bezala ulertuko litzateke.

Historian zehar, komunitateek “auzokide on bat” izatearen filosofiarekin funtzionatu dute; batak besteari zerbait zor dio, eta horrela soziabilitatea mantentzen da.

6.2.3. Zorra, kontzeptu morala edo ekonomikoa?

Zorraren kontzeptuari dagokionez, David Graeber-ek horrela planteatzen du historia: azkenean, egiptoar ikuspegia (zergak) eta mesopotamiarra (lukurreria) batu egiten dira, jendeak mailegua eskatu behar du bere zergak ordaintzeko eta zorra instituzionalizatu egiten da.

Zergak eskudiruarekin funtzionatzen duten lehenengo merkatuen sorkuntzan dira giltzarri, azken batean, moneten sorkuntza edo zabaltzea soldaduei ordaintzeko eman zen Txina, Indian eta mediterraneoan aldi berean, non gobernuzko soldaduak hornitzeko modu errezena urre edo zilarrezko moneten jaulkipena zen. Ondoren, erreinuko gainontzekoei moneta horietako bat itzultzea exijitzen zitzairen. Horrela, moralaren eta zorraren hizkuntzak bat egiten hasten dira.

Erljio ezberdinen kontzeptua ere aipatzen du, non zor, erru eta pekatu hitzak sinonimotzat hartzen dituzten. Erljio-mugimendu handien hizkuntzaren zati handi bat - kontzientziazio, berrerospena, kontabilitate karmikoa eta antzekoak - antzinako finantzen hizkuntzatik atera da. Baina guztiz bestelako zerbaitetarako egin zuten: zorrak sakratuak ez direla eta zorraren barkamena, zorra deuseztatzeko gaitasuna edo zorrak errealak ez direla jabetzeko gaitasuna benetan sakratuak direla esateko modu gisa.

Baina, nola gertatu da hau? Diruaren jatorriari buruzko galdera nagusia hurrengoa dela adierazten du Graeber-ek: nola aldatzen da betebeharren zentzua, “zerbait zor dizut”,

²⁰ **Laura Bohannan** (1922-2002) antropologa, irakasle eta afrikar estatubatuar emakumea izan zen, mendebalder Afrikako tiv-ei buruz egindako ikerketengatik ezaguna zena («Laura Bohannan», 2021).

zehaztasunez kuantifikablea den zerbaitean? Erantzuna hurrengoa litzateke: egoera bortitz bihurtzeko potentziala dagoenean. Gerta liteke norbaiti txerri bat ematen diozula eta hark zenbait oilasko ematea bueltan. Egoera honetan zuk xuhurra dela pentsa dezakezu, baina guztiz zaila da xuhurtasun maila formula matematiko batekin neurtzea; beraz, arazoa (gerra, borroka) dago.

Horrela, dirua baliokide zehatz baten zentzuan, horrelako egoeretatik sortzen dela dirudi, baina baita gerra eta arpilatzetik, harrapakinen kontroletik eta eskablutzatik ere.

Behin zorrak eta dirua gerrarekin hasten direla ulertzen denean, errazagoa da ulertzea zer gertatu den. Edozein mafiosok ulertzen du hau: indarkeriazko estortsio-harreman bat hartu nahi bada, botere hutsekoa, eta biktimek errua dutela erakutsi nahi bada, harreman hau zorpetze-harreman bihurtu behar da.

Baina gakoa hurrengoa da: nola dakigu nork zor dion zeini?

Diruaren eta indarkeriaren asoziazioa konstante bat da, eta zorrak indar morala nola hartzen duen azaltzen laguntzen du.

6.2.4. Egungo arazoak perspektiba historikotik abiatuz

Mendebaldar hirietan azken urteotan emandako zorren handitzea eman dela medio (kreditu-txartelen eta hipoteken ondorioz), Graeber-ek hausnarketa zabala egiten du; azken batean azkeneko bi arrazoi hauek izan dira orain dela gutxiko krisi finantzarioaren kausa.

Graeber-entzat, atzera egin dugu denboran. Diru birtuala menperatzaile izan den periodo guztietan zorpetuak babes soziala izan du. Behin dirua eraikitze soziala izan dela, kreditua dela, antzematen denean, zergatik eragotzi behar mugarik gabe sortzea? Eta nola saihets daiteke pobreak zorrez murriztuz erortzea eta aberatsen esklabo bihurtzea? Honen aurrean, Mesopotamiako borroia eta kontu berria (borrón y cuenta nueva), Bibliako erretiroak, eta islamean eta kristautasunean lukurreriaren aurkako Erdi Aroko legeak dute erantzuna.

Baina, zer gertatu da orain? Zorpetuak babesteko erakundeak sortu beharrean, hartzekodunak babesteko NDF²¹ (Nazioarteko Diru Funtsa) edo *rating*²² agentziak sortu dira. Agentzia hauek (logika ekonomikoaren aurka) zorpetutako inor ezin dela ordainketa-etenduran deklaratu aitortzen dute. Honen aurrean, Graeber-ek antzinakoak gehien beldurtzen zituenaren antzeko zerbait sentitzen ari garela ziurtatzen du, zorpetuen populazioa hondamendiaren ertzean paseatzen.

²¹ **Nazioarteko Diru Funtsaren** helburu nagusia nazioarteko diru-sistemaren egonkortasuna bermatzea da, hau da, nazioarteko ordainketa-sistema eta truke-tasak, herrialdeei eta beren herritarrei elkarri transakzioak egiteko aukera ematen diena (*El Grupo Banco Mundial y el Fondo Monetario Internacional (FMI)*, d.g.).

²² **Rating agentziak** (ospetsuenak eta eragingarrienak Moody 's, Standard & Poor' s, eta Fitch dira) merkatuan sartu nahi dituzten tituluak jaulkitzen dituzten Estatu, eskualde, udaletxe eta enpresen sendotasun finantzarioa ebaluatzen duten erakundeak dira (*¿Qué es una agencia de rating?*, d.g.).

6.3. *Fragments of an Anarchist Anthropology*

Marxismoarekin alderatuz, anarkismoak presentzia oso txikia izan du esparru akademikoan. Zergatik? Anarkismoak bere aldetik, alde praktikoan oinarritu delako alde teorikoa baztertuz. Horrela, anarkismoari beti leporatu izan zaio sendotasun teorikorik eza.

Honen aurrean David Graeber-ek erantzuten du: Teoria Handi bat baino gehiago, anarkismoari falta zaiona oinarri teoriko bat dela esan genezake: eraldaketa-proiektu orotatik sortzen diren benetako eta berehalako arazoei aurre egiteko mekanismo bat.

Beraz, saiakera honen helburua galdera honi erantzutea besterik ez da: **zein teoria sozial mota izan daiteke benetan interesgarria non jendeak bere arazo propioak administratzeko aske den mundu bat sortzen saiatzen garenentzat?**

Gaian murgiltzeko, goazen lehenengo anarkismoa eta antropologia kontzeptuak eta hauen harremana argitzera:

- ❖ **Anarkismoa.** Inposatutako estatu edo gobernu formarik ezean oinarritzen den eredu soziopolitiko da. Hala, lehentasuna ematen zaio gizabanakoak lurralde jakin batean antolaketan duen zereginari eta elkartzeko duen gaitasunari. Historikoki, esan dezakegu anarkismoa XIX. mende amaierako mugimendu soziopolitiko dela. Horrela, sozialismoa, marxismoa edo komunismoa bezalako beste mugimendu batzuen hegalpean sortu zen. Hala ere, korrante horietako alderdi askotan anarkismoa ezberdina da eta bere bide ideologikoa jarraitzen du (Sanchez Galán, 2019).
- ❖ **Antropologia.** Giza izaeraren alderdi guztiak aztertzen dituen gizarte-zientzia da. “Gizaki” *anthropos* eta “ezagutza” edo “zientzia” *logos* esan nahi duten greziar jatorrizko hitzek osatzen duten terminoa da. Antropologiak giza fenomenoak aztertzen ditu, eta, beraz, jatorrizko eta antzinako gizarteak zein oraingoak hartzen ditu kontuan. Zientzia horrek giza espeziearen bilakaera, aniztasun etnikoa, kultura-aniztasuna, gizarte-ohiturak, sinesmenak, eraldaketa prozesuak, etab. hartzen ditu kontuan (Antropologia, 2019).

Horrela, antropologiak nolabaiteko kidesuna izan du beti anarkismoarekin - lotura estua izan zuen harekin XX. mendearen hasieran -, izan ere, antropologoak dira gaur egun estaturik gabeko gizarteak ezagutzen dituzten gizarte-zientzialarien talde bakarra; hauetako askok, estatuak funtzionatzeari utzi dioten edo gutxienez aldi baterako desagertu diren eta jendea modu autonomoan antolatzen den munduko eremuetan bizi izan dira. Antropologiak gero eta premiazkoagoa den gizarte eraldaketarako proiektu baten oinarriak finkatzeko balio dezaketen tresna eta jakintzak ditu.

6.3.1. **Idea nagusiak**

Saiakera honen bi elementu esanguratsuenak aipatu beharko bagenitu, honako hauek lirake: batetik, obra denbora-esparru jakin batean ulertzeko beharra, 2004an, jatorriz ingelesez argitaratu zenekoa, eta bestetik, haren panfleto-izaera. Saiakera XXI. mendeko lehen urteetan argitaratu zen, globalizazioaren aurkako mugimendua deiturikoaren irakinaldi betean (Mansilla, d.g.).

Atal honetan, antropologia anarkista eta anarkismoa orokorrean diruaren aurkako ideologia eta paradigma gisa aipatuko dira, egilearen ideia labur batzuk azalduz.

Idazleak Piotr Kropotkin²³-ek Encyclopedia Britannica-n idatzitako definizioa erabiltzen du anarkismo kontzeptuari buruz:

“Nombre dado al principio o teoría de la vida y la conducta que concibe una sociedad sin gobierno; sociedad en la que la armonía se obtiene no por la sumisión a la ley, ni por la obediencia a la autoridad, sino mediante acuerdos libres entre los diferentes grupos, territoriales y profesionales, constituidos libremente para la producción y el consumo, así como para la satisfacción de la infinita variedad de necesidades y aspiraciones de un ser civilizado” (Ambar Sewell-ek itzulitako ediziotik hartuta).

Horrela, David Graeber-ek aipaturiko ideia garrantzitsuenen artean hurrengoak aurkitu lirateke (Graeber, 2011).

1. Marxismoa eta anarkismoa alderatzen ditu:
 - a. Marxismoa estrategia iraultzaileari buruzko diskurtso teoriko edo analitiko izan da.
 - b. Anarkismoak praktika iraultzaileari buruzko diskurtso etikoa izatera jo du.
2. Anarkismoaren printzipio nagusiak hurrengoak lirateke: autoantolaketa, borondatezko elkarrekin eta elkarri laguntzea.
3. Anarkismoa ideia bat da, proiektu bat: gizarte berri baten erakundeak sortzen hastea planteatzen du, menderatze-egiturak beharrezkoak ez direla frogatuz.
4. Aurretik aipatutako kuestioa erantzuteko bi esaldi mahaigaineratzen ditu:
 - a. Beste mundu bat posible da; Estatuak, kapitalismoa, arrazakeria, patriarkatua, ez dira saihetsezinak.
 - b. Edozein teoria sozialek modu kontzientean baztertu beharko luke abangoardismoaren zantzu oro.
5. Lau autore aipatzen ditu, Marcel Mauss²⁴ izan delarik, haren hitzetan, eragin handiena izan duena anarkismoan moral alternatiboen forma ezberdinekiko izan duen interesagatik: estaturik gabeko eta merkaturik gabeko gizarteak horrelakoak izan ziren, haien berak modu aktiboan horrela bizi nahi izan zutelako.
 - a. Mauss-en aurretik → dirurik/merkatu gabeko ekonomiak trukearen bidezko ekonomien bidez funtzionatzen dute (ondasunak eta zerbitzuak kostu txikienean eskuratzea eta aberastasuna lortzen saiatzea).
 - b. Mauss eta gero → “dohainean oinarritutako ekonomiak” : ez ziren kalkuluan oinarritzen, kalkularen ezespenean baizik. Sistema etiko horrek kontzienteki baztertzen zituen ekonomiaren oinarritzko printzipioak.
6. Gizarte anarkistek beren gizarte-bizitza moralki arriskutsuak diren fenomenoekin (zikoizkeria, inbidia) antolatzea saihesten dute.
7. Mauss eta Clastres²⁵. “Kontrabotere” iraultzailearen teoriaren oinarriak ezarri dituzte:

²³ **Piotr Alekseyevitx Kropotkin** (1842-1921) printzea, batzuetan espainieraz Pedro Kropotkin bezala ere ezaguna, geografo, zoologo eta naturalista errusiarra izan zen, teoriko politiko eta ekonomikoaz gain, idazlea eta pentsalaria izan zena («Piotr Kropotkin», 2022).

²⁴ **Marcel Mauss** (1872-1950) antropologo eta soziologoa izan zen, eta «Frantziako etnologiaren gurasoetako» bat izan zen («Marcel Mauss», 2022).

²⁵ **Pierre Clastres** (1934-1977) antropologo eta etnologo frantsesa izan zen. Parisko Centre National de la Recherche Scientifique-ko ikerketa zuzendaria izan zen, eta Laboratoire d'Anthropologie sociale du Collège de France-ko kidea («Pierre Clastres», 2022).

- a. “Kontrabotere” : Estatuaren eta kapitalaren aurkako gizarte erakundeen multzoa.
 - i. Definizioz: gizateriaren historiaren zatirik handiena botere dualeko egoerek ezaugarritzen dute. Oso estatu gutxi izan dituzte erakunde horiek ezabatzeko bitartekoak.
 - ii. Autoreen hitzetan: ez Estaturik ez merkaturik ez duten gizarteetan existitzen da, eta horrelako pertsonarik inoiz ez egoteko helburua duten erakundeak dira.
 - b. Clastres: Estatu ez da sortu gizarte anarkisten erakunde politikoetatik, baizik eta instituzio erlijiosoetatik²⁶.
8. Gizarte guztiak beren buruarekin daude gerran (muturreko indarkeria sinbolikoa).
- a. Gudu-zelaiak. Ados jartzeko eta adostasuna lortzeko ahaleginak indarkeria intrintseko etengabea ezkututzen du; edo, hobeto esanda, praktikan, indarkeria hori kalibratzeko eta barneratzeko prozesua da.
- Gizarte sortasunaren iturria da, kontradikzio moral guztiekin.**
9. **David Graeber.** Ez da antropologia anarkistarik existitzen, pasarteak baizik:

Gaur egun existitzen diren gizarte anarkisten azterketak ez du interesik mundu garaikidearentzat. Iraultza gertatzen ari da.

- ❖ Ekintza iraultzailea: edozein ekintza kolektibo, edozein botere edo menderatze baztertu eta, beraz, aurrez aurre jartzen duena, eta hori egitean, gizarte-harremanak ikuspegi berri horren pean berreratzen dituen, baita kolektibitatearen barruan ere.

Graeber-entzat, “esperimentu mentala” egitea beharrezkoa da. Modernitatearen kontzeptua barneratzen du: batzuek zientzia, teknologia.. gisa definitzen dute, beste batzuek indibidualismo, kapitalismo, arrazionaltasun burokratiko edo alienazio edo mota bateko edo besteko askatasunaren ideal gisa. Hala ere, guztiak daude ados XV, XVI eta XVII. mendeen artean eman dela eta aldaketa bat izan zela; transformazio handia Mendebaldeko Europan eta bere kolonietan. “Moderno” bihurtu ginen, eta ondoren, aurrekoaren oso bestelakoa zen izaki mota bihurtu ginen.

Bestalde, existitu den jendearen %98arekin komunean ezer ez dugula presuntzioarekin bukatzea proposatzen du.

Gure gaian pisua duen kapitalismoa aipatzen du. Aipatutako ia egile guztiek horrela definitzen dute: mendebaldekoek aldarrikatzen duten hainbeste lorpenetako bat, merkataritzaren eta finantza-tresnen kontu bat bezala. Baina etekina gainera jartzeko borondate hori beste gauza bat zen. Aurkakoek, beren aldetik, zera diote: soldata-erregimenaren eta norberaren onura bilatzeko betiereko printzipioaren arteko loturan oinarritutako sistema.

Laburbilduz, eta bi definizioak ikusita, ikusarazten digu munduko bazter batean garatu zen logika komertzial normalaren perbertsio bitxi bat izan zela jatorrian, eta biztanleak modu izugarrian jardutera eraman zituela (kolonizazioa, esklabutza..).

Jorratzen duen beste gai bat gizarte da. Bi motatako gizarteetan jartzen du begirada: ahaidetasunean oinarritutako gizarteak, eta oraingo gizarteak. Lehenengoak, antropologiak ikasten dituenak, taldeka antolatzen dira eta haietan desberdintasun soziala egon daiteke. Gurean antzik ez duten gizarte exotikoak liriateke. Egungoak, ekonomiak eta soziologiak aztertzen dituzte.

²⁶ Diruaren aurkako jarrerak (erlijiosoa eta politikoa) hurrengo puntuan garatuko dira.

Zein da arazoa? Ahaidetasunean oinarritutako gizarteak “primitibo” bezala hartzen dituen jende berak gure gizarte “modernoarean” arazo nagusi gehienak arrazarekin, klasearekin edo generoarekin lotuta daudela ikusten duela; gure ahaidetasun-sistemaren izaerarekin.

Horrela, zer proposatzen du David Graeber-ek? Nola lor genezake benetako gizarte anarkista bat mundu garaikidean? Funtsezko bi puntu aipatzen ditu:

1. Gizarte anarkista bat benetako oximoron politikoa den estatu anarkista baten barruan gauatzeko ezintasuna.
2. Gertakari hori nahitaez iraultza baten babespean garatu behar ote den zalantzan jartzea.

Egungo munduaren konplexutasunak ezinezkoa egiten du osotasun gisa ulertzea, haustura iraultzaile baten bidez beste baten ordean alda daitekeena. Graeber boterea arbuizatzeko modu kolektiboaren aldekoa da, gizarte-harremanak berreraikitzearen bidez; autoreak “harresiak eraitea” bezala definitzen du. Ekintza iraultzaile ez-dramatikoa izango litzateke, eguneroko eraldaketaren bidez, gizarte forma berriak sortuko litzuzkeen etengabeko gizarte-aldaketa baten bidez, eta, aldi berean, egitura zaharrak desegingo litzuzke.

Bukatzeko, Graeber-ek globalizazioaren aurkako mugimendua aipatzen du. Hau aurretik aipatutako aldaketen motorra izan daitekela adierazten du, eta egungo demokrazia partehartzailea eta gehiengoa duena adostasunean oinarritutako demokrazia bihurtu behar dela azpimarratzen du; izaera anarkista duen globalizazio baten aurrean egongo ginateke.

7. DIRUAREN AURKAKO JARRERAK

Diruaren aurkako jarrerak bi jatorri dituzte: erlijiosoa eta politikoa. Esan beharra dago, historian zehar erlijioa eta politika nahastu egin direla nahiz eta esparru oso ezberdinak diren. Honen aurrean, Victor Moreno-k²⁷ hurrengo dio: erlijioa eta politika giza izaeraren adierazpenak dira, eta ez lirateke elkarrekin nahastu behar. Egin badute, ez da halabeharrez edo kasualitatez izan. Erlijioa Estatuaren Erlijio bihurtu zenetik, eta Estatuak politika bera baino gizarte-kohesioarako indar ahaltsuagoa ikusi zuenetik, biak batera joan ziren. Biak dira fusio leherkor horren erantzuleak; izan ere, hauen elkartasuna naturaren aurkako izan dela erakutsi da. Logikoa denez, Estatuak errealitateak administratzen ditu, eta erlijioa oinarri empirikorik gabeko ideia da. Azken batean, fusio honen jatorria anbizioa, boterea eta dirua izan ziren.

Atal honetan, eta gure gaiari dagokionez, erlijioak eta politikak bakoitzak diruaren aurkako jarrera gisa landuko ditugu.

7.1. Jarrera erlijiosoa

Erlijioak mendeak atzera existitu dira, eta hauek beraiek rol garrantzitsua izan dute gure gizartearen sorkuntzan. Gainera, gizarteak bizirik irauten laguntzen duten unibertsalak

²⁷ Filologia Hispanikoan doktorea, idazlea eta literatur kritikaria, eta prentsan, irratan, hezkuntza aldizkarietan, literaturan eta iritzirik politikokoan kolaboratzailea.

diren balioak sustatu dituzte, hala nola, familia, sakrifizioa edo lagun hurkoa maitatzea. Hala ere, erlijioaren arazo nagusia interpretazio ezberdinen kasua da.

Antzinaroko kultura erlijiosoaren historialari ezagunak, Peter Brown irakasleak, Mendebaldeko **kristautasunaren**²⁸ aberastasunari eta eraikuntzari buruzko ikerketa egin berri eta ezagunean (*Through the Eye of a Needle: Wealth, the Fall of Rome, and the Making of Christianity in the West, 350–550 AD*, 2016), arretaz eta sakon aztertu du nola gertatu zen antzinako elizaren aberaste harrigarria Antzinarotik Goi Erdi Arorako trantsizioa biziago bizi izan zen urteetan.

Non kokatu behar gara? IV. mendearen bukaera eta VI. mendearen hasieraren artean. Aldi horretan, ondorio imajinaezinak izango zituen fenomeno bat gertatu zen:

II eta III. mendeetan eliza “jaraungabetuen armada” bezala ezagutzen zen, baina horrela deitzeari utzi zitzaion. Eliza aberastasun ekonomikoa espiritualitatearekin bateratzen jakin zuen: Kristautasuna Ebanjeliotik aldendu zuen erlijio “huts” bihurtuz.

Horrela, kristauak eta budistak baterako soluzioa aurkitu zuten nolabait; **aberastasuna izateko arrazoi** gisa ulertu zuten: aberastasuna erabiltzeko zegoen, elizaren alde eraginkortasunez eta zentzutasunez kudeatzeko.

Elizaren historian norabide erabakigarria V. mendean emango zen: Ebanjeliotik Erlijiorako desplazamenduan; hau da, kristau bat definitzen duena Jesusen “jarraipena” ez denean, baizik eta sakratua (tenplua, apaizak, erritualak) “betetzea”. Horrek guztiak, langile profesionalizatuak, eraikinak eta ikasketa-zentro ondo kualifikatuak izatea esan nahi du. Gainera, botere sakratu batez hornituta dago, eta botere juridiko, soziopolitiko, ekonomiko, doktrinal eta abar batzuk dakartza berekin, diru asko behar dutenak, aberastasun ugari mugitzen dutenak eta kapital garrantzitsuak erabiltzea justifikatzen dutenak.

Aldaketa hauek onartzearen ondorio garrantzitsu eta pisutsuena Eliza funtsezko gauzetan Ebanjelioaren kontraesanean bizitzea izango litzateke. Eliza etengabe saiatzen da Ebanjelioa aztertzen, ulertzen eta saiatzen. Baina ezin da berarekin koherentzian bizi. Ezin da kontsekuentea izan Ebanjelioak irakasten duenarekin. Zergatik?

Zehazki, Jesus-ek bere apostoluei Ebanjelioa iragartzeko dirua eramatea debekatu egiten die (Mt 10, 9-10 par). Jesus-en ustez, dirua ez da beharrezkoa Ebanjelioa presente egiteko. Horrela, apostoluei dirua eramatea debekatu bazien, horrek esan nahi du bere ustez dirua bere mezua iragartzeko eragozpena dela.

Laburbilduz, badira Ebanjelioaren paragrafo batzuk, nola edo hala irakurrita, eduki estetiko garrantzitsua dutenak, baina praktikan eraginik ez dutenak. Gure gaian pisua duten diruari eta aberastasunari buruzko adierazpenak ditu: Jesus-en hitzetan, inbidia garriak pobraek dira, eta aberatsak, nerabe hutsak. Jesus-ek **Ebanjelioan** aipatutako esaldien artean hurrengoak aurkitu ditzazkegu (Gómez Lovera, 2016):

- ❖ Mateo, 19:21. «*Gutziz ona izan nahi baduzu, zoaz, saldu zeure ondasunak eta eman behartsuei, zeure aberastasuna zeruan izan dezazun; gero, zatoz eta jarraitu niri*». Hitz hauek entzutean, atsekabez alde egin zuen gazteak, ondasun handien jabe baitzen.

Jesus-en hitzak pertsonak ondasun materialetatik askatu behar direla esateko modu bat dira. Hau ez du esan nahi ezer gabe bizitzea, baizik eta gauza

²⁸ Kristautasuna munduan zehar jarraitzaile gehien duen erlijioa denez, hau da gehien sakonduko dudana.

materialak ez direla guztiaren gainera jarri behar eta asko duen pertsona batek besteen zerbitzuetara jartzea dela zuzena.

- ❖ Lucas, 12:33. «*Saldu zeuen ondasunak eta eman limosna. Pila itzazue zeruan hondatuko ez diren ondasunak, huts egingo ez dizueten aberastasunak, hara ez baita lapurrik hurbiltzen, ezta han sitsak jaten ere*».

Esaldi honen bidez, Jesus-ek bere dizipuloei janariari buruz eta non lo egiteari buruz kezkatzeko beharrik ez dutela adierazi nahi du; Jainkoak badaki zer behar duten eta hark hornituko ditu. Ondasun materialei egiten die berriz ere erreferentzia, baina “*bolsas que no se desgasten*” esaldiarekin dituzten ondasunak baliagarriak izan behar direla eta dirua modu eraginkorrean erabili behar dutela ulertarazi nahi du.

- ❖ Mateo, 6:3. «*Zuk limosna egitean, ez beza jakin zure ezkerrek zer egiten duen eskuinak*».

Premia duenari karitatea eta laguntza ematea garrantzitsua bada ere, justizia sozialagatik egin behar da, ez presuntzioagatik. Esaldi honen aurretik, Jesus-ek errekonozimendu bila limosna ematea ez dela denen aurrean egin behar dio.

- ❖ Marcos, 12:43-44. *Jesusek bere ikasleei dei egin eta esan zien: «Benetan diotsuet: Alargun behartsu honek beste guztiek baino gehiago bota du kutxara. Izan ere, beste guztiek sobera dutenetik eman dute; honek, ordea, bere eskasian, zeukan guztia, bizitzeko behar zuena, eman du».*

Hau solidaritatearekin erlazionatzen du. Gaur egun ere, gehiago eskertzen zaie sakrifikazioa dakarren laguntza ematen dutenei, fundazioen bidez soberan dutena ematen dutenei baino.

- ❖ Mateo, 25:15-18. «*Bati bost talentu, beste bati bi eta besteari bat, bakoitzari bere trebetasunaren arabera. Gero, alde egin zuen. Bost talentu hartu zituenak inbertitu egin zituen berehala eta beste bost irabazi. Orobat bi talentu hartu zituenak: inbertitu eta beste bi irabazi zituen. Bat bakarra hartu zuenak, aldiz, lurtean zuloa egin eta bertan gorde zuen nagusiaren dirua*».

Pasarte honek inork ez dakiela noiz izango den denboraren amaiera eta Jainkoari kontuak eman beharko zaizkiola dio. Egoera hurrengoa da: gizon aberats bat bidaiari joan eta bere zerbitzariari diru kopuru ezberdinak uzten die, itzultzean kontuak eskatzeko intentzioarekin.

Era berean, dauzkagun baliabideak produktiboa den zerbaitetan erabili behar ditugula erakutsi nahi digu. Azken batean, garrantzitsua da aukerei etekina ateratzea.

Horrela, **aszetismoaren** kontzeptua sartzan da jokoan. Aszetismo hitza *askesis* greziar jatorrizko hitzatik dator, praktika, gorputz-ariketa eta, bereziki, entrenamendu atletikoa esan nahi duena. Lehen kristauek gauza izpiritualen praktika adierazteko hartu zuten, edo bertute-azturak bereganatzeko asmoz egindako ariketa espiritualak adierazteko. Laburbilduz, doktrina filosofiko edo erlijiosoa da, plazer materialen edo abstenentziaren ukazioaren bidez espiritua garbitzea bilatzen duena. (Hernández Medina, 2016).

Munduan erlijio askok onartu duten adigaia da, hala nola kristautasunak, budismoak edo islamismoak. Guk aszetismo kristaua landuko dugu lan honetan.

Aszetismo kristaua Jainkoaren borondatea egiteko nahiak bultzatzen du. Giza arazoak Jainkoaren borondatea antzeman dezake, baina guretzat esplizituki Hamar

Aginduetan ezartzen da, jokabide etikoaren kode oso bat ematen duena. Agindu hauetako batzuk positiboak dira, eta beste batzuk, aldiz, negatiboak.

Uko egiteko eta araztatzeko praktika zaharrak aszetismo eta monastizismo kristauaren aurrekari dira. Kristau-ordena ezberdinek Jainkoarekiko hurbiltasun handiagoa bilatu zuten uko egitetik aurrera. Hala, ohikoak ziren **kastitate eta pobrezia-botoak**²⁹, monasterioetako borondatezko espetxeratzeak, baita hiriko bizitza bertan behera uztea ere.

Bukatzeko, aszetismo kristauaren adibide bat VI. mendeko “basamortuko gurasoak” izan ziren, erromatar hiriak bertan behera utzi zituztenak Siria eta Egiptoko basamortuetan bakardadean bizitzeko. Antzeko kasuak agertzen dira eliza ortodoxoan eta ondorengo eliza katolikoan, non ohikoa zen gorputza zigortzea edo plazerrei uko egitea.

Bestetik, beste erlijo baten adibidea jartzearen, **Islam-ari** dagokionez, hurrengoak izango lirateke diruari dagokionez jarritako “arauak” (*Cuatro reglas básicas sobre el dinero en el islam*, 2022):

- ❖ Dirua bidezko moduan lortzea.
- ❖ Ez zikoizkeriarik, ez zarrastelkeriarik.
- ❖ Limosna ematea (**sadaqa**).
- ❖ Jainkoarenganako konfidantza.

7.1.1. Egungo gizartea eta erlijioa

Aurreko atalean aipatu dudan bezala, badaude Ebanjelioko pasarte batzuk praktikan eraginik ez dutenak egungo gizartean. Baina zergatik da hau? Batzuen ustez, Elizak ez du Ebanjelioa zorrotztasunez bizitzen.

Garai guztietako gizartean, eta are gehiago bizi garen kulturaren, dirua edukitzea eta erabiltzea boteretsuekin eta dirudunekin ados egotea ekartzen du, kapital handiarekin eta aberatsek eta dirudunek beren aberastasuna mantentzeko eta areagotzeko erabiltzen dituzten bitarteko, erakunde eta prozedurekin ados egotea.

Elizak hainbeste praktikatzuten dituen karitatearen eta limosnaren argudioak hemen ez dute leku. Azken batean, hain ugariak diren desberdintasun eta bidegabekeriak ez dira limosnarekin konpontzen, justziarekin eta zuzenbidearekin baizik. Behar duguna mundu bidezkoago bat da.

Irakasle jesuita den gizon anonimo bat hurrengo artikulua interesgarria idatzi zuen gai honen inguruan. Bertan, hurrengo ideak azpimarratzen ditu:

Harentzat, diruari buruz Ebanjelioan idatzitako zenbait esaldi ez dute konkordantziarik. Adibideetako bat pobreak inbidiagarriak direnaren eta aldiz, aberatsak zoritxorrekoak direnaren esaldia da. Jesuitak bizitza errealean guztiz kontrakoa ikusten duela islatzen du.

Bere buruari zer aurkitu ahal izan zuen Jesus pobrezian helburu bat bezala proposatzeko eta dirua irabazteko proiektua baztertze galdetzen dio. Azken batean, “abaratsek

²⁹ Arima, gorputza eta aldi baterako ondasunak hiru botoetan daude sinbolizatuta: obedientziaren bidez, arimaren eskaintza egiten da, nahimena esklabo bihurtuz; kastitatearen bidez, gorputzaren eskaintza; pobrezia bidez, aldi baterako ondasunena (*Instituciones del Derecho canónico / por el doctor Pedro Benito Golmayo*, d.g.).

primeran pasatzen dute: etxe onak dituzte, auto onak, jatetxe onetara joaten dira afaltzera, eta bidaiatzen dutenean bost izarreko hoteletan hartzen dute ostatu. Loteria tokatzen zaionean edo kinielak irabazten ditutenean zoriontzen da jendea, ez lapurtu diotenean. Pobreak, aldiz, gaizki pasatzen dute: uholderik badago, pobreen etxeak itsasten dira, ez aberatsenak; lurrikararik badago, pobreen etxeak erortzen dira, ez aberatsenak. Maluxen etxeetan bizi ohi dira, batzuetan baita txaboletan ere, tren deserosoetan bidaiatzen dute, haurrak zapata zaharrekin joaten dira. Gainera, landugabeak dira eta heziketa eskasa dute” (*Dinero y religión*, 2007).

Gure kulturaren, telebistako igagarkietan agertzen den bezala, balio absolutuaren kategoriara igotzen ari da bizitzan ondo pasatzea. Ongizate materialaren eta arrakasta ekonomikoaren erabateko kategorizazio hau da, zehazki, Ebanjelioarekin bateragarria ez dena, baina aldiz, erlijio-praktikarekin bateragarria dena, historiak eta esperientziak hala erakutsi dutelako.

7.2. Jarrera politikoa

Munduan hainbat sistema politiko daude, estatu edo nazio baten ordena zehazteko eta arautzeko ezarritako arau, ideal, sinesmen eta jokabideen multzoa barne hartzen dutenak. Mundu aldakor honetan, non antolatze eta lan egiteko modu berriak sortzen diren, baita eredu ekonomikoak administratzeko modu berriak ere, sistema politikoak aldatu egiten dira. Haien erabakitzen dute, neurri handi batean, nazioa edo estatua nola garatzen den.

Horrela, diruaren aurkako jarrera politikoa lantzeko **anarkismoa**³⁰ eta **komunismoa** aipatzea ezinbestekoa da. Estatuaren kontrolpetik kanpo dauden aldetik, **kriptomonetek** ere pisua dute atal honetan, aurrerago ikusiko dugun moduan.

7.2.1. Komunismoa eta anarkismoa

Landuko dugun lehen kontzeptua **komunismoa** da. Komunismoa ideologia politiko bat dela uste da, sozietateak gizarte-berdintasun osoa lortu dezakeela defendatzen duena jabetza pribatua ezabatuz. Komunismoaren kontzeptua Karl Marx eta Friedrich Engels³¹-ekin hasi zen 1840. urtean, baina mundu osora hedatu zen, Sobietar Batasunean, Txinan, Ekialdeko Alemanian, Ipar Korea, Kuba, Vietnamen eta beste nonbait (Rosenberg, d.g.).

Garrantzitsua da azpimarratzea komunismoa kapitalismoaren aurkako kritika gisa sortu zela, honek kapitalaren metaketa aberastasuna sortzeko mekanismo gisa, ekoizpen-bideen jabetza pribatua eta merkatua baliabideak esleitzeko mekanismo gisa erabiltzea sustatzen baitzuen.

³⁰ Jadanik seigarren atalean landu denez, idea esanguratsuenak aipatuko dira soilik.

³¹ **Friedrich Engels** (1820-1895) sozialismo zientifikoaren gurasoetako bat izan zen, marxismo bezala ere ezaguna, eta buruzagi sozialista. Karl Marx-en lankide izan zen eta bere lana “*Das Kapital. Kritik der politischen Ökonomie*” garatzen eta osatzen lagundu zuen (Vicent Selva, 2016).

Komunismoaren arabera, kapitalismoa da desberdintasun eta injustizia sozialaren erantzulea, eta honen ondorioa gizarte-klaseen arteko desoreka handia da. Horrela, aberatsen eta pobreen arteko banaketarik egon ez dadin, baliabide produktiboen jabetza bateratua proposatzen du.

Teoria komunistak diruak gizarte utopiko batean izateko arrazoirik ez duela dio, baina kontuan izan behar dugu estatu komunista batek ere ez duela lortu dirua bere ekonomiatik ezabatzea oraingoz.

Beraz, zer da ideologia honek diruaren aurka defendatzen duena?

Arau orokor gisa, esan daiteke ekonomia komunistetan balioa eta aberastasuna kontzeptuak higitu eta desitxuratu egiten direla, eta moneta nazionala trukerako bitarteko bat besterik ez dela bihurtzen. Bilatzen dena diruaren balioa murriztea da; honen adibide Ekialdeko Alemaniaren kasua dugu: arina eta merkea zela hauteman zezaten, bere txanpona ekoizteko aluminioa erabili zuen.

Horrela, komunismoaren ezaugarri nagusiak hurrengoak lirateke (Roldán, 2017):

- ❖ Marxismoan oinarritzen da, eta azken edo muturreko egoerara eramaten du.
- ❖ Klase-sozialak ezabatuko dituen gizarte bat nahi du, non, teorian, beste batzuk baino pribilegio handiagoak dituen pertsonarik ez egotea posible den.
- ❖ Ekonomia guztia erakunde zentral batetik planifikatzea planteatzen du, eta bertatik zehaztuko da zenbat ekoitzi eta zein preziotan saldu.
- ❖ Ez du aniztasun politikoa onartzen, eredu komunista baterantz erreformak egingo dituen alderdi bakarraren gobernu baizik.
- ❖ Ekoizpen bideen jabetza pribatua desagertzea proposatzen du. Horrela, teoriaren arabera, proletarioen esplotazioa eta kapitalistek gainbalioa bereganatzea saihestuko litzateke.
- ❖ Korrante desberdinak ditu, hala nola leninismoa, trotskismoa eta maoismoa.

Komunismoaren arabera, jabetza pribatuak klase sozialen arteko borroka sortzen du langileen eta ekoizpen-baliabideen jabeen artean. Klase borroka hori barne krisi eta krisi zikliko bihurtzen da, langileen iraultzaren bidez bakarrik konpon daitezkeenak. Zentzu horretan, komunismoaren arabera, langileek baliabideak bereganatu behar dituzte eta baliabide horien jabetza bateratua deklaratu.

Aurrekoa lortzeko, alderdi politiko komunista bat sortu behar da, Estatu menderatuko duena, Estatuak “Proletariotzaren Diktadura” delakoa ezar dezan. Ondasunak eta zerbitzuak planifikazio-mekanismo zentralizatu baten arabera sortuko dira, non ez den ez lehiarik ez merkatu librerik egongo.

Laburbilduz, komunismoak Estatu eta zerbitzu nazionalaren kontrolpean dauden desberdintasunak desagerrarazi nahi ditu: aberastasun pribatua, lurraren jabetza eta jabetza pribatua deuseztatu, eta prezioak eta industriak arautu.

Bestalde, Estatu moneta debaluazioa dibisen truke mugatuaren ondorio naturala da, eta baita ere zerbitzu asko, hala nola etxebizitza, hezkuntza, garraio publikoa eta osasuna, doakoak direlako edo estatuak asko laguntzen dituelako.

Moneta-sistemaren zatiketa bereziki nabarmena izan zen Gerra Hotzean, herrialde kapitalistetako hornidura-kate konbentzionalak aldi luzez itxita egon zirenean. Honen bidetik, elikagai eta ondasun batzuen eskasia ohikoak agerian utzi zuen ez zegoela

pertsona batek diruarekin eros zezakeen ezer, eta aldizka ordezkoko ordainketa sistemetaz baliatzen ziren, hala nola, txartelen sistemak (baleak)³².

Komunismoarekin bukatuz, aipatu hainbat kritika nabarmen existitzen direla, hala nola (Roldán, 2017a):

- ❖ **Klase-sozial berriak.** Autore batzuek klase sozialak ezabatzea utopia bat besterik ez dela adierazi dute. Komunismoak klase sozial berriak baino ez ditu sortuko, non langileak ere ezberdinduko diren baliabideen gaineko botere eta kontrol mailan.
- ❖ **Eraginkortasun eza.** Plangintza zentralizatuak eta enpresa-ekimena ezabatzeak ekoizpen-eraginkortasunik eza dakarte. Horrela, baliabide urri asko galdu egiten dira edo gutxiegi erabiltzen dira.
- ❖ **Pizgarrien falta.** Norbanakoaren ahalegina edo ekimena saritzen ez denez, pertsonak eta enpresek ekoizleagoak izaten, kostuak murrizten edo berritzen ahalegintzeari uzten diote. Aurrekoak ekonomia gelditzea dakar eta, ondorioz, pertsonen sufrimendua areagotzea.

Anarkismoarekin jarraituz, jadanik David Graeber-en eskutik landu dugunez, azaletik planteatuko dugu diruaren aurkako jarrera gisa.

Aurretik esan bezala, anarkismoa mugimendu filosofiko eta soziala da, eta bere helburu nagusia Estatu (gobernu mota guztiena) deuseztatzea da, baita gizabanakoei ezar dakiekeen autoritate, hierarkia edo kontrol sozial oro ere, kaltegarriak, naturaren aurkakoak eta, azken batean, beharrezkoak ez direnak direlakoan (Uriarte, 2019).

Zentzu horretan, gizabanakoarengan eta gizartean jartzen ditu bere interesak, nagusirik eta subiranorik gabeko gizartea ekarriko duen gizarte-aldaketa bultzatzeko asmoz.

Gaur egungo konnotazioarekin «anarkismo» eta «anarkista» terminoek 1789ko Frantziako Iraultzan dute jatorria, eta anarkismoaren lehen mugimenduak XIX. mendearen hasieran aurkitu ditzakegu, langile-mugimendu bat izan zena. Hauen helburua kapitalismo industrializatuaren hasieran proletarioak jasan behar zituzten zapalkuntzaren baldintzak hobetzea zen.

Horrela, mugimendu honen oinarriko printzipioak hurrengoak liriateke:

- ❖ **Askatasuna.** Anarkismoak hierarkizazio sozial, zapalkuntza edo errepresio mota oro arbuiatzen du, giza izaeraren aurkakotzat joz, eta gobernu, estatu edo enpresa mota oro abolitzearen alde egiten du, giza izaerak autorregulatutako gizarte bat hobetsiz, berez onbera eta errukiorra dela uste baitu.
- ❖ **Berdintasuna.** Klase sozialak eta bereizketa hierarkikoak anarkismoaren arerioak dira. Anarkismo horrek berdintasun osoko gizartea bilatzen du, non inork ez duen beste inor esplotatzen eta usteltzen boterearen bidez. Jabetza pribatua aurre egin beharreko zerbait bezala ikusten du.
- ❖ **Elkartasuna.** Anarkismoak gizakia sozializat eta kooperatibotzat hartzen du berez; beraz, kooperatibismoaren legeek, eta ez lehiakortasunaren legeek, giza interesak zuzentzen dituzten gizartearen alde egiten du. Bultzada horrek izan behar du gizarteak ordenatzen dituen, eta ez gizartetik kanpoko zuzendaritza bat.

³² Bitxikeri bezala aipatu gaur egun lau estatu baina ez daudela ekonomia planifikatuekin: Txina, Laos, Kuba eta Vietnam. Haien eta herrialde kapitalisten arteko merkataritza-harremanak normalizatu egin dira, baina moneta eta ideologia politikoaren kontzeptuek aurrera egiten jarraitzen dute (*El dinero del comunismo*, 2017).

Atal honi bukaera emateko, antzekoak ematen duten arren, garrantzitsua da **anarkismoaren eta komunismoaren arteko desberdintasun** esanguratsuenak azpimarratzea:

KOMUNISMOA	ANARKISMOA
Kapitalismoa desberdintasunaren eta klase-desberdintasunaren sortzaile gisa ikusten du.	Kapitalismoa langile klasea askatzeko ezabatu beharreko etsaia kontsideratzen du.
Estatuko talde finko batek bakarrik kontrolatzen ditu ekoizpen-bitartekoak.	Pertsona talde txikiek beren beharrak asetzeko eta helburuak lortzeko ekoiztu dezakete.
Estatuaren boterea langile klaseari ematea proposatzen du, Estatuaren forma bere baitan desagerraraziz.	Legearen gainetik, pertsona bakoitza autonomoa izatea bilatzen du.

1.Taula. *Diferencia entre Comunismo y Anarquismo*, Andrea Palermo, 2019

Horrela, anarkismoak irizpide, arau eta legeen menpe egon gabe, pertsonak erabakiak hartzea sustatzen du. Pertsonak gobernu-figurak gizartea kaosa sortuz soilik problematizatzen duela pentsatzea da helburua.

Ideen ordena horretan, anarkismoaren idealak guardia zibilak, armadak eta edozein segurtasun-erakunde, parlamentu eta erakunde legegile desagertzea dakar. Irizpide horren arabera, pertsonak beren beharrak asetzeko ekoiztu eta beren helburuak lortzera bideratzen dieten talde txikietan iraun dezaketela uste dute anarkistek. Azkenik, ideologia horren abiapuntua sistema kapitalista eta gizarte burgesa desagerrarazi behar izatea da, langile klasea askatzeko.

Komunismoa, bere aldetik, gizarte-klaseetatik aske dagoen eta produkzio-bideak guztion ongizateari dagozkion gizarte baten sorkuntza bilatzen du. Horren ondorioz, jabetza pribatua ez da existitzen. Beraz, gizarte-sistema komunista da arreta-programen bidez beharizan publikoak bideratzen dituen. Gainera, berak proposatzen du lana berdintasunez banatzea.

Bestalde, ekoizpen-bitartekoak normalean sistema sozial komunista berak izendatutako pertsona talde batek kontrolatzen ditu. Gainera, ekonomia zentralizatu egiten da eta ez du erlijioa onartzen. Askok sozialismoaren muturreko forma bezala kontsideratzen dute; azken batean, Estatuaren itxura bere baitan desagerrarazi nahi du.

7.2.2. Kriptomonetak

Egun, kriptomonetek geroz eta pisu handiagoa dute gure gizartean; azken batean, guztiok noizbait entzun dugun terminoa da. Honen aldetik, sakonduko dugun kontzeptua izango da, betiere gure gaiaren ildotik atera gabe.

Baina, zer dira kriptomonetak?

Kriptomonetak trukerako bitarteko digitala dira. Moneta baten funtzio berdina betetzen dute, eta horren ondorioz esleitu zitzairen bere izena. Hala ere, guztiz digitala da, eta metodo kriptografikoak erabiltzen ditu bere finantza-transakzioak ziurtatzeko, unitate

berrien sorrera kontrolatzeko eta aktiboen transferentziak egiaztatzeko (Fernández, 2022).

Horregatik, txanpon digitalen alternatiba deszentralizatutzat har ditzazkegu. “Deszentralizatu” terminoarekin txanpon horiek zerbitzu edo enpresa bakar batek ez dituela kontrolatzen adierazten da, eta horregatik dute garrantzia lanaren atal honetan.

7.2.2.1. Kriptomoneta eta “FIAT” motako diru tradizionala

Kriptomonetek hainbat ezaugarri bereizgarri dituzte sistema tradizionalekiko: ez dago inolako erakunderik arautzen edo kontrolatzen duenik, eta ez dute bitartekorik behar transakzioak burutzeko momentuan. Datu-base deszentralizatua, *blockchain*³³ edo kontabilitate-erregistro partekatua erabiltzen da transakzio horiek kontrolatzeko.

Erregulazioaren ildotik, kriptomonetak ez dira ordaintzeko bitartekotzat hartzen, ez dute banku zentral baten edo beste agintari publiko batzuen babesik, eta ez daude bezeroa babesteko mekanismoen bidez estalita, hala nola, Gordailuak Bermatzeko Funtsaren edo Inbertitzaileak Bermatzeko Funtsaren bidez (Santander, 2022).

Horrela, laburki azalduko ditugu kriptomoneten ezaugarri nabarmenenak (Redacción Cedegys, 2022):

- ❖ Mekanismo eta tresna zifratuen eta kodetuen erabilpena, transakzio bakoitzaren segurtasuna mantentzeko eta bermatzeko, hau da, **kriptografia**.
- ❖ **Deszentralizazioa**, erakundeen kontrol eta gainbegiratze nulua edo eskasaren ondorioz.
- ❖ **Bikoiztu edo faltsutzeko ezintasuna**, gako pribatuari eta zifratzeari esker.
- ❖ **Bitartekorik eza**.
- ❖ **Ez dira inflazioarekiko sentikorrak**, zenbait mekanismoaren erabilerari esker, hala nola, txanpon-igorpenen murrizketari edo piezen edizio mugatuari esker.
- ❖ **Transakzioen atzeraezintasuna**; behin transakzioak eginda, ezingo dira ezeztatu.
- ❖ Beste **dibisekin trukatzeko aukera**, hala nola, Bitcoin bat dolar edo euro bihurtzea, adibidez.
- ❖ **Anonimotasuna**.

Kriptomoneten balioa haien euskarri den proiektuaren, horien moldaeraren eta erabileraren araberakoa da. Proiektua zenbat eta serioagoa izan, orduan eta pertsona eta erakunde gehiagok erabili eta onartu, orduan eta balioespen eta erakargarritasun handiagoa izango du merkatuan.

Ohiko txanponekin edo FIAT-ekin alderatuta (euroa edo dolarra, esaterako) hegazkortasun handia dutenez, oraindik ez dira ohiko ordainbidetzat hartzen. Baina gehien onartzen diren txanponetako batzuk lurrunkorrek izateari uzten ari diotela medio, kriptomonetak errazago moldatu ahal izatea ekartzen du horrek.

³³ Jadanik definituta 3.3 puntuan.

7.2.2.2. Kriptomoneta motak

Egun kriptomoneta mota asko daude gizartean. Azpimarratzekoa da Bitcoin izan zela lehenengo kriptomoneta, 2009. urtean izan zuena jatorri. Geroztik, geroz eta lehiakide gehiago gehitzen dira, 3000 kriptomoneta mota baino gehiago ezagutzen direlarik orain merkatuan.

Atal honetan, garrantzitsuenak aipatuko dira bakarrik (Santaella, 2022):

- ❖ **Bitcoin, BTC.** Jatorrizko kriptomoneta (2009an agertu zen lehena) eta ezagunena da. Crypto ekosistemaren kriptomoneta liderra da, eta bere funtzio nagusia balio-erreserba da, urrearekin lehiatuz.
- ❖ **Ethereum, ETHER, ETH.** Ez da berez kriptomoneta bat, baizik eta plataforma deszentralizatu bat, banatutako sare batean kontratu adimendunak eta aplikazioak exekutatzea ahalbidetzen duena. Eragiketa horiek sistemak erabiltzen duen kriptomonetari esker gertatzen dira, *ether*-ari esker. Gaur egun, Ethereum “crypto” ekosistema osoan etorkizun handiena duen proiektuetako bat da, ingurune horretako proiektu gehienak Ethereumen oinarritzen baitira funtzionatzeko.
- ❖ **Binance Coin, BNB.** *Kripto exchange*³⁴-aren kriptomoneta ofiziala da, eta plataforma horren barruan transakzioak egiteko sortu zen.
- ❖ **Cardano, ADA.** Merkatuan azkarren hazi den kriptomonetetako bat da. Blockchain-aren hirugarren belaunaldian sortzen da, *ether* bezalako beste kriptomoneta batzuen eskalagarritasun-arazoak konpontzeko. Printzipio matematikoak eta geruza anitzeko arkitektura bakarrak erabiltzeagatik bereizten da.
- ❖ **Polkadot, DOT.** Blockchain protokolo bat da, dauden kriptomoneten blockchain-ak bloke unibertsalen kate batera konektatzen saiatzen dena, dibisa desberdinekin transakzioak burutu ahal izateko. Era berean, bere kriptomoneta du (DOT). Kriptomoneta horrek balioa du; azken batean, pertsonen duten kopuruaren arabera protokoloari dagozkion alderdiei eta eguneratzeari buruzko erabakietan boto gehiago edo gutxiago izatea ahalbidetzen die. Polkadot-ek “Blockchain-en Internet-a” izatea bilatu nahi du.
- ❖ **Tether, USDT.** Kriptomoneta egonkorra da, hau da, mundu errealeko moneta fiduziario tradizionalekin lotua eta babestua dago. Zehazki, dolarrari lotuta daude 1etik 1erako erlazioan. Zubi bat sortzen du txanpon birtualen eta fisikoen artean, nahiz eta bi txanpon mota horien arteko trukea egiteko ezin den erabili. Beste kriptoa aktibo batzuetan inbertitzeko edo desinbertitzeko erabili ohi da.
- ❖ ...

Beste kriptomoneta esanguratsuen artean Ripple, Uniswap, Litecoin eta Chainlink aurkitu daitezke, besteak beste.

³⁴ Fiat dirua edo beste kriptomoneta batzuekin trukea burutzeko topagunea da. Online bidezko kanbio-etxe horietan kriptomoneten balioa markatzen duen merkatuko prezioa sortzen da, eskaintzaren eta eskariaren arabera dena (*¿Qué es un exchange de criptomonedas?*, d.g.).

7.2.2.3. Etorkizuna

Orain arte, diru digitalaren merkatua ezaugarritu duena hegazkortasuna izan da. Horregatik, kriptomoneten etorkizuna aztertzeke, oso garrantzitsua da haien balioari eragiten dioten faktoreak zein diren ulertzea. Izan ere, ohituta gaudena baino askoz ere azkarrago eta aurreikusi ezinago dabilen merkatu baten aurrean gaude. Kriptomoneten kasuan, haien balioa puntu asko igo daiteke hilabeteetan, edo %50eraino hondoratu, egun gutxi batzuetan.

Beraz, zeintzuk dira kriptomoneten etorkizunean pisua duten faktoreak? (Quiñoy, 2022)

Batetik, oinarrizko faktore bat **eskaria eta eskaintza** liraterke. Jadanik, kriptomoneten balioa eskarian eta eskaintzan oinarritzen dela badakigu. Kriptomoneten erabilera asko hazi egin da aurreko urteei begira, eta horrek hauen kapitalizazioa handitzea ekarri du. Gainera, enpresa eta gobernu askoren interesa piztu du, dibisa digital hauen erabilera egokienaren bila jarduten ari direnak gaur egun.

Nodoak ere pisu dute etorkizunari begira. Sare baten bidez gailu guztietara sar daitekeen ingurune batean, nodoak sare horren barruko elkargunea dira. Laburbilduz, Interneteko trafikoa bideratzen duten zentro nagusiak dira. Kriptomoneten kasuan, nodo-kopuruak sare berean dauden kartera aktiboen kopurua erakusten du. Beraz, komunitatea zein indartsua izan daitekeen islatzen du; nodo kopurua handitzea komunitate indartsu baten seinale da, eta horrek aukera ematen du moneta digital horrek edozein krisi potentzial gainditzeko.

Hirugarren faktore bat **ekoizpen-kostuak** liraterke. Moneta baten sorkuntza beren balioa determinatzen duten berehalako eta etorkizuneko gastuak suposatzen ditu. Bitcoin-aren kasua aztertuz, honen ekoizpen kostua handia da. Azken batean, ekipo edo zerbitzari espezializatuen ekoizpen-gastuez eta horiekin batera doazen hozte-sistemez ari gara. Prozesu horri “*meatzaritza*” deitzen zaio normalean. Meatzariek zerbitzari bereziak edo hardware-a erabiltzen dituzte token berriak ekoizteko eta sarearen eguneroko transakzioak berresteko. Beraz, meatzariek bloke-katea funtzionarazi behar dutenez, meatzaritza-kostuak handitzen badira, kriptomonetaren balioa ere haz daiteke.

Lehia ere faktore garrantzitsua izango litzateke. Etengabe berritzen doan mundu honetan, egunero txanpon digital berriak, token berriak eta proiektu berriak agertzen dira. Lehiakide berrientzat oso oztopo gutxi daude merkatuan sartzeko, baina kriptomoneta jasangarri bat ekoizteak blockchain erabiltzaileen sare bat garatzea eskatzen du. Horrela, lehiakide baten sare baten akatsak betetzea lortzen bada, blockchain sare berria oso azkar haztea eragin dezake.

Gaur egun mota guztietako kriptodibisak aurkitzen ditugu, eta gero eta aniztasun handiagoa dago. Horrek kriptomoneten proiektu bideragarriak gero eta gehiago izatea eragiten du, egungo murrizketak gainditu eta erabiltzaile-sare sendo bat eraiki dezaketanak.

Beste faktore bat **gobernuaren erregulazioak** liraterke. Gero eta ospe handiagoa eta kriptomonetek bizi izan duten bultzada direla eta, gobernuak berariazko erregulazioak aplikatzea planteatu dute. Gobernu batzuek ez dute moneta digital horien izaera arautu gabea eta deszentralizatua aintzat hartzen, eta merkatu hori kontrolatzeko neurriak hartzen ari dira.

Merkatu hau kontrolatzeko modurik errazena transakzioetan zergak aplikatzea da. Herrialde horietan kriptomoneten erabiltzaile asko badaude, erregulazio berriak sartzeak eragin negatiboa izango du haien balioan.

Azken faktorea **eskasia** izango litzateke. Kriptomoneten hornidura mugatu bat badago, diru digitalaren prezioa handitu egingo da, erosteko kopurua txikia delako. Bestela, kriptodibisa asko ematen badira, prezioa jaitsi egingo da, erabiltzaileek txanpon digital gehiago izango dituztelako erosteko.

Gainera, egungo kriptomoneten proiektu batzuk zirkulaziotik ateratzen dituzte txanpon hauek, hornidura osoa murriztuz. Prozesu hori kriptodibisa baten prezioaren inflazioa kontrolatu nahi denean gertatzen da, eta hornidura kontrolatzeko ezinbesteko modu bat da.

Horrela, argi dago modu ezberdinak daudela kriptomoneta baten balioa determinatzeko, eta honi eragiten dioten faktore asko daudela baita ere. Baina zaila da hau aurreikustea.

Hain aldakorra den merkatu batean, egun gutxietan joera aldatu dezaketen faktore asko hartzen dute parte, erregulazio murriztaile berriak ezartzen direlako adibidez, edota eskariaren hazkunde nabarmena ematen delako. Aurreikuspen eza da oztopatzen duena kriptomoneten etorkizuna argi ikustea.

Kriptomonetek diru efektiboa ordezkatzeko ote duten galdetzen da askotan. Konplexua da gaia, eta ez du erantzun bakarra. Garrantzitsua da jakitea diru efektiboaz ari garenean, dibisa indartsuetaz ari garela hitz egiten, hala nola Euro, USD, Yen, Libra.. Azken batean, egoera delikatu batean dauden herrialdeen dibisa ahulek zalantzarako balioa dute, edo nulua, eta berdina esan daiteke bere efektiboari dagokionez.

Azken kasu hauetan, kriptomonetek efektiboa ordezkatu dute nolabait: moneta tradizionalekin zenbait ondasun eta zerbitzu erosteko aukera ez dutenez, herrialde horietako jende askorentzat salbazio modukoa izan dira.

Laburbilduz, kriptomonetek efektiboa ordezkatzeko dutenaren suposizioa, hauek unibertsalki onartuak izatea suposatzen du, eta hau, beste arrazoia batzuekin batera, gaur egun urruti dagoen egoera da. Ez da ezinezkoa, baina epe motzean gertatu ezin den gaia batez ari gara.

8. DIRURIK GABE BIZI, POSIBLE AL DA?

Pentsatu ohi izan da dirurik gabe bizitzea ez dela pertsona batek nahi izan duen aukera, baizik eta beste erremediorik ez izatearen ondorioz ematen den egoera dela. Baina hau ez da guztiz horrela. Badago hau borondatez egitea erabakitzen duen jendea.

Atal honetan, honen arrazoiak eta adibideak landuko ditugu; azken batean, lan honen amaierara ailegatzen ari gara, eta gure helburura - **“Dirurik gabe bizi: utopia edo posibilitatea?”** jakitea den - iristen lagunduko diguten istorio errealetan oinarrituko gara.

Gako hau lantzeko, teoriaz zein praktikaz baliatuko naiz.

8.1. Dirurik gabe bizi, ikuspuntu teoriko baten bitartez

Suposizio ariketa soil bat besterik ez bada ere, oso litekeena da dirua ordainketa unibertsalerako bide gisa ez edukitzeak errealitatea erabat eraldatzea, eta, aldi berean, erantzuten zailak diren gai ugari planteatzea: gizarteak berriz ere trukera joko al luke? Diru mota berri bat asmatuko al litzateke? Agian birtuala? Edo, aitzitik, pertsonen diruaren existentzia ahaztea aukeratuko lukete, horrela zoriontasunezko eta axolagabekeriako mundu batean bizitzeko.

Horrela, alde batetik, pertsona batek dirurik gabe bizitzeko aukera duen aztertuko dugu, eta bestetik, dirua baztertzen duen gizarte baten posibilitateaz hausnartuko dugu.

Lehen puntuari dagokionez, hurrengo egoerak planteatzen dira (*¿Se puede vivir sin dinero? ¿Una persona? ¿Una sociedad?*, 2020):

- ❖ **Naturara bueltatzea.** Gainontzeko gizartea aldatzen ez dela suposatuko dugu, eta beraz, dirua ekonomiaren oinarritzko tresna dela. Egoera honetan, dirurik gabe bizitzea aukeratzen duen pertsona batek ez luke aukera gehiegi izango, eta guztiak gizartetik aldentzea suposatuko lukete.

Ezer ez duen pertsona baten egoera aztertuko dugu. Bere bide bakarra bizirik irautea lagunduko dioten tresnak lortzen errazten dion naturazko leku batetara jotzea izango litzateke, eta hau urte osoan klima beroa duen herrialde batean izango litzateke errazago.

Hala ere, gaur egun jabe batek bere lurak erabiltzeagatik tasarik edo alokairurik eskatzen ez duen leku batean askatasunez bizitzea oso zaila da.

Gainera, diruaren menpe egon nahi ez duenak beste garai bateko bizimodua izan beharko luke: arrantzatu, ehizatu, landu eta ibai garbi batetik ura edan. Guzti hau eskuz egindako tresnak erabiliz egin beharko luke, dirurik gabe lortu daitekenik irudikatzea oso zaila bihurtzen dena.

- ❖ **Laguntza eta diru-laguntzekin ia ezer gastatu gabe bizitzea.** Egungo gizartean dirurik gabe bizitzea posible den zalantzan jartzen dute askok, eta ezinezkoa bezala ikusten dute. Baina diru gutxirekin bizitzearen aukera posible ikusten dute, soluzioa bi hautabideetatik pasatzen delarik:

- **Gastatu gabe bizitzea.** Edo, hobeto esanda, oso gutxi gastatzen. Egoera honetan, erosketak oinarritzko zerbitzuetara mugatu beharko litzateke, hala nola, janarira eta bizilekuetara. Gai korapilatsuena etxebizitza da, azken batean, inoren ondasunak lapurtu eta bidegabe bereganatu gabe dirurik gabe bizitzeko aukerez ari gara, etxebizitzaren okupazioekin gertatzen den bezala.

- **Laguntza eta diru-laguntzekin bizitzea.** Ez da ezinezkoa. Espainiaren kasuan, adibidez, baliabiderik ez duten pertsonentzako diru-laguntzak daude. Oso kopuru txikia da, baina badira beste laguntza batzuk ere, esaterako, kasu batzuetan argiaren ordainagiria ez ordaintzeko aukera ematen du legeak, eta baita ere deskontu handiak. Alokairuko etxebizitzak ere badaude, prezio baxuetan.

Beste puntua, dirua baztertzen duen gizarte batean bizitzea dena, pixka bat konplexuagoa bilakatzen da.

Guztiaren errua diruari bota dakioke, baina errealitatean tresna bat baino ez da, helburu positiboekin zein negatiboekin erabil daitekeena. Bere jatorrizko helburua gizonen arteko trukea erraztea zen. Lehen trukea erabiltzen zen³⁵, baina muga askoko irtenbidea zen. Orduan, erreferentziazko balio bat asmatu zen, prezioen bidez produktuak edo zerbitzuak beste batzuentatik aldatzeko aukera emango zuena, lana zerbitzu horietako bat izango zelarik.

Tresna honen erabilera gero eta konplexuagoa denean iristen da arazoa, eta hau azken hamarakadetan eman den gertakaria izan da. Dena duela mende asko hasi zen, sinemenarekin eta interesarekin. Ondoren, beren erabilera eta justifikazioak zituzten beste mekanismo batzuk agertu ziren, hala nola akzioak edo bonuak. Baina badirudi prozesua azkenean hain produktu finantzario konplexuetan amaitzen dela, non inork ez baitu ulertzen benetan zer diren eta zenbat balio duten. Gauza bera gertatu zen AEBetako zabor-hipoteketan oinarritutako produktu egituratu ospetsuekin.

Baina goazen gure gakora. Dirurik behar ez den gizarte mota asko imajinatu daitezke. Horietako bat, nahiko utopikoa, gizon eta emakume guztiei beren trebetasunen araberrako lana esleituko diena izango litzateke. Beraz, bakoitzak bizitzeko beharrezkoak diren produktu eta zerbitzuak jasoko lituzke, inork ez beste inork baino gehiago edukita.

Idea hauek interesgarriak dira, baina mugak dituzte.

Alde batetik, **motibazioaren** alderdia dugu. Besteek jasotzen dutena jasoko badut, edozer egiten dudala ere, ziur aski ez dut ahaleginik egin nahi. Beraz, eraginkortasun handia galtzen da.

Bestetik, utopia honen arazo nabarmen bat **gizakiaren izaera** eta honek **boterearekiko duen erakarpena** ahazten duela izango litzateke. Dirua existituko ez balitz ere, denbora pixka baten ondoren desberdintasunak sortuko lirateke berriz ere. Azken batean, pertsona batzuek beren lana garrantzitsuagoa dela pentsatuko lukete, eta ondorioz, denetik gehiago jasotzea eskatuko lukete.

Azkenean, dirurik ez badago ere desberdintasun horiek berriro agertuko balira, gaur egun diruarekin lotzen ditugun arazoei jarraituko liekete, hala nola aberastasunen pilaketari eta desberdintasunari.

8.2. Dirurik gabe bizi, ikuspuntu praktiko baten bitartez

Zoritxarrez, mundu globalizatua eta gizarte kapitalistak mundu hori sortzen, inbertitzen, gastatzen eta, batez ere, gure egunerokotasunaren hasiera eta amaiera kardinal gisa lortzen hezteko diseinatuta daude, baina inoiz ez hura gabe bizitzeko edo bizirauteko.

Esan bezala, badago jendea dirurik gabe bizitzea erabakitzen duena borondatez, eta ez beharragatik.

Atal honetan, hau egitera bultzatzen duten arrazoiak islatuko ditugu, eta istorio errealez baliatuko gara hau posible dela ikustarazteko.

³⁵ Diruaren oinarritzko historian, ordena trukea, dirua eta kreditua da, baina jadanik David Graeber-en puntuan alderantziz eman zela badakigu (kreditua, dirua, trukea).

8.2.1. Istorio errealak

Dirurik gabe bizitzeko erabakia hartzen ari diren pertsonen uste ideologiko anarkiko baten alde egiten dute, beren etika politikoaren adierazpenik puritanoena den aldetik. Dirua, fisikoa edo digitala, gure gizartea jasaten duten gaitzen atzean dagoela ulertzen dute (ustelkeriatik hasi eta ultralehiakortasunera, gutziziatik edo inbidiatik pasa) eta gizabanako gisa deuseztatzen gaitu: harengatik eta harentzat bizi gara. Ez da zorionaren iturria, baizik eta hori kentzeko tresna bat, dirua desagerraraztea bilatzen duten pertsona eta kolektibo gehienek adierazi duten bezala (Gil, 2014).

Bizi-aukera horren aldekoen artean, gutxi gorabehera erradikalak diren, baita gutxi gorabehera antolatuak diren pertsonak daude. Lehenengoen artean, bitarteko irtenbideak sustatzen dituzten kolektiboak nabarmentzen dira, hala nola moneta sozialak³⁶. Denbora-bankuak³⁷ eta trukea beste aukeren artean aurkitzen dira.

Horrela, zenbait pertsonen esperientziei erreparatuko diegu, hauetako hiru, globalki izan duten inpaktua dela medio, gehiago sakonduko ditugularik (Gil, (2014a)):

- ❖ **Enric Durán, “bankuen Robin Hood”, 1976.** Kataluniako aktibista honek 2008ko irailean lortu zuen ospea; banketxei milioi erdi euro inguru lapurtu zituen kontrol-iragazki guztiak hautsi zituzten kreditu-operazio burutsu batzuekin. Harrezkero, ez du etsi egungo finantza-sistemaren alternatiba ekonomiko eta sozialak predikatzeko ahaleginean.

Kataluniako Kooperatiba Integrala deiturikotik, Duran moneta sozialen bultzatzaileetako bat izan da, euroaren alternatiba gisa. Kontua da harreman ekonomikoak pixkanaka aldatzen joatea, eraldaketa globalaren oinarria delako, erkidego-ekonomia eta elkarri laguntzeko ekonomia sustatuz. Merkatariek, kooperatibek eta harreman ekonomikoak irauli nahi dituzten pertsonen onartzen dituzte txanpon alternatibo horiek, eta hori eredu aldatzeko bitarteko urratsa da, moneta horiek biltzar eta elkarte kolektiboek kudeatzen dituztelako, kapitalaren logikatik kanpo.

- ❖ **Elf Pavlik, 1982.** Bere bizimodu berria besarkatu aurretik, San Frantzisko-ko luxuzko ondasunen sektorean lan egiten zuen web garatzaile ezaguna zen. Bere ibilbide profesionala oparoa zen, harik eta egun batean dena atzean utzi, bere gauzak oparitu eta lo-zaku batekin bakarrik geratzea erabaki zuen arte. Hilabete batzuk geroago, pasaporteari ere uko egin zion, eta, orduetik, etxaldeetan, landetan edo herrialde ezberdinetako hiri handietan bizitzera iritsi da.
- ❖ **Daniel Suelo, 1961,** sistema monetariotik kanpo dagoen *blogger*-a. Klima-aldaketa eta gizakiok planetan uzten ari garen aztarna ekologikoa izan ziren ekologista erradikal horrengan eragin handiena izan zuten faktoreak sistema uzteko. Bere bizitzako 14 urte igaro ditu Utah-ko kobazulo batean bizitzen, eta, nomada moduan, basoan biltzen duenarekin, arrantzarekin eta,

³⁶ **Moneta sozialak** gizarte- edo ingurumen-arloko proiektuak sustatzeko berriaz sortutako dirua da, batez ere tokiko eskalan. Hau da, tokiko lana eta kontsumoa sustatzeko sortzen da moneta hori, eta komunitate eta kolektibo jakin batzuk ahalduzten dira helburu sozialak lortzeko (*Monedas sociales que fomentan las economías locales*, d.g.).

³⁷ **Denbora-bankuak** pertsonen komunitate bati denbora eta zerbitzuak trukatzeko aukera ematen dion tresna bat dira: ematen diren zerbitzu-orduak kontabilizatu egiten dira, eta "saldo" positibo bat eratzen da, gero beste zerbitzu batzuegatik truka daitekeena (OCU, 2020).

noizean behin, ehizarekin bizirauten du. Liburutegi publiko batean eguneratzen duen bere blog eta web orrian, munduarekin partekatzen du bere esperientzia.

8.2.1.1. Heidemarie Schwermer

Bere esperientziarekin munduan inpaktua sortu zuen pertsona, alemaniar emakume bat izan zen, **Heidemarie Schwermer** (1942-2016). Bere istoria hurrengoaren izan zen (*¿Es posible vivir sin dinero?*, 2014):

Heidemarie, psikologoa zena, alargun gelditu zen 1994an, bi seme-alaba zituela. Bere bizimodu berria urte horretan hasiko zen, Dortmund-en truke-elkarte bat sortu zuenean, Europako lehenengoetakoa. Bertan zereginak trukatzeari proposatu zuen, ez dirua: zuk janaria prestatzen badakizu eta janaria egiten badidazu, nik autoa konponduko dizut, adibidez.

Transakzio mota horrek, denboran zehar luzatua eta pertsona askok lagundua, erabateko aldaketa ekarri zuen, ez bakarrik tokiko ekonomia ulertzeko modu berrian, baizik eta, batez ere, nortasuna indartzeko moduan, norberarenganako konfiantzan eta gizarteko kide guztiengan baliagarri sentitzeko sententzioan; izan ere, bakoitzak egiten zekiena eskaintzen zuen, eta, ondorioz, ordaindu gabeko lan bat sortzen zuten, beste edozein dirurekin baino gehiago motibatzen zuena.

1996an, Heidemarie-k beste urrats bat eman zuen bere konpromisoan, eta guztiz beharrezkoa ez zen ezer gabe bizitzeko ideia gauzatzea erabaki zuen. Bere altzariak, bere liburuak, bere etxetresna elektrikoak oparitu zituen, baita alokairuan zuten familia-etxe bat ere, ez baitzuen nahi bere maizterren hileroko ordainketaren dirurik. 2002an, bere kasua mundu erdian aztertu zuten gizarte autosostengagarrietako aditurik handienetako batzuek.

Heidemarie bere istoria dokumental moduan zabaldu zuen 2010ean - *Living Without Money* izenekoa -, eta, aurretik, 2001an liburu bat idatzi zuen bere esperientzia azalduz, *Das Sterntaler-Experiment. Mein Leben ohne Geld* (2001). Azpimarratzekoa da lehen edizioaren egile-eskubideei zegozkien diru-sarreraren dirua kobratu zuenean guztia tratu txarrak jasotzen zituzten emakumeen kolektibo ezberdinei eman zizkiela, berak behar ez zuela argudiatuz.

Aipatutako dokumental horretan, Heidemarie bera jarraitzen dugu bere egunerokoan, eta janaria, garraioa eta ostalua nola lortzen dituen ikusten dugu. Bere bizi-filosofian ere sakontzen du, eta hau aukeratzearen arrazoiak islatzen ditu. Argi ikusi daiteke nola berarentzat diruan oinarritzen den eta pertsona baten balioa bere aberastasun mailan oinarritzen den gizarte batean dirurik gabe bizitzea erraza den. Bidetik aurkitzen dituen pertsonak iritzi desberdinak dituzte beren bizimoduari buruz; batzuek parasitotzat jotzen dute, beste pertsonengandik bizitzen ari dela esanez, eta beste batzuek, berriz, inspirazio iturritzat.

Baina, garrantzitsuena gudan duen indarra da. Bere historiaren bidez, diruak gure pentsatzeko, bizitzeko eta jokatzeko moduan duen eragina kontuan har dezakegu, baita horrek gure bizitzan, osasunean eta ingurumenean duen eragina ere. Dokumentalaren ideia horiek azalerraten ditu eta materialismoaren eta gehiegizko kontsumoaren gaiak islatzen ditu.

Horrela, *La Vanguardia* aldizkariak 2002an eginiko elkarrizketa batean, argi utzi zuen bere posizioa:

Bizimodu hori eramatearen arrazoiengatik galdetzerakoan, bere erantzuna finkoa zen. Hainbeste gauza behar ote dugun planteatzen hasi zen, eta baita ere etengabe erostearen behar hura. Erantzuna erraza zen, ez; dirutik pasatzen ez diren beste bizimodu posible batzuk daude.

Diruari buruz galdetzen ziotenean, aurrerapen nabarmena izan zela esaten zuen, trukerako oso baliagarria zena, harik eta berezko balio bihurtu zen arte. Azken batean, hau metatzea da helburua, eta bere jabetzak jendearen balioa neurtzen du.

Irakaspen garrantzitsuak utzi zituen Schwermer bere bizipenekin (*Vivir sin dinero, la historia de Heidemarie Schwermer*, 2020):

Bere etxea erabat hutsik ikusi zuenean, ezin zoriontsuago sentitu zela esaten zuen, eta dantzan hasi zen bere askatasun berria ospatzeko. "Egiten dakizkizun gauzek balioa dutela ulertu behar da, eta asko. Ez zara daukazuna, dakizuna eta besteei eskaintzeko daukazuna zara".

Heidemariiek beti esaten zuen bere asmoa ez zela besteak bera bezala bizitzea, baizik eta gaur egungo sistema ekonomikoa ez zuela gustoko eta nolabait aldatu beharreko zerbait zela uste zuen: gutxiago kontsumituz, hobeto bizi.

Horrela, bere bizimoduak bere buruarengan zuen konfiantzari zegokionez emaitza bikainak ekarri zizkiola ziurtatzen zuen. Hau da, egiteko gai zaren eta beste batek behar duena eskaintzea, besteak berdina egingo duenaren itxaropenaz.

Horrela, etengabe mugitzen gara, eta zoriontsu izaten gara maite ditugun gauzak egiten ditugun bitartean, eta, nolabait, probetxua ateratzen diogu horri. Toki- edo ordutegi-murrizketarik gabe, edo hilaren amaieran ordainsari bat jasotzeak baldintzatuta sentitu gabe.

8.2.1.2. Mark Boyle

Mundu mailan inpaktua izango duen beste esperientzia bat **Mark Boyle** (1979) izeneko gizon batekoa da. Irlandarrak dirurik gabe bizitzen saiatu zen, diru-sarrerarik gabe, banku-konturik gabe, gasturik gabe. Erradikal *downshifting*³⁸ moduko bat.

Aipagarria da Boyle ekonomian lizentziatua zela, eta horrek bere istoria interesgarriagoa egiten du. Bere plana, - egungo gizartean bizi garen pertsona gehienen berdina dena, zoritxarrez -, lan on bat izatea, ahal zuen diru guztia irabaztea eta gure gizarteak arrakastatsutzat jotzen duen guztia erostean oinarritzen zen.

Denbora batez hala egin zuen, janari organikoko enpresa handi bateko gerentea zen eta portuan yate on bat izateko adina irabazten zuen. Baina bere bizimodua aldatzeko ideia Gandhi³⁹-ri buruzko dokumental bat ikustean agertuko zen, bere esaldi batek harengan eragina izango zuelarik: «munduan ikusi nahi duzun aldaketa izan» (*Vivir sin dinero. Mark Boyle lo ha conseguido*, 2021).

³⁸ *Downshifting*-a, funtsean, bizimodu modernoa zalantzan jartzea da, desira eta anbizio materialek bultzatuta baitago. Mugimendu hori 80ko hamarkadaren erdialdean sortu zen AEBn, eta helburu nagusia gure denboraren jabeak izatea da, luxu edo hobeto ordaindutako postu batzuei uko egitea beharrezkoa bada ere, beste gauza batzuen artean (*Downshifting. Cómo vivir mejor con menos*, 2021).

³⁹ **Mohandas Karamchand Gandhi** (1869 - 1948) bakezale, politikari, pentsalari eta Indiako abokatu hinduistaz gain, Raj britainiarren aurkako Indiako Independentzia Mugimenduaren buruzagi nagusia izan zen, eta horretarako indarkeriarik gabeko desobediencia zibila egin zuen («Mahatma Gandhi», 2022).

Beraz, munduan ikusi nahi zuen aldaketa izateko, dirurik gabe bizi beharko zuen gutxienez bere bizitzako urte bat bertan behera utziz. Hiru urtez egin zuen, eta orain, bere bizimodu bihurtu da.

Heidemarie-k egin zuen bezala, 2010ean Boyle-k bere esperientzia azaltzen zuen liburu bat idatzi zuen: “*The Moneyless Man: A Year of Freeeconomic Living*”.

Liburu horretan, Boyle-k urte horretarako nola prestatu zen azaltzen du; nola lortu zuen ostatu bat, CO₂ ez ekoizteko helburuz nola diseinatu zuen bere komuna, nola lortu zuen neguan hura bera berotzea, eta nola lortu zuen hamabi hilabete horietan janaria biltzea, besteak beste.

Dirurik gabe bizitzearen erabakian pisutsuak izan ziren arrazoiak argitzen ditu baita ere. Mark-entzat dirua gizakien arteko lankidetzaren aurreko lehiaren hazia da, jatorria. Zergatik?

Batetik, komunitatea ordezkatzeko du segurtasunaren berme gisa. Bestetik, zor gisa, planetako baliabideen gehiegizko ustiapenaren arrazoi garrantzitsua da. Bere planteamenduaren atzean, beraz, printzipio ekologistak daude, baina batez ere humanistak eta antropologikoak: diruak gizakiek lurraekin duten harremana desorekatu du, eta beren artean dutena galbideratu du.

Mark Boyle-k bere utopia indibidualan planteatzen duena abenturaz beteriko bizitza da, biziraupenaren oinarritzko gaien konponbidean okupatua. Rousseau⁴⁰-ren natura-egoerara ia itzultzea proposatzen du, denetik askatutako bere basati onera, baina berak hala erabakita eta mendebaldeko ekoizpen-moduari eta horren eratorri sozial guztiei lotutako gaitzak jakinda.

Boyle-k bere utopia indibiduala egitea lortzen du, bere garuna, bihotza eta eskuak lotzea, norabide berean jardun dezaten eta horrela bere kontraesanak konpon daitezken. Baina bere nahia balentria pertsonal hori talde mailara bihurtzea da. Hasieratik, lan proselitista bati ekin zion, benetan berak egin duen bezala bizitzea zein erraza den azaltzeko (Vallejo, 2017).

Bere helburua munduari gauzak egiteko beste modu bat dagoela ohartaraztea da, beste arau batzuk dituen komunitate bat eraikitzeko, non lankidetzaren eta trukea (ondasunena eta borondatezko lanena) bizitza harmonikoago baten oinarritzko printzipioak izango diren, bai giza taldearen baitan, bai ingurunearekiko harremanean. Bere utopia indibidualak utopia kolektiboaren adibide praktikoa izan nahi du.

Baina, proposatzen duen gizarte-antolaketa berriak baditu zalantzan jartzeko arrazoiak. Boyle-k gogoeta egiten du: «Dirurik gabe bizitzeak tokiko ingurunean behar ditugun materialak lortzera behartzen gaitu; gure komunitatearen beharrak asetzeko erantzukizuna hartzera behartzen gaitu; erabiltzen duguna gehiago baloratzera behartzen gaitu. Era berean, tokiko eskulana erabiltzera behartzen gaitu».

Hala ere, guztiok dirurik gabe bizi gaitezkeen galdetzen zaionean, bere erantzuna ezezkoa da hasiera batean. Bere hitzetan, hondamendi handia izango litzateke. Izan ere, energia merkearekiko mendekotasuna dugu, eta ugaritasunaren inguruko azpiegitura global oso bat sortzea lortu dugu.

⁴⁰ **Jean-Jacques Rousseau** (Suitza, 1712 - Frantzia, 1778) Suitzako filosofoa izan zen. Voltaire eta Montesquieu-rekin batera, Ilustrazioko pentsalari handien artean kokatzen da Frantzian. Ideien ordena berean, gizarte justuago batean bizitzeko gizakiak egoera naturala bizi behar duela dioen printzipiotik abiatu zen Rousseau. Beste era batera esanda, ez okerbideratu, ezta indibidualista izatea ere, gizakia berez onaitzen baita eta gizartearen baima usteltzen duena (Fernández, T. & Tamaro, E. (2004b)).

Baina, irtenbide bat ikusten du baita ere: gure erabakiak hartu ahal izango bagenitu eta gehienez 150 pertsonako komunitateetan kokatu, orduan zergatik ez? Gure historiaren %90 baino gehiagotan, orain baino askoz ere ekologikoagoak jardun genuen aldi batean, dirurik gabe bizi ginen, ez genuen honen beharra. Orain, gu gara dirua erabiltzen dugun espezie bakarra, naturarekin kontaktu gutxien duen espeziea garelako seguruenik.

8.2.1.3. Benjamin Lesage

Azken istorioa, eta gehienbat sakonduko dudana, frantziar mutil batena izango da, **Benjamin Lesage** (1985).

Benjamin-ek bizimodu hau 2010eko urtarrilaren 19an hasiko zuen, beste bi lagunekin batera, Nicola eta Raphael.

Bere hitzetan, bizitzan garrantzitsuena ondo egiten dizuna egitea da, zure barne-ahotsak esaten dizuna, zure bihotzak sentitzen duena... horrek elikatzen ditu gure arima eta espiritua. Dirurik gabe bizitzeko erabakia askatasun hutsetik etorri behar da, ezin da ez betebeharrak ez doktrina izan, barrutik etorri behar da, sentitu behar duzun zerbait da.

Beste istorioekin parekatuta, hark ere liburu bat idatzi zuen “*Vivre Sans Argent, Et si le rêve devenait réalité*” izenekoa.

Hasiera batean, idazleak dirua aukeratzeko askatasuna bezala ikusten du. Baina urteak pasatzen diren elean, murrizketa bat besterik ez delataz jabetzen da.

Beren istorioa hurrengo da (Hara, 2012):

Hiru lagunek La Haya-ko unibertsitatean ezagutu zuten elkar eta konponbide ekologikoak eta kulturen arteko bizikidetzak sustatzeko elkarte zibil bat sortu zuten. Egun batean, Mexiko-ra bidaiatzeko ideia izan, eta beren arrasto ekologikoa ez handitzearren, hoberena ozeanoa zeharkatzeko itsasontzi bat erabiltzea zela ikusi zuten, hegazkinaren ideia baztertuz. Ildo horretatik, ahalik eta modurik jasangarrienean bidaiatzen saiatzeko aukera zegoela pentsatu zuten: dirurik erabili gabe, kontsumitu gabe, botilako urik hartu gabe, etab.

Bidaia hiru eguzki-motxila eta eguzki-panel batekin (kanpoko elektrizitatea ez erabiltzeko eta eguzkiaren indarra biltzeko), ur-iragazki batekin, arropa pixka batekin eta, batez ere, jarrera positibo batekin hasiko zuten. Haien asmoa “*autostop*” eginez bidaiatzea zen— autoetan, kamioietan edo itsasontzietan —, eta jatetxeetan, merkatuetan eta ahal zen lekuetan janaria birziklatzea. Lehen egunak zailak izan ziren hotzgatik, baina laster Espainiako hegoaldera iritsi ziren, eta gero Marokora.

Bertan, *Allah*-rengan hainbesteko federekin, marokorak oso atseginak izan ziren, denak ahal zuten neurrian laguntzen zuten: jaten emanez eta edozein lekutan lo egiteko sabaia emanez, adibidez. Esperientzia horrek bihotza zabaldu zien, eta dirurik gabe bidaiatzeak ate ezezagunak irekitzen zituela ulertzen hasi ziren. Azken batean, hori da modurik onenetako bat kultura bat aurkitzeko eta ezagutzeko: denbora guztian harekin harremanetan egon behar duzu, bertatik ikasi behar duzu.

Ondoren, 3 lagunak Kanariar Uharteetara eramatea onartu zuen Belgikako mutil bat aurkitu zuten; uharte horietan, Las Palmas-eko portua ezaguna da Atlantikoa zeharkatu nahi duten belaontzietako azken bisita-leku gisa. Bi hilabeteko itxaropenaren ondoren, bi italiarrek Cabo Verderraino eta gero Brasil-era garraiatzea onartu zuten.

Bidaian zehar, pentsatzeko izan zuten denbora hainbeste izanda, Raphael-ek eta Benjamin-ek dirua betiko uztea erabaki zuten. Izan ere, dirua sorkuntza birtuala besterik ez zela ulertu zuten, eta hori gabe, mundu eskuzabalago, adiskidetsuago eta bidezkoago bat aurkitzen dela.

Nicola, dirua uztearen ideiarekin ados ez zegoena, Europara itzuli zen, eta beste biok Guyanara abiatu ziren, non Nieves, Raphael-en neska-laguna, bidaiara batu zen. Kolonbian, Camille gehituko zitzaien, Benjamin-en neska-laguna.

Horrela, beste belaontzi batekin Panama-ra iritsi ziren, eta Erdialdeko Amerika osoa igo zuten Cancun-en egingo zen COP 16-ra⁴¹ iristeko.

Guztira 30.000 kilometro inguru egin zituzten “*autostop*”-aren bitartez, ezertarako dirurik erabili gabe (lau aldiz mugetan izan ezik), era guztietako leku imajinagarrietan lo eginez, paisaia harrigarriak ikusiz eta kulturak oso modu berezian deskubrituz. Bidaia horri esker ikusi ahal izan zuten jende gehiena ona dela eta lagundu nahi duela, denok gauza berberak bilatzen ditugula: zorientasuna, maitasuna, bakea, eta ezer ez dela ezinezkoa benetan nahi baduzu.

Hala, bidaia hau egitearen arrazoiak galdetzen diotenean, Benjamin finkoa da bere erantzunean. Dirurik gabe bizitzearen esperientzia, burua, bihotza eta begiak ireki zizkien. Jasotzearen balioa (eta zailtasuna) eta zein beharrezkoa den jasotzen ikastea ulertu zuten, horrela zuk ezer espero gabe eta esker onez bueltan ere eman ahal izateko. Munduak behar duen gauza bakarra maitasuna eta errukitasuna dela ikusi zuten. Azken batean, istorio asko entzun zituzten non jende askok dirurik gabeko mundu batekin amets egiten zuen, baina beren familiaren egoeratik ezinezkoa egiten zitzaien bizimodu hori eramatea. Hori abiapuntua izan zen egiten zutena baliotsua zela ikusteko; beren burua zalantzan jarriz, eta diruari zein sistemari buruz hausnartuz jendea inspiratu zezaketen.

Eztabaidatzea, dena kolokan jartzea, bere filosofiaren zati garrantzitsu bat zen, eta horregatik utzi zuten dirua, hau zergatik erabiltzen zuten beren buruari galdetuz. Bere erantzuna sinplea izan zen: Lurrak, naturak, eguzkiak, fruituak oparitzen dizkigute trukean ezer espero gabe. Dena oparitu zitzaien, eta bidegabekoa zen baliabideak bereganatzea eta eurenak balira bezala saltzea. Diruaren berezko bidegabekeria ulertu zuten lur honetan dagoen guztia partekatu beharrean (denontzat nahikoa dena) zikoizkeria handiz saltzen dugula.

Boikot bat bezala da: dirua geure zorionerako utzi dugu, gure harmonia pertsonalarekin jarraitzeko, pentsatzen, sentitzen eta egiten dugunaren arteko kongruentziarekin. Baina dirurik gabe bizitzea ere sistemari hau ez dugula behar esateko modu bat da, beste bide bat dagoela. Azken finean, Benjamin-ek munduan zehar zabaldu nahi zuena beste bide bat dagoela eta hau eta geuren burua aldatzeko aske garelako zen.

Beren istorioarekin bukatuz, Benjamin-ek ondorio garrantzitsuak ateratzen ditu bere bizipenaren ondoren.

Dirurik gabe bizi badira, gure oinarrizko beharrak entzunda denok daukaguna partekatzen hasten bagara, inor ez dela janari edo etxerik gabe geratuko uste dutelako da. Ez dute trukearen beharrik, ezer espero gabe eman eta jasotzen dutelako, naturalki denok gure familiarekin egiten duguna. Haientzat, guztiok gara anai-arrebak lur honetan. Dirurik gabe eskemak hausteko, sistemak irakatsitako kultura hori hausteko,

⁴¹ Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen 2010eko Konferentzia.

beren kultura sortzeko, beren kultura eraikitzeko bizi dira, beti ere giza balioetan oinarrituz, hala nola partekatzea edota maitasuna.

Beren ustez, dirua oztopo bat da, eta burua askatzea eragozten du, hau izatea segurtasuna izatearen sinonimo dela irakatsi digutelako beti.

Ez dute esaten irtenbidea denik edo denok horrela bizi beharko genukeenik. Esperimentu bat da, bide bat, eta espero dutena bere bidea bilatzeko jendea horretan inspiratzea da.

Atal honi amaiera emateko, aipatu egun web orri bat dutela non beren egoera azaltzen duten eta aholku modukoak ematen dituzten dirurik gabe bizitzea erabakitzen duen jendeari laguntzeko helburuz.

Beren blog-ean islatutako bidaiaren ondoren daramaten bizimodua (ez dakiguna zein datakoa den zehazki) hurrengo litzateke (Vivir sin dinero, d.g.):

- ❖ Nieves, Raphael, eta beren umea, Alma Lucia, lagun batzuen etxean bizi dira, Berlin-en.
 - Nieves-ek diru pixka bat erabiltzen du garraiorako, baina ez gainerako guztietarako (altzariak, arropa, oihalezko abaraskak eta janari begano biologikoa- % 100 zaborratik birziklatzen dena).
 - Raphael ingurumen-kontzientziazioko kanpaina bat egiten ari da hedabideetan, eskoletan eta unibertsitateetan. Eko-familiak eko-komunitate edo lur-komunitate bat lortu nahi du, Italian bizitza harmonian modu autosufizientean jarraitzeko, ingurumenarekiko eta munduarekiko kontzientziarekin.
- ❖ Benjamin-ek dirurik gabe bidaiatzen jarraitzen du Estatu Batuetan zehar Yazmin eta Marisa-rekin batera, Europara itzultzeko planekin, patuak berarentzat dituen planei jarraituz.

9. METODOLOGIA: ELKARRIZKETA SAKONA, ELKARRIZKETA EGITURATUA, INKESTAK

Jadanik, dirurik gabe bizitzeko erabakia arrazoi ezberdinengatik izan daitekeela ikusi dugu, ideologiagatik, beharragatik, edota ekologia ikuspuntu batengatik, besteak beste.

Hala ere, guztiok antzeko konklusio eta ondorioetara iristen direla ikusi dugu baita ere: dirurik gabe bizitzea posible da, eta horrek barrutik aberasten gaituela baieztatzen dute askok, zoriontsuago bizi direla, maitasuna, enpatia, eta ezer espero gabe ematea eta jasotzea guztiaren klabe direlarik.

Horrenbestez, eta aurreko puntuaren ildotik, nik neu nere azaletik jaso nahi nituen dirurik gabe bizitzearen esperientzia eta bizimodu ezberdinak. Horretarako, elkarrizketa sakonak, galdetegiak zein inkestak erabili ditut tresna gisa.

9.1. Definizioak

9.1.1. Elkarrizketa sakona, EMIC-ETIC ikuspuntuak

Zer da **elkarrizketa sakona**? (Sakoneko elkarrizketa, d.g.).

Sakoneko elkarrizketa edo elkarrizketa sakona elkarrizketa indibidual kualitatiboa da, aukeratutako subjektuari gai jakin bati buruz luze eta zabal hitz egiteko bidea ematen diona, mugarik gabe eta erabateko irekitasunez. Hartara, sakoneko elkarrizketa gai bati buruzko informazio sakona, izenak adierazten duen bezala, jasotzeko erabiltzen da, gaiari buruz ahalik eta dimentsio gehien biltzearen.

Aldi berean, ikertzailearen erabateko ezjakintasunetik abiatzen direnean, gai bat esploratzeko ere erabil daiteke, bereziki ikertzaileak gaiari buruz duen informazioa oso urria denean, gerora ikerketa kuantitatibo hipotetiko baten bitartez zehaztu daitekeena. Sakoneko elkarrizketak ematen duen informazioa, ordea, egituratu gabea da, eta gai berdinari buruz izan arren, subjektu desberdinetarako aski anitza izan daiteke. Beste alde batetik, aski subjektiboa ere izaten da, subjektuak bere esperientziak eta ikuspuntuak azaltzen dituelako gaiaren inguruan.

Sakoneko ikerketen emaitzen heterogeneotasuna ekiditeko, eztabaida-taldeak erabil daitezke, non subjektu batzuk batera biltzen diren, eta horien arteko interakzioak ikuspuntu komun batera eraman dezakeen. Sakoneko elkarrizketa ordea irtenbide bakar gisa agertzen da gaiari buruzko informazioa eman dezaketen subjektuak geografikoki sakabanaturik daudenean. Subjektuaren bakartasuna abantaila ere izan daiteke, beste subjektuen iritzi eta ikuspegiak bere iritzi eta ikuspegiak ez kutsatzea bilatzen bada.

Sakoneko elkarrizketak saio batzuetan zehar gara daitezke, eta orokorrean ez da komeni 30-40 minutu baino gehiago irautzea, subjektuaren arreta piztuta edukitzeko. Aurrez aurre burutu behar dira, subjektuaren eta ikertzailearen artean, baina telefonoz ere garatu dira.

Horrekin batera, oso kontzeptu interesgarriak, eta elkarrizketa sakonekin harreman garrantzitsuak izan dezaketenak, **EMIC-ETIC** deiturikoak lirateke.

Kontzeptu hauek Kenneth Pike hizkuntzalari iparramerikarrak lehen aldiz sartu zituen neologismoak dira, jokabide soziala nola gertatzen eta ulertzen den adierazteko. ETIC "*phonetic*" hitzaren atzizkiarekin bat dator ("fonetika" esan nahi du, ingelesez), eta EMIC "*phonemic*" hitzarekin bat dator ("fonemika" esan nahi duena).

Ezagutza zientifikoan aplikatutako ETIC eta EMIC perspektibei esker, gizarte-fenomenoetako buruzko ikuspegi desberdinak eskuratu ditugu. Aurrekariak hizkuntzalaritza estrukturalistan daude, baina soziologiara eta antropologiara eraman dira, jokabide sozialari buruzko erantzunak eta azalpenak lantzeko aukera ematen baitute.

Ikuspuntu hauek, giza talde jakin batzuek jokatzeko erabiltzen duten modu espezifiko horren zergatia jakiteko sortu ziren, edota modu zehatz batean antolatzeko zuten arrazoia jakitearren, besteak beste.

Beraz, zeintzuk dira ikuspegi hauen desberdintasunak? (Guzmán Martínez, 2018)

- ❖ **EMIC.** Ikuspuntu honen arabera, jokabide sozialaren arrazoiak jokabide hori duen pertsonak ematen dituen arrazoi horrekiko azalpenean aurkitu daitezke bakarrik. Barne-ikuspegi bati dagokio, ikertutako taldearen ikuspegiari, alegia.

Adibide bat jartzearen, leku bateko biztanleen nolabaiteko ohituraren deskribapen EMIC bat gizarte horretako kideek ohitura horren esanahia eta arrazoiak azaltzen dituztenean oinarrituko litzateke.

- ❖ **ETIC.** Ikuspuntu honen arabera, jokabide sozialak, eta hauen arrazoiak kanpoko norbaiten zuzeneko behaketaren bidez azal daitezke. Aztertutako pertsonen gertaera horiei ematen dieten esanahia ezagutzeko interesik ez duen edozein behatzailek ikus ditzakeen gertakarien deskribapena da.

Errealitatearen interpretazioak ETIC ikuspegitik ez dira erraz bereizten eta, askotan, beren errealitatea interpretatua den pertsona horiek beraiek ez dituzte azalpen horiek ulertzen.

Laburbilduz, EMIC eta ETIC bi gogamen desberdin bezala kontrajartzen dira, ikertzailearena eta ikertutako subjektuarena.

9.1.2. Elkarrizketa egituratua

Zer da **elkarrizketa egituratua**? (*¿Qué es una entrevista estructurada, semiestructurada y no estructurada?*, d.g.)

Elkarrizketa egituratuak ikerketa-tresna gisa definitzen dira, eta oso zurrinak dira beren eragiketetan, beren parte-hartzailei tarte gutxi edo bat ere ez diotela uzten emaitzak lortzera eta aztertzeraz bultzatzeko. Beraz, elkarrizketa estandarizatu gisa ere ezagutzen da, eta ikuspegi kuantitatiboa du.

Elkarrizketa honetako galderak alde aurretik erabakitzen dira, eskatutako informazioaren xehetasunaren arabera, eta gehienbat inkesten ikerketan erabiltzen dira, elkarrizketa-saio guztietan uniformetasuna mantentzeko.

Erantzunen zehaztasunean zentratzen da, eta horiei esker oso datu antolatua bil daitezke. Inkestatu bakoitzak galderen egitura beraren erantzun ezberdinak ditu eta lortutako erantzunak kolektiboki azter daitezke.

9.2. Metodologia

Elkarrizketa sakona Rosa Sarasola deituriko Intxaurrondon bizi den emakume bati egindakoa da, ONGtan eta asoziazio ezberdinetan lan egiten duena.

Elkarrizketa honen helburua, batez ere, gure gizartearen eta emakumeak kooperatzen duen lekuei dagokionez aurkitzen dituen desberdintasun nabarmenak aurkitzea zen. Diruan oinarritzen den gizarte baten posibilitateaz galdetu nion baita ere. Denetarik hitz egin genuen.

Oso interesgarria izan zen hasieratik, eta oso emakume hurbila eta atsegina iruditu zitzaidan. Elkarrizketa hasi aurretik, ezagutu eta jakin nahi nuen informazioa lortzearen, gidoi baten modukoa prestatu nuen, baina ondoren, gidioa alde batera utzi eta lagun batekin hitz egitea bezala izan zen.

Hasiera batean, egiten zituen lanei dagokionez, asko sakondu zuen. Egia esanda, oso lagungarria izan zen gaiari buruz informazioa jasotzerako orduan, asko esateko baitzuen, eta bere lana benetan maite zuela ikusten zen.

Azken batean, entzunda neukan ONGei buruz, baina ez dut inoiz izan bertan lan egiten duen pertsona batekin hitz egiteko aukera, eta zure pentsaera aldatzeko bultzada handia suposatzen du, nire ustez.

Ondoren, ONGtan lan egiten ez duen, baina denbora batez boluntariotza egin duen neska bati **elkarrizketa egituratua** egin nion. Nire helburua bertan lan egin eta gero bere pentsatzeko modua aldatu zen jakitea zen. Oso erantzun interesgarriak eman zituen baita ere.

Bukatzeko, eta konklusio batera iristearren, nire hurbileko zein beste pertsoneri **inkesta** bat egin nien. Horrekin, ONGan lan egiten duen eta boluntariotza egin duen pertsonen pentsaerak eta hori egin ez duten pertsonen pentsaerak islatzea zen helburua, beren bizitza ikusteko moduan desberdintasun nabariak zeuden ikusteko.

9.3. EMAITZAK

Orokorrean, ez nuen espero hainbesteko harrera, eta asko harritu eta poztu ninduen jendeak bere iritzia eta ikuspuntua modu esplaiatuan eta ezer gorde gabe erantzutea. Oso pozik nago lortutako erantzunekin.

Horrela, lehenengo elkarrizketa sakonaren emaitzak islatuko ditut; ondoren, galdetegiarenak, eta bukatzeko, inkestena.

9.3.1. Elkarrizketa sakona

Esan bezala, elkarrizketa Rosa Sarasola izeneko emakume bati egin nion, Intxaurrondon bizi dena.

Rosa 17 urte zituenetik aritu da merkataritzan, baina 2008an, denbora gehiago zuela, osoz sartu zen boluntariotzan, beti izan duelako bere inguruan zeuden arazoak ikusteko sentsibilitatea.

Asoziazio eta ONG ezberdinetan hartzen du parte, non lan desberdinak burutzen dituen:

Alde batetik, “Cruz Roja”-n hasi zen proiektu batean ari da egun. Umeekin etortzen diren ama etorkinentzat haurtzaindegi bat bezalakoa da, 0-2 urte bitarteko haurtzaindegiak pribatuak direlako.

Bestetik, harrera-sarea deritzokona izango genuke. Premiaz, etxerik gabe geroz eta jende gehiago zegoela ikusita sortu zen. Rosa-ren hitzetan, udalak ez du inolako laguntzarik ematen. Orduan, boluntarioengandik, hainbat elkartetatik edo sentsibilizatutako jendearengandik sortu zen sare hau. Helburua Donostia-ra datozen eta hemen gelditu nahi duen jendeari integratzen laguntzen saiatzea da, paperak egiten lagunduz, jadanik laguntza txiki bat duten pertsoneri logela bat aurkitzen lagunduz... Oso zaila egiten zaie, azken batean, jendeak pertsona bat arabiarra dela edo dena delakoa ikusten duenean atea ixten dizkietelako.

Ondoren, arropaz arduratzen den beste talde bat egongo litzateke, urtaro aldaketa dagoen bakoitzean, arropa lortzeaz eta banatzeaz arduratzen dena.

Bukatzeko, janari taldea egongo litzateke, Rosa gehienbat murgiltzen den taldean izango litzatekena. Janari-bankura eskatzen dute, eta ondoren hau banatzearen lokal

batetik bestera aritzen dira; ez dute inolako subentziorik. Arazoa zein da? Hilabete osorako ez dela nahikoa. Azken batean, laguntza behar duen jendearen artean mezua zabaltzen da, eta hasiera batean familia eta kalean bizi den jendeari lagutzeko aukera bazuten, egun familien kasua beste asoziazioek hartu behar izan dute.

Oxfam Intermon ONGan ere kolaboratzen du proiektu ezberdinetan laguntzen.

Ikusten duen egoerataz galdetzean, Rosa finkoa da bere erantzunean “**¿Las situaciones que vemos? Pues chavales que han venido debajo de un camión, que han pasado la frontera; otros que han saltado la valla, porque la mayoría son árabes, pues eso de Marruecos, esa zona**”. Batzuetan, eskala modukoak egiten dituzte, eta Rosa harrিতuta utzi zuen gauza Madril-en kasua da. Hiri oso handia bada ere, paperak ez dituen jendearentzat aukerak oso eskasak dira, hutsak. Hemen, aldiz, paperak ez dituen pertsona batek lanbide-prestakuntzarako kurtsoetara apuntatu daiteke, doanik.

Neska-mutilek bizimodua ateratzea bilatzen dute, parrokia batera hurbilduz, “Cruz Roja”-ra (ezaguna delako herrialde askotan) hurbilduz... Orokorrean, eta izan duten bizitzaren ondorioz, esker onekoak izaten dira gehienak. Askotan bizitzen duten egoeretako bat praktika batzuk burutzen dituztenean izaten da. Enpresa buruak eskutitz baten modukoa egiten die paperak izatekotan kontratatuak izango zirela baieztatzen. Baina, hor dago gakoa: “**si no llevan 3 años viviendo aquí, no pueden trabajar, pero claro, si no trabajan, ¿cómo van a estar?**” esaten du Rosa-k. Azken batean, 3 urtez egon behar dute beren burua aurrera ateratzen saiatzen.

Egoera ikusita, beren jarreragatik galdetu nion, eta harrিতuta utzi ninduen erantzuna. Rosa-ren hitzetan, poztasunez beteriko jendea da. Parentesi bat egiten du baita ere: jasan behar dituzten egoeren aurrean, kalean bizi diren pertsona batzuek arazo psikiatriko edo psikologiko gehiago dituzte. Poliziak haiekiko erabiltzen duen presioa ere aipatu zuen: ezer ez egin gabe, batzuei 3 edo 4 aldiz eskatu diete dokumentazioa egunean bertan.

Askotan pentsatu ohi izan da jende hau subentzioengatik bizi nahi duela, baina Sarasola-k argi uzten du hau ez dela horrela: “**¿A quién le gusta que le estén dando por no hacer nada un dinero? O sea, tú quieres ser útil, quieres trabajar, quieres conseguirlo por ti mismo ¿no? ... la mayoría lo que quiere es encontrar trabajo, pero es que tienen que estar 3 años viviendo así**”.

Honen ondoren, laguntzeak eta, nolabait bidea ahal duten neurrian jendeari irekitzeak berari zer aportatzen dion galdetu nion. Izaerarekin datorren zerbait zela baieztatu zuen. Azken batean, bidegabekeriak eta gustatzen ez zaizkizun gauzak ikusteak eta ezer ez egitea, ez inplikatzeta, zaila egiten zitzaiola aipatzen zuen; azken finean, zuk bizi-baldintza batzuk dituzula eta besteenak pixka bat hobetzen saiatzen ari zarela jakiteak atsegina egiten zaizu.

Gure gizartearen eta beren gizartearen arteko desberdintasun nabarietak galdetzerakoan, zaila egin zitzaion erantzutea. Bere ustez, bizitza ikusteko beste era bat dute. Alde batetik, egoera lasaitasun handi batekin eramateko daukaten gaitasuna harritzen dio. Bestetik, ez die denboraren balio bera ikusten, eta batzuetan, benetako beharra ez dutela ematen du, egia den edo ez denaren zalantza sortuz.

Ildo horretatik, zein balio transmititzen dieten galdetu nion, nola ikusten zuten bizitza. Konklusioa hurrengoan izan zen: guztiok, guk eta beraiek, helburu berdina dugu, bizimodua ateratzea, baina baldintzak ez dira berdinak. Adibide bat jartzearen, guk txikitatik jaso dugu hezkuntza, eta haiek, berriz, helduagoetatik jasotzen ari dira. Helburu bera dugu, baina haiek guk baino askoz ere zailtasun handiagoarekin.

Diruaren paperaz hitz egin nion jarraian, mugatzen gaituen galdetuz. Erantzuna erabatekoa izan zen: bai. Bere ustez, beharrezkoak ez diren gauzak lehenesten ari dira, eta benetan garrantzia duten gauzak alde batera uzten dituzte.

Bere hitzetan, dirua garrantzitsua da, baina, azpimarratuz: funtsezkoa baldin badaukazu, baliteke dirua hain garrantzitsua ez izatea, baina oinarritzkoa daukazulako. Aldiz, funtsezkoa ez baldin badaukazu, garrantzi handikoa suertatzen da; “... **Entonces, desde luego, el cubrir lo mínimo, lo básico, yo lo veo importantísimo el dinero para eso**”.

Gaiarekin jarraituz, desberdintasun sozialei buruz galdetu nion, eta gauzak beste modu batera egin daitezkeen planteatu nion. Rosa-k baietz esan zuen, eta enpresen adibidea jarri zuen: enpresak sortu zuena, seguruenik langileen lan baldintzak hobetzeko erabili dezakeen etekin bat du, baina, norberekoikeriaren ondorioz, bere ongizatea bilatzen du bakarrik.

Kontsumoan oinarrituriko gizartea da, gainezkatuta dagoena, eta ahalik eta gehien izatean oinarritzen dena. Dirua? Bai, baina gutxiagorekin bizi gaitezke.

Mundu ideala imajinatzea kostatzen zitzaiola esaten zuen, baina egungo egoera hobetu daitekeela azpimarratzen zuen, gutxiagorekin bizitzearen aukera.

Gizakia aldaketa horretarako prest dagoen galdetu nion: “**yo me conformaría con que consumiesemos un poquito menos. O sea, sin llegar a una utopía de decir “ay, todo de todos”, pero que se bajara un poco el nivel este derrochante que tenemos tan exagerado. Yo lo veo por ahí. Entonces, ¿que puede haber igual un mundo utópico? Pues, igual sí, pero desde luego lo básico hace falta**” esaten zuen Rosa-k.

Elkarrizketarekin bukatzeko, bere lanari eta bizipenei, bizitako esperientziei, eman nien lekua. Rosa-k, leku guztietan bezala, bere lanean gauza onak zein txarrak zeudela aipatzen zuen.

Orokorrean, jende onarekin gurutzatu dela esaten zuen. Azken batean, boluntarioria batean dagoen jendeak zerbait izango du komunean beti.

Gauza txarrak ere aipatzen zituen. Badago jendea konprometitzen dena, eta gero ez dena agertzen. Ez dute boluntarioria benetako lan bat bezala ikusten, baizik eta “boluntarioa naiz, ez dut betebeharra” bezala.

Esperientzia konkretu batez galdetzean, berak egunerokotasunean jartzen zuen begirada. Jendea adierazgarria denean atseginagoa dela esaten zuen - horrek ez du esan nahi beste jendea esker onekoak ez izatea - barrutik hobeago sentitzea eragiten baitzuen.

Bestetik, oso interesgarria eta pentsarazi egin zidana “... **No sé si el voluntariado te cambia, o tienes que cambiar para hacer voluntariado. Es que, no sé qué es lo primero. Porque, si que es verdad que es enriquecedor, pero si no has hecho un “chip” en tu cabeza, un cambio en tu “chip”, ¿cómo vas a hacer voluntariado?**” esaldia izan zen.

Berak garrantzi handia ematen zion honi. Azken batean, jende askok “postureo” agatik, polita delagatik, egiten dute boluntarioria, eta ez benetan nahi dutelako edota barruan hala sentitzen dutelako. Zaila da inoiz pentsatu ez duen eta barne-aldaketa txiki hori egin ez duen pertsona bat animatzea, aldaketa hori “postureo” samarra izan daitekeelako.

Minutu pare bat egon ginen hizketan “postureo” horri buruz. Egun, “influencer” ak deritzonak (ez guztiak), Afrikako herrialde ezberdinetara joaten dira “laguntzera”, beren

benetako beharra zein den jakin gabe. Nahi duten bakarra argazki sinple bat da. Hau oso eztabaida handia izan da *Twitter* bezalako plataformetan.

Gai honekin lotuta, Rosa-k bera txikia zenetik gaur artean emandako aldaketa azaldu zidan. Lehen, misiolariak, oro har elizakoak zirenak, tokietara joaten ziren haien ustez egin behar ziren gauzak inposatuz. Orain, ONGak guztiz kontzientzaturatu daude, eta edozein mugimendu egin aurretik, komunitate bakoitzak zer behar duen jakiteaz arduratzen dira. Azken finean, komunitate bakoitzak da hoberen dakiena zein behar dituzten; hauek, ONG ezberdinei komunikatzen diete beren beharrak, eta ONGak dirua biltzen dute, pertsona espezializatu bat bidaltzen dute, eta proiektua komunitateko jendearekin martxan dagoenean, pertsona hori etxera bueltatzen da.

Kontzeptua aldatu egin da: ez da zuk nahi duzuna egitea zurea ez den herrialde batean, baizik eta horko jendeak eskatzen dizunean laguntzea.

9.3.2. Elkarrizketa egituratua

Galdetegia 24 urte dituen Uxue Amondarain izeneko neska bati egin nion. Uxuek betidanik izan du kanpora irten eta laguntzeko nahi hura, eta 2022ko otsaila-martxoan aldera, egi bihurtuko zen bere ametsa.

Bartzelonako ONG batean egin zuen boluntariora, “Cooperating Volunteers” izenekoa.

Bere helburua ONG ezagun batekin joatea zen, azken batean, pandemiak gogor jo zuen, eta konfiantza ematen zion organizazio batekin egin nahi zuen bere lehenengo bidaia. Unibertsitateko lagun batek jarriko zuen harremanean lehenengo aldiz ONG honekin.

Bere nahia Afrikako herrialde batera joatea zen, eta hala egin zuen; zehazki, Fort Portal-era abiatu zen, Ugandan kokatzen den hiri batera.

ONGari buruz hitz egitea eskatzean, ez nuen halako erantzuna espero. Bere hitzetan, ONG hitza entzutean laguntza etortzen zaigu burura gutako gehiengoei, baina Uxuek ikuspuntu hori aldatua duela esaten du.

Uxuek ez zekien bertara ailegatu baino lehen zeintzuk izango ziren bere ordutegiak, eta hara iristean harridura izan zen sentimendua. Astelehenetik ostiralera, eta goizez soilik egin behar zuen lan proiektuan, baina, arratsaldeetan zer? Asteburuetan zer?

Bere ustez, geure izaera da determinatzen duena nola aprobetxatzen dugun geure denbora librean. Batzuek denbora hori siesta eta parranda botatzeko erabiltzen zuten bitartean, Uxuek eta beste lagunek gainontzeko bolondresen proiektuak bixitatu eta bertan esku hartzeko erabiltzen zuten.

Horrek zapuztu egin zuen, azken batean, **“zertara joan zara baina bolondres lanetara? Bolondres jardunean egon zarela esatera? Instagramera argazkiak igotzera?”** esaten du Amondarain-ek.

Balioei buruz hitz egitean, oso gaia konplexua dela adierazten du. Bere iritziz, behar oso desberdinak dituzten bi mundu paraleloz hitz egiten ari gara: Uganda eta Euskal Herria. Gure balioak beren gizartean erabilgarriak ez direla adierazten du, eta ezertxo ere ez izan eta guztia eman nahi/emate hori bi gizarteen arteko desberdintasun handiena dela azpimarratzen du, guk, aldiz, atzerrikoekin arrotz eta hotz jokatzekoak garen bitartean. Bizirautea da euren eguneroko lanik garrantzitsuenak.

Ondoren, galdetegiaren beste galdera diruari buruzkoa izan zen, diruak jokatzen zuen paperari buruz galdetu nion, eta hau oinarri ez duen gizarte baten posibilitateaz.

Bere erantzuna diruarik gabe gauzak aurrera ateratzea zaila dela izan zen, eta dirua nola eta non erabiltzen eta inbertitzen denaren arazoan jartzen du begirada. Bere ikuspuntua oso interesgarria izan zen: dirua gastatu zuen bertako familiei koltxoak erosten edota eskola material zein kirol materiala erosten, besteak beste.

Uxuek uneoro zekizkien zeintzuk ziren bertako beharrak, eta bere dirua erabiliz, behar hauek ahal zuen neurrian asetzen zituen.

Bukatzeko, boluntariotza errepikatuko ote zuen izan zen azkeneko galdera, eta honek gauzak, errealitatea, ikusteko modua aldatu zion baita ere.

Ez zuen erantzun finko bat eman, zenbait arrazoiengatik. Alde batetik, laguntza ematen jarraituko duela baieztatzen du, baina zalantzan jartzen du ONG baten izenpean izango denik, ez dakielako zer puntutaraino izan den bere laguntza behar-beharrezkoa.

Bere buruari laguntza hura emateko ONG baten beharra duen galdetzen dio, bere kabuz egitearen posibilitateaz pentsatuz.

Bere hitzetan, **“zein da ONGaren benetako helburua eta betebeharra? Horiek dira nire benetako zalantzak, hasiera batean nik uste nuena eta orain dakidana, ez baitira zuria eta beltza kolorea baino; bi errealitate oso ezberdin. Edonor probatu eta eurek beren begiz errealitatea ikustera animatuko nuke”**.

9.3.3. Inkesta


Inkesta egiterako orduan, zenbait faktore izan ditut kontuan. 51 pertsona erantzundako inkesta bat izan da, eta erantzunak anitzak izan dira, baina gehienak konklusio berdinarara iritsi dira: egun gauden puntuan, dirurik gabe bizitzea ia ezinezkoa da, edota oso zaila.

Hasteko, adina galdetu dut. Inkestatutako taldea 22-62 urteen arteko pertsonak izan dira. Azken batean, baliteke adinagatik haien erantzunean eragina izan dezaketen hainbat gertaera bizi izana, baina orokorrean guztiok antzeko erantzunak eman dituzte.

Bigarren galdera egun lanean aritzen ziren izan da. %86,3a baiezkoa eman du. Hau hurrengo galderarako egiten zitzaidan garrantzitsua. Nire helburua lanean egiten zuten aportazioa beren soldatan islatuta ikusten zuten jakitea zen, eta erantzunak hurrengoak izan dira:

¿Crees que lo que aportas en tu puesto de trabajo (competencias, esfuerzo) se refleja en lo que recibes, en tu salario? / Zure lanpostuan egiten du...latzen dela uste al duzu? Soldatan islatzen dela?

48 respuestas



1.Irudia: Beren aportazioa, esfortzua, soldatan islatuta ikusten duten pertsonen portzentaia.

Grafikoan ikusten den moduan, gehiengo nabarmen batek ez du bere soldatan egiten duen ekarpena islatuta ikusten. Oso puntu sendoa iruditzen zait. Azken batean, diruan oinarritzen den gizarte batean baldin bagaude, eta jasotako diru bera horrek motibazioa ez badu ematen, gauzak ondo egiten ari ez diren seinale da.

Beste faktore eta pizgarriak daude, baina, orokorrean, guztioi motibatzen gaituena dirua da, gizarte honetan hau gabe oso zaila delako aurrera ateratzea; motibazio falta hori badaukagu, denbora pasatzen den eanean ez dugu geure %100a emango, eta hau txarra da enpresarentzat zein norberarentzat.

Izan ere, baliotsua zarela, zure ekarpenak pisua duela, zurekin kontaktzen dutela sentitzeak, adrenalina baten modukoa da. Enpresek langileen eraginkortasuna bilatzen dute, baina langileek pizgarriak ez badute, motibazioa ez badute, ez dituzte zuzendariak bilatzen dituzten emaitzak lortuko. Azken batean, elkarren beharra dute.


Ondoren, dirua mugatzen gaituen galdetu nuen, eta %90,2a baiezkota eman zuten, gehiengo handi batek. Puntu garrantzitsua iruditu zitzaidan jarraian zetorren galderarako, egungo gizartean diruak zoriontasuna ematen zuten zena.

Berriz ere, gehiengoak (%86,3) baietz esan zuten, baina beste faktorek ere eragiten dutela aipatzen zuten. Azken finean, kontsumo gizarte batean hazi gara, gehien izatea dena helburua. Gizarte honetan dirurik ez badaukazu, ez daukazu ezer, eta etengabe zabaltzen duten mezua da, beste gauza batzuk ere inportanteak direla alde batera utziz.

Hurrengo galderarekin geurea den gaian sartu nahi izan nintzen osoz.

¿Crees que es posible una sociedad donde el dinero no sea la clave de todo? / Diruan oinarritzen ez den gizarte baten posibilitatea ikusten duzu?

51 respuestas



2.Irudia: Diruan oinarritzen ez den gizarte baten posibilitatea ikusten duten pertsonen portzentaia.

Hemen erantzunak askotarikoak izan ziren. Gehiengo batek, txikia izanda ere, diruan oinarritzen ez den gizarte baten posibilitatearen alde jo zuten, baina ñabardurekin. %13,7a soilik ezinezko bezala ikusi zuten, eta 3 pertsonak bakarrik eman zuten zorrotasunez baiezkota.

Jarraian zein beste bizimodu aukera ikusten zituzten planteatu nuen. Gai honetan, asko zuten esateko.

Alde batetik, gehiengo batek soluzioa komunitatean bizi eta trukera bueltatzean ikusten zuten, kontsumismoa alde batera utziz eta guztiok gutxieneko ekarpena eginez, gizartearen eta ingurumenaren ongizatea lehenetsiz botere ekonomikoaren gainetik.

Denok helburu bera izango genukeen gizarte baten aldekoak ziren askok, eta ez bakoitzak bere buruari begiratzen duen aldekoak. Munduarentzat eta munduarekin konprometitutako gizartea.

"Truke-txanpona" beste bat izatea, janaria, zerbitzuak... baita ere proposatu zuten.

Erantzunak anitzak izan badira ere, orokorrean trukea edo auto-laborantza oinarri dituen komunitate bat aipatzen dute, jasangarritasuna errazagoa izango litzatekeenean. Elkarri laguntzen diogun gizarte baten esperantza, baina utopikoegia izan daitekeena.

Atentzioa deitu zidan erantzunetako bat "Doce tribus" aipatzen zuen pertsona batekoa izan zen, 15 urtez bizimodu hori eraman baitzuen. "Doce tribus" fededunen komunitate bat da, non dena partekatzen den eta diru guztia pota komun batera joaten den, eta ondoren bertatik banatzen da. Modu askoz errazago eta zoriontsuago batean bizi daitekeela aipatzen zuen, ideologiarekin ados bazaude betiere.

Aurreko erantzunak emanda ere, egungo egoeran horrelako bizimodu baten probabilitatea txikia dela aipatzen dute; izan ere, bizi garen gizartean onura gehien jasotzen duen jendea aldatzeko interes gutxien duena da, eta normalean erabakitzeke ahalmena dutenak izaten dira.

Ondoren, niri interesgarria egin zitzaidalakoan, denbora-bankuen erabilpenaz galdetu nien, eta gutxi batzuk bakarrik entzuna zuten kontzeptua izan zen.

Definizio simple bat eman eta gero, beren erabilpena sustatuko ote zuten planteatu nuen.

Pertsona askorentzat oso ekimen interesgarria zen, baina gizarte osoa erabiltzeko momentuan konplexua zein zaila zela esaten zuten. Azkenean, gizarte osoa lotuta egon beharko luke, eta egozentrismoaren ondorioz, oso zaila da, beti beste baten aurretik joan nahi baitugu eta besteak baino gehiago izan nahi dugulako; azken finean, hala irakatsi digute.

Benjamin Lesage-k zeraman bizimodua ere azaldu nien, eta haiek beren burua horrela bizitzen ikusten zuten pentsaraztea bultzatu nahi izan nuen.

Erantzuna finkoa izan zen: ez. Batek edo biek eman zuten bakarrik baiezkoa, baina "baina" batekin, denbora labur baterako eramango zuten bizimodu hori, esperimendatzeko helburuz soilik.

Gehiengoak bideraezina bezala ikusten zuen. Izan ere, zuk zeu ez duzu dirua erabiltzen, baina beste pertsonak duenari ateratzen diozu probetxua. Beraz, gizarte osoak bizimodu hori eramatea ezinezkoa bezala ikusten dute.


Oreka puskatuko litzatekeela aipatzen dute: bidean norbaitek laguntzen badizu, baina zuk ekarpenik egiten ez baduzu, oreka hausten da. Horrek funtziona dezan, denok egin beharko genuke ekarpena.

Erosotasuna ere aipatzen dute, egun duten bizitza ez lukete alde batera utziko bizimodu hori eramateko, eta batzuek ere segurtasunik eza eta biziraupena aipatzen dute; azken batean, besteen mende zaude.

Bidetik, gure gizartea, kontsumista dena, aldatzeko posibilitateaz hitz egin nahi nuen. Aurreko erantzunak irakurrita, oraingoak ez ninduten harritu.

¿Ves viable que nuestra sociedad, consumista, algún día pueda cambiar? / Bidegarri ikusten duzu gure gizartean, kontsumista dena, aldaketa nabarmena ematea dagoenik?

51 respuestas



3.Irudia: *Gizartean aldaketa bat emataren posibilitatea.*

Ia guztiok aldaketa bideraezina bezala edo urrutiko etorkizun batean emateko modukoa ikusten zuten.

Inkestarekin bukatzeko, eta interesgarrien egin zitzaidan galdera, egungo gizartearen gizakia hiru hitzetan deskribatzekoa izan zen.

Ez nituen adjektibo negatiboak eskatu, baina nire harridurarako, horrelakoak izan ziren ia guztiak. Gehien errepikatutako adjektiboak hurrengoak izan ziren: berekoiak, kontsumistak, indibidualistak, interesatuak, beldurriak, mesfidatiak, gaiztoak, ezkorrak, lehiakorak, egoztristak, diruzaleak, konformistak, inbidia...

Adjektibo positibo batzuk ere egon ziren, baina portzentai oso txiki batean: pasiozkoak, argiak, onak, garbiak, ameslariak...

Askok aldaketa baten beharra ikusten dute, baina erosotasun baten barruan, eta hor dago arazoa, konformismoan: aldatu egin behar dugula ikusten dugu, baina ez ditugu beharrezko pausoak ematen.

10. KONKLUSIOA

Dirurik gabe bizitzearen gaia hasiera hasieratik konplexua bilakatzen da.

Hasteko, diruaren kontzeptua bera da konplexua: paper eta txanpon simple batzuetan jartzen dugu konfiantza hala esan digutelako.

Irakurritako esperientziak aldaketarako esperantza txiki bat dagoela pentsarazi didate, baina nire ustez, egungo gizartea ez dago horretarako prest. Guztiok ikusten dugu aldaketa baten beharra, baina konformista hutsak gara, eta erosotasunean bizitzen garenez, ez gara ausartzen aldaketa horri hasiera ematen.

Betidanik erakutsi digute “onena” izango zarela ahalik eta gehien izanez gero, eta gizakia bera kontsumistak, berekoiak, indibidualistak, izatera bultzatu dute horrekin. Margotzen diguten patroia hurrengoa da: ikasi, lan bat lortu, dirua irabazi, eta bizitza konpondua izango duzu. Horrek gure ongizatea bakarrik bilatzea eragin du, eta ez zaigu axola ondokoak ezer ez izatea guk nahi dugun guztia daukagun bitartean.

Elkarrizketa sakona egin ondoren, esaldi bat zehazki gelditu zitzaidan buruan. Boluntariora egitea gomendatzen zuen galdetxean, harritura utzi ninduen luze

zalantzan egon zela izan zen, elkarrizketa egin aurretik, bestelako erantzunak espero nituelako, “tipikoak”. Bere ustez, gure buruan “txip” aldaketa beharrezkoa ikusten zuen boluntariotza egin aurretik, eta nik ere hala uste dut, baina ez bakarrik boluntariotza egiteari begira.

Askotariko jendea dago, baina gutako gehienei ez zaigu axola munduan ematen diren bidegabekeriak. Adibide bat jartzearen, egunerokotasunean ikusten dugu etxe bat ez duen, janaririk ez duen, pertsonaren bat kalean, eta seguruenik ez diogu jaramonik egiten. Triste da, baina eroso bizi gara gure “ezjakintasunean”.

Niri dagokionez, hala ere ikusten dut. Lan hau egin badut ere, eta hausnartzeko bidea ireki badit ere, egun ez dut neure burua prest ikusten diruan oinarritzen ez den gizarte batean bizitzeko. Izan ere, txikitatik gizarte honetan hazia naiz, eta oso zaila ikusten dut posibilitate hori; denboran atzera joatea bezala ikusten dut. Azken batean, eroso bizi naiz, eta aldaketa baten beharra ikusten badut ere, egun ez diot honi leku ematen, etorkizun luze batean agian, zeinek daki.

Izaerak ere garrantzia duela pentsatzen dut. ONGan lan egin duten pertsonak, ia betidanik izan dute askoei falta zaigun sentsibilitate hori, benetako errealitatea ikustea ahalbidetzen diguna. Bertan egondako pertsonak inpaktu gehien sorrarazi zidaten erantzunak eman zituzten; izan ere, Uxuek berak esaten baitu hasiera batean ONG bati buruz zuen pertzepzioa eta boluntariotza egin ondorengokoa harentzat ere hunkigarria izan zela.

Argi dago errealitate paralelo baten modukoan bizi garela, eta bide luze bat dagoela aldaketa nabarmen bat lortzearen.

Inkestaren erantzunei begira, ateratzen dudan ondorio nabarmenena denok aldaketa hori beharrezkoa ikusten dutela da. Teoriari dagokionez, argi dago, baina praktikan itxuraz inporta ez duen beste puntu bat bezalakoa da.

Ez dugu egiten dugun ekarpena gure soldatetan islatuta ikusten, baina ez dugu ezer egiten hori aldatzeko. Prezioak gora doaz etengabe, baina ez dugu ezer egiten hori ekiditzeko.

Dirurik gabeko gizarte baten proposamen interesgarriak eman badituzte ere, inor ez dago prest horrelako bizitza eramateko, korapilatsua.

Gizakia definitzen duten hiru adjektibo eskatzean, guztiak negatiboak dira, eta, azken batean, beren burua deskribatzen ari dira. Hipokrita den mundu batean bizi garela uste dut, eta neure burua sartzen dut zakuaren barne.

Beraz, diruan oinarritzen ez den gizarte batez galdetzen badidate ere, nire erantzuna finkoa da: ez.

Posibilitatea ikusten dudan? Ikusiz, komunitate txikietan antolaturikoetan ikusten dut bideragarri, non, adibidez, trukea posible den. Ni Erreterian bizi naiz, eta 40.000 biztanleko udalerrri batean ez dut trukea egingarri ikusten.

Askok pentsatu ohi dugu dirua desagertzean pobrezia, desberdintasunak eta harekin datozen arazoak desagertuko lirakeela berarekin, baina errealitatea ez da horrelakoa.

Adibidez, denbora-bankuen proiektua erabiliko bagenu, hasiera batean ondo funtzionatuko lukeela uste dut. Bakoitzak, bere gaitasunen arabera, zerbitzu moduko bat eskaintzen du, eta aldi berean, beste zerbitzuetaz baliatzen da. Baina hau ez litzateke luzez horrela mantenduko, desberdintasunak sortuko lirakeelako berriz ere. Azken

finean, gizakia indibidualista, egoista, da berez, eta batzuek beren lana garrantzitsuagoa ikusiko lukete, eta denetik gehiago jaso beharko luketela pentsatzeari ekingo liokete.

Esan beharra dago, posibilitate hau guztiz baztertzen dudala abiatzen garen puntuaren ondorioz. Gizakia modernitate honetara egokitu da, baina gutako gehienok ez dugulako benetako beharra zer den ikusi, funtsezkoa izan dugulako beti. Trukean eta autosufizientzian jaio baldin bagina eta modernitate honen berri izan ez bagenu, gure pentsaera guztiz desberdina izango litzatekela uste dut. Horrenbestez, puntu honetan bideraezina ikusten dut bizimodu hori eraman ahal izatea. Ez dut gizakia modernitatea baztertzen eta autosufizientziara eta trukera bueltatzen ikusten, jadanik bizitza modernoa zer den badakielako.

Konkusioak hauek izanda ere eta benetako errealitatearen zati txiki bat besterik ikusi badut ere, lan hau egitea oso lagungarria izan zait. Egia esanda, gizarte honetan dirurik gabe bizi den jendea miresten dut, ni ez nintzatekeelako gai izango.

11. ERANSKINAK

(1) Elkarrizketa sakonaren transkripzioa

Entrevistador: Se escucha, ¿no? Perfecto. Háblame de ti, una pequeña presentación personal. ¿Quién eres tú?

Entrevistado: Muy bien. Yo soy Rosa Sarasola, he trabajado en comercio desde los 17 años, tenía tienda propia, me he dedicado al carnaval. En el 2008 dejé el negocio, y bueno, entonces, siempre he tenido interés por voluntariado, porque siempre he tenido la sensibilidad de ver los problemas que había a mi alrededor. En el 2008 ya tenía mucho más tiempo, y entonces, si antes ya hacía cosas pues luego ya me metí en muchas más.

Entrevistador: Un placer Rosa. Y, cuéntame, ¿cuáles son los trabajos que desempeñas? ¿Con qué organizaciones trabajas?

Entrevistado: Actualmente, estoy colaborando con Cruz Roja, con, bueno, el proyecto ya no está en Cruz Roja, pero es como una guardería para madres inmigrantes que no pueden dejar a los niños porque de 0 a 2 años las guarderías son privadas, y entonces hay una guardería como de 6 plazas o así donde durante la semana nos turnamos voluntarios para cuidar a esos niños.

Luego está el tema de la red de acogida. Esto ha surgido a raíz de que empezaba a haber cada vez más gente con necesidad, sin techo, y parece como que bueno, no parece no, el ayuntamiento no da soluciones: los albergues como máximo los tienen 3 días, entonces claro, con 3 días si estás de camino te puede servir, pero si tienes intención de vivir aquí, no te soluciona nada. Entonces, surgió de gente voluntaria, de diferentes asociaciones o gente sensibilizada, que nos hemos agrupado y hemos formado esta red de acogida, que hay también otra red de acogida ciudadana en Irún. Lo que pasa es que los de Irún ayudan más un poco al tránsito, a los que van hacia Francia. Pero los que vienen a Donosti, pues quieren estar aquí. En la asociación hay apoyo para que hagan los papeles, ayudamos a buscar piso a los que ya tienen alguna pequeña ayuda para poder entrar en una habitación, que está muy difícil por qué la gente en cuanto ve que una persona es árabe o lo que sea les cierran las puertas; se les acompaña un poco apoyándoles.

Luego hay otro grupo que son los encargados de la ropa, se encargan de recoger ropa y cuando hay cambio de temporada pues los chavales igual van en bermudas ahora, bueno pues buscarles ropa de abrigo, sacos, mantas... Porque muchas veces están viviendo en la calle, pasa el barrendero y les tira todo. Entonces pues piden, y se les vuelve a dar sacos, algo de abrigo...

